



Iturria: *Eskaldunak*, Jean Martin Hiribarren (faksimilea). Añamendi, 1971.
<http://www.susa-literatura.com/emailuak/hiribarren/>

Klasikoen Gordailuan:
<http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/A/AdemaPelegrin.htm>

ESKALDUNAK

Jean Martin Hiribarren

Klasikoen Gordailuak egindako lanak oro dominio publikokoak dira, eta, Jabetgo Intelektualaren Legearen arabera jatorrizko idazlanak bestelako eskubiderik ez baleuka, nahi bezala erreproduzi daitezke.

ESKALDUNEI BI HITZ HASTEAN

Eskribatzerat noha gauza zahar asko;
Herritar gehienek dute prezatuko;
Ez da lan errexena, gehienek jakin,
Denbora gana dela hedoi handiekin.

Hanbat denbora huntan nausi tokiaren,
Gutik jakin herrian nondik heldudiren,
Zer egin duten aitek hemen egoteko,
Bere sor lekhu maiten harmez beiratzeko.

Haur osteak ikusi, buraso gastutan,
Urthe multzu egoten eskola handitan,
Mihi arrotz zenbeitez ikhasi mintzatzen,
Eskaraz jakin gabe kasik irakurtzen.

Izan direla franses errege handiak
Badakike kondatzen hekien mihiak;
Hori baizik zenbeitek ez ikhastekotan,
Sekulakotz etxeak eman erreketan.

Zenbatak jakitea eskara herriko
Ezbaitute kondatzen bi arditendako!
O mihi ederrena, hasterik gabea,
Nork erran ez duiala lurrean pare!

Españolek español nahi dute jakin,
Franssek ere franses bere arantzekin;
Zertako Eskaldunak utziren eskara,
Bilhatzeko non gasta bertzetan denbora?



Ez othe da hain errex zerbeit ikhastea
Eskaran arrimatuz jakin egitea?
Izena bera nihork ez dauku eskaraz
Liburuetan eman iragan denboraz!

Latin, español, edo franses jeloskorrak
Goibeldu, ahal guziz, eskaldun zaharrak;
Berak ez mintzatzean, aise zen belztea:
Oi ezin sorrarazi hondatu mendea!

Dirurik ez duenak ezin ikhas deusik,
Sosa gabe ez baita eskola fransesik;
Liburu on guzia fransesez egina;
Soseko liburu bat gabe Eskalduna!

Mintzo naiz liburuez, eginak kanpoko,
Eta ez elizetan othoitz egiteko
Liburu saildu onak ausarki badire;
Arimako argiak lanho gabe dire.

Balentria bertzenak urrun hedatuak;
Eskaldun berthuteak nihon aipatuak;
Behar bada Eskaldun argitu ungiak,
Bilhatzen ohi mirail nonbeiko hirian.

Populu guzientzat ahalke handia
Aitetan ez kaustea bere gidaria:
Atzo sorthu direnei hori da gerthatzen
Nihork ez duelakotz ethorkiz argitzen,

Populu guzietan lurreko lehena
Ezin jasan diteke gutien jakina
Iharrus, Eskaldunak, zuen ilhunbeak,
Abia ordu luke argien mendeak.

Franses murdusatzea, ez da jakitate;
Ixilik egotea kasik hobe dute;
Ez dire nihorentzat hirri egin garri;
Hobe dute izanik denboraz egarri.

Eskaldun guzia da egun gonbidatzen
Has dadin izpirituz zerbeiten moldatzen,
Jakin dezaten arren gure ondokoek
Nolako gaiak zuzten hekin arbasoek.

Asko ungi egiten gure herrietan;
Beharra solegitzen gehien etxetan;
Eriek garraiatzen ixilik min tzarra;
Ontasuna hedatzen izan arabera.

Egin dire liburu nihonden tzarrerak;
Probetxos erretzea hetan gehienak;
Suge bezala dire bizi arrosotan,
Asiki hedatzeko gordez arimetan.

Arthik ordu liteke basa bisaiarat
Lehia duenari liburu tzarrerat:
Dugun kanta herria, lana, berthutea;
Goratik nik eginen egundik hastea.



IBERIA

Nihork ez du munduan Eskaldun adina;
Bakharra da mendetan bera egon dena;
Nahastean bertzeak bere pasaietan,
Odola hark du garbi beiratu zainetan.

Populu zaharrena, hari ohorea;
Ez da haren halturan nihongo jendea;
Nihoiz, nihoiz ez galdu aita Eskaldunak;
Ondoren ondo bethi utzi erdaldunak.

Sei mila urthe badu gizonen hasteak;
Suntsi zituen kasik oro iholdeak;
Hama-sei mende eta bertze erditsuan,
Urezko zigorrada hedatu munduan.

Handie lau ehun eta berrogoi urthetan,
Gizonak eman ziren lan sobra zorotan
Dorre bat zuten hasi, harat ihesteko,
Uholde berri zenbeit zenean hasiko.

Han arte mintzo bera guziek segitu;
Egia horrek froga segurenak ditu:
Nor nahik ikuskidin liburu saildutan,
Ithurri garbienak mende guzietan.

Babelgo populua Jainkoak nahasi;
Ezin akhaba ahal lan zuena hasi;
Banatu behar izan alde orotarar,
Suntsitu diren mila herri egiterar.

Urrunago gan gabe, zer da Iberia?
Uholdetik lekhora hautatu herria:
Herri edo tokia hola izendatu
Populuak *berritan* zuena hautatu.

Higanez bada goiti menden eskalera,
Denek erakusten, kondatuz denbora,
Nondik den eskalduna herriz herri jausten,
Berbera jar bidetan delarik egoten.

Populu ithurria iguzki alde;
Han seinale Eskaldun lehen egotea;
Sennaartik [1] lekhora kausten Armenia [2]
Garraiatu duena izen Iberia.

Hango mendi, ur, eta haranen izenak,
Denbora zaharretan, oro Eskaldunak;
Han egon ahal ziren hats hartzen bezala
Urtheak Pirenetan Iberia zela.

Errex da, ikustea, eskaldun hazia
Nonbait han izan dela lehen arthikia;
Ez dute ariarik bertze nihorekin:
Hun, Tartaro, Esklabon, Zinbre, Teutonekin.

Mintzoak erakusten, adin frogatzeko,
Ez duela ethorki negu alderdiko;
Horrek darama urrun, Jesu-Kristoz gora,
Mendez mende altxatuz haren sor denbora.

Pirenen inguruan eta non nahi den,
Populuek Iduri atzoko haurriden;
Kokotsean bizarra doidoia sorthua;
Bere aiten izena ez ezagutua.

Hamabortz ehun urthe doiean duela,
Munduan nihork jakin Fransesik bazela;
Europako jendea betantsu agertu;
Bastarten iduriko, aitarik ez kaustu.

Ez dire bathaiatu etxen izenekin;
Guziak sorthu dire larru berriekin:
Rusiano, Alaman, Franses, Españolak;
Nahi bezin garbiak dauzkaten odolak.



Iberiarrak badu Pirenetan dela,
Armeniako izen bera dakharkela,
Errexki hiru mila urthe iraganik;
Ez da hemen erraten deus segur ez denik.

Aise du gehiago; hori dut ematen,
Errex baita hortarik gorago higaten;
Orduan jarria zen lan hainitz eginik,
Eta lan hek frogatzen mende iraganik.

Humbolt eta Ampero dire jakinetan;
Sinheste har diteke hekin erranetan;
Hainitz dute ikusi, hainitz irakurtu;
Hekin hitzak zimendu hoberenak ditu.

Hek dute adirazten Iberiar zela
Europar lehen sorthu, populu bezala;
Hura dute kausitu Pirenen gainean,
Nihoren iduriko, zahar seinalean.

Zeltak han agertzean denbora goretan,
Iberiarrak nausi bi mendi aldetan;
Herriak bazituzten, batean bizitzen:
Ez gaztelu, ez hiri, egun batez sortzen.

Erresuma handia lehea Iberia;
Haren izenean zen oro Españaia.
Hedatzen ere zela Franzia alderat,
Noraino ez zilegi zuzen erraterat.

Mendeak behar ziren, orduko denboran
Herrixka egiteko zituzten haizkoran;
Non zen orai bezala hargin, karpinterik.
Ezagutzen othe zen ere haltzairurik?

Denboraren bortxaz zen fagoa aphaintzen;
Herrietan txarrenek mendeak galdetzen;
Hauk guziak erraten, sinhetsarazteko
Iberiar izate dohala gorasko.

Orai dukela mende hoita hama-hiru,
Hekin jende guzia jarri zen bi buru;
Bat ilkhi zen harmetan Korseko alderat,
Eta haren inguru ziren lurretarat.

Desterrutik Senekok [3] erraten amari
Korsek Iberiarra zutela iduri,
Seinalatuz berthute, aire bisaiaiko,
Oinetik bururaino zituzten soineko.

Asko hitz hekienik zuenean aitzen,
Aria handiena zioten kausitzen:
Batzuk ala bertzeak, hark uste zirela,
Europa guziaren arbaso bezala.

Erraten balu nihork Enperadorea
Eta altxatu duen tronurat andrea,
Biak odol beretik ilkhitzen direla,
Hainitzek beiraturen zoro bat bezala.

Jainkoak ez du behar jasan holakorik,
Franzia bi aldetan Eskaldun jarririk,
Mila urthen buruan, Parisko hirian,
Bere haur ikusteko, erregen alkhian!

Eskaldunen mintzoa, arras berezia,
Ezditeke zerutik atzo eroria;
Aldeko mihitarik batere iduri;
Zein zeinen ume diren hek orok ageri.

Balinbada oraino sinhets ez dukenik
Eskaldunen sortzea Europar lehenik,
Eskararak menditarat nondik nola jo du?
Noiz eta nongo herri mendetan hustu du?

Dugun Iberriarra segi egintzetan;
Ikus nolako aitak gintuen mendetan:
Estrabonek [4] erraten jakinak zirela,
Izpirituko lanak maite zituztela.



Mintzo da liburuez, eginak pikotan,
Kantatzen zituztenak bere aldapetan;
Bazuzten orhoitzapen zaharrak handizki,
Koplen karako lege maiteak osoki.

Eskaldun kopleto aipatu gustua,
Izan dela diruri bethi bardintsua;
Mihia nahi ahal musikan agertu,
Grazia berak segur bertzela ez ditu.

Aiphatzen Diodorok [5], jakin araberan,
Zelten Iberiarat heltzea denboran;
Ez ahantzi gerlate izan zituztenak,
Odolezko nigarren orhoitzapen minak.

Zamariz ala oinez gerlari lehenak,
Herritarrek ez gorde besotako zainak;
Egin behar nor nahik gerla beharrian,
Etsaia hondatzerat heldu zaienean.

Oinezkoa zaldiek nahastearekin,
Zaldunak jausten ziren erresekarekin,
Ehorzteko errekan soldadu zaurthua,
Beldurrez jadaneko odol gabetua.

Ardi ilezko kapa zuten estalkia;
Kobrezko arruda bat bulharrei josia;
Zanpelez gerrikoa, abarkak zangotan;
Burdinazko kaskatik plumaia gorritan.

Bi aldetarik aho ezpata zabalak,
Burdin pikadin nola bizarra nabalak;
Garbi behar zituzten janari guziak;
Soinekoak guziek zilhar iduriak.

Egiten edaria sagarrez urean;
Etzuten nafar biltzen aldeko lurrean;
Edaten zuten xorta arno sudunetik,
Ekharria izaten nonbait urrunetik.

Bakhotxari puskaka ontasun izartzen;
Heldu zen janaria guziei hedatzen;
Biziaz zohan deusen nihork gordetzea;
Mentan, orai bezala, lehen mandotzea.

Kanpokoei zein lehen atherbe ematen;
Ungia bihotz onez hauzoei egiten;
Elkhar maite handizki, ez jelsiarik;
Patriarkek ez izan ondoko hoberik.

Maite zuzten fandango eta saltokako,
Gorphutz zalueneztat eginak hasteko;
Biltzarretan emaztek lanak erakusten;
Urthe guziz hortako bilkhuiak egiten.

Sari handia zuen lanik hoberenak;
Haren nahiak khentzen alferrari minak;
Emazteak prezatzen bere lanetarik;
Deusetako zenak ez basan egoterik.

Gizonentzat ahalke tripa handiegi;
Gorphutzak ez ikusi nahi pisuegi.
Burdinazko gatheak emaztek lephotan;
Motho gora batzuek kaikuen moldetan.

Feniziarrek lehen hetan agertzean,
Non nahi zen dirua hekin menditzean;
Ez deuskerien kontra zuten ganbiatzen,
Balios zitekela guti gogoratzen.

Hekiekin untziak aise aberastu,
Aingura herdoilduak urre ganbiatu:
Holako zerbeit zuen egin Españolak,
Kaustean Ameriken urrezko hegalak.

Zelten kontrato gerlak, anaien galtzeak,
Iberian hersitu lehen baratzeak,
Pirenen bi aldeak itxiki berenak,
Aitek izatu lurren ez hogoi-garrenak.



Eskaldunak han *kanta* lehen *Iberia*,
Zeinak hartu segidan izen *Kantabria*,
Izan ondoan gaizki, kasik hagonian,
Su eta odolezko gerla izurrian.

Kantabria ez dela *kanta Iberia*,
Zenbeitek errateko naski gutizia,
Ez dut nahi bortxatu nihor sinhesterat;
Itxurak nau ekharri horren erraterat.

Izan zen *Iberia* bi zathi egina;
Zeltiberia batek beiratu izena;
Menturaz bertze kantal deithu *Kantabria*,
Denborak janez hitzen haro sobrania.

Zaharren erran oro sinhesten badire,
Iberian errege asko izan dire.
Berosen arabera, huna pulikisko:
Ibero, *Tubal*, *Brigo*, *Jubal*, *Orma*, *Beko*,

Gerio, *Hispal*, *Hispañ*, *Hespero*, *Atala*,
Sicano, *Sizel*, *Luso*, *Hercul*, *Romo*, *Tesla*,
Palatu, *Eritreo*, *Habido*, *Gargari*:
Iberiar zirela ez sobra ageri.

Izan badire nihoiz izen hoik guziak,
Etzituzken errege oro *Iberiak*;
Zabilanean zenbeit munduz pasaietan,
Eman zuketen zango haren bazterretan.

[1] Sennaar da zelhai bat Asian, Asia berritz lurreko bortz zathi larrietarik bat, handik *basi* dire gizonak hedatzen.

[2] Armenia da Asiako zathi bat.

[3] Seneko bizi zen hiru urthe Jesu-Kristo baino lehen.

[4] Estrabon bizi zen hogoita bortz urthe Jesu-Kristo geroz.

[5] Diodoro bizi zen chun urthe Jesusez lehen.

Lehen kanta

Airea: *Bi sei liberuko*.

Jesu-Kristo oraino etzen ethorria;
Bi mila urthe lehen bazen *Iberia*,
Oraiko Eskaldunen lurreko zerua,
Hautsetan garbienez barna dohatua.

Etzen orduan Franes, Español, Turkorik,
Amesten ere etzen halako sortzerik:
Populu zaharrena Larrunen inguru;
Haren umeak ez du aphaltzeko buru.

Dugun beraz guziek maita *Iberia*,
Erresuma Europan lehen ageria;
Deusek ez du bihotza hala kilikatzen,
Nola jaio tokiak, bada ezagutzen.

Eskaldunak orotan bere gisa begotz;
Iduk bihotza garbi bethiko tokikotz;
Beira ahantz lehia Larrun inguruko,
Nihork nihon ez duken lurraz gozatzeko.

Unhatu gabe kanta, kanta *Iberia*,
Erresuma zaharren iduri berria;
Egina zimenduak barna mendietan,
Oraiko haur sendoen ohea mendetan.

Mendiko janariak indarra handia;
Beiratzen hetan jendeke luzeki bizia;
Heldek alha biderik hieietan ez dute;
Hiri handi usaina hobeza zaiote.

Mendea bizi eta, bizia uzteko,
Ez da behar dainurik bulharren meneko;
Iholdeko semetik sorthu Eskaldunak
Iberian higatzen urtherik luzenak.



Iberiak izena hartu Kantabria,
Zelten harmei khentzean luze bitoria
Izen horrekin ditu iragan mendeak,
Guduz gudu ikusiz handitzen semeak.

Arraina lehenago mendiz ikusiren,
Ezen baitut nik Larrun nihoiz ahantziren;
Bertzeak dohazila urrun aitetarik;
Ez daukat badutela odol herrikorik.

Azken hatsean ere, ama da maitatzen;
Hil arte zaio bethi ohore bihurtzen.
Argitua zen ungi d'Abbadie jauna
Pagatzen zuenean adio minena.

Bigarren kanta

AIREA: *Adios, ene maitea....*

Arima ungi sorthuak herria bethi maite,
Aspaldi egia hori adirazi deraute;
Bainan guti nuen frogatu, oren hau ethor arte.

Hoita sei urthe dituzke ene sor seinaleak,
Dohatu ninduen biziz Domindina Larreak,
Aita Mendik, nitaz bietan, zituela urtheak.

Denbora gaixtorik ez dut egundaino ikusi;
Errexki ditut gaztean hedoi beltzak ihesi;
Grina batek ez daut bihotza behinere nahasi.

Abian herritik urrun, aisia bilhatzeko,
Har bat zait asikiz hasten, eta ez baratuko,
Zeren naizen bidean eman bertzetan higatzeko.

Hedoiek nola goibeltzen izarra galernetan,
Hala da nere hirria barna sarthu berbetan:
O Zerua, lagun nazazu gurutzen oren huntan!

Egunik ederrenetan herriaren uztea,
Maitatu lagun guziek adio erratea,
Bihotzean zarrazta handi ondikoz egitea.

Larrungo mendi ederra ez haukat ikusirik;
Urrungo herrian jarriz, begiak hedaturik,
Ez kausturen hemengo lagun bethi ezagaturik.

Mintzatu ere beharko etxean ez bezala;
Urtheak ikhasten hariz, haur iduri dudala:
Nork erranen, denbora batez, atzetuko nintzela?

Soineko berriak jauntziz, Igande egunetan,
Ez gare herritar denak kausturen Elizetan,
Handik landa, josta gurekin, pilota saltoetan.

Bortz aldiz hemengo bestez urrun naiz orroituko,
Miletan hekin eskasak loa daut nahasiko;
Urrundik nik herriari aithorra egorriko!

Kraskatzen dut urruntzean aita-amen bizia,
Neretzat xukatu dena hanbat urthez guzia:
Nongo etsaiek dautet eman gateko gutizia?

Gogor da hola uztea aita-ama zaharrak;
Bi mila lekhoetarat eginen hek nigarrak;
Zein mingarri uztea aitak, bai eta herritarrak!

Adios, ene maiteak, balinba ez bethiko!
Zer lantza zaukan urreak gordea neretako!
Traidoreak, orena gabe, hiltzen nau zuendako!



Hirugarren kanta

AIREA: *Beltzunzeren izena.*

Erregen ingurutan,
Gorthe distiantetan,
Grinan da gizona.
Ez hola Eskalduna,
Herri alde dagona:
Bethi da lorian,
Bizi arraizian.

Bethi hezurak ditu
Aitekin nahastatu
Lehen mendetarik,
Urrundu gabetarik,
Herriko bidetarik:
Ibero umea
Urrezko semea!

Pirenen erraietan
Goldea pasaian
Balitz abiatzen,
Ikus liteke sortzen,
Guti dena gerthatzen,
Mendetako haurra
Ibero zaharra!

Herriko hazitarik
Gorphutzak orraturik,
Eskaldun berritu,
Bethi bera gelditu,
Nihoiz ez nahastatu:
Garbi Eskalduna,
Munduko lehena!

Itzalaren pareko,
Suntsi dire bethiko
Populu handiak,
Denborako nausiak,
Ez ezagun tokiak:
Bera Eskalduna
Bizi egon dena!

Zeltek egin gerletan,
Menderik gorenetan,
Ez nihoiz etsitu;
Sobra zenean hestu,
Menditarat ihestu:
Gal lezake asko,
Balitz nahastuko.

Nihoiz badut ahanzten,
Orhoitzapena aiten,
Herriko bidea,
Hazi nauen etxea,
Hauzoko axkidea:
Ene hatsa bedi
Zintzurrean geldil!



KANTABRIA

Hainitz gerlek Europa, hiru mila urthez,
Gorritu izan dute odolezko gaiez.
Nork izenda populu han sarthu direnak
Nahasdura itsusi iragan direnak

Nausia nausiari zohakon gainerat,
Zituen guziekin harmez hondatzerat;
Gizonezko pesiak denbora batean,
Harria bezin lazkor hedoi erraican.

Jarri orduko batzuk bertzeak altxatzen;
Egun handi zirenak bihar ez agertzen;
Erraien zolaraino lurra higitua;
Nola itsaso, jauziz, ibilki mundua.

Bakezko lege bat zen agertu zerutik;
Erresuma berriek onhetsiz geroztik,
Arrazen jelsiak zituen flakatu,
Graziaren ihintzez nausiak ez ditu.

Populu guzietan hazi eraginez,
Aita bera zeruan zutela erranez,
Elkharren estimua sarthu bihotzetan,
Higuintza eman harma zuzen kontrakotan.

Etsaitan handienek besoak uztartu;
Mihi ezin jasanak aphaindu agertu;
Bat egin iguzkia eta mendebala,
Egu-erdiko eta neguko odola.

Kantabria bakharrik, mundu nahasian,
Mendez egotu dena bizi berezian,
Gerlek ehortzi gabe, harroka bezala,
Lehertzeko egunak eskas etzaizkola.

Beiratu ditu bethi ethor seinaleak;
Deusen ganbio gabe iragan mendeak;
Inguruko arrotzak bere alde utziz,
Aitek erakutsia nihoiz ez ahantziz.

Herriari hainbertze nork itxiki dio?
Nihon ez da ikusi hanbat amodio;
Ondoren ondo dute, ume Eskaldunek
Bilhatu bizitzea, nola aita ganek.

Hekien iraupena etxen eskoletan
Gauza miragarria mende arinetan;
Aspaldi ez direla gehiago nausi,
Guti dute oraino odolik nahasi.

Franses eta Español dutela inguru,
Eskaldunak jokutzen bethi bere buru;
Mendiez bi aldetan erditik eginak,
Elkharrentzat beiratzen esteka minenak.

Populu bethi zahar eta bethi berri,
Nork ez du maitaturen bethi eskal-herri?
Higateko liteke Larrungo mendirat,
Pare gabeko herri horren ikusterat.

Ezin jasana niri kausitzea jende,
Biarritzat bildua mainhoen axkide,
Paris edo Londresat handik itzultzeko,
Izan gabe gustua Larrun ikusteko.

Lau mila urthetako populu berbera,
Uste dut den ikuspen prezatu beharra;
Ikus diteke dena begi kolpe batez
Aiphatu mendi horrek seinalatu bixtez.

Napoleon lehenak piramidetarik
Etzuken izan horren lekhuko parerik;
Ez daude ehortziak biziei begira,
Hor biziek ikusten hil guzien lurra.



Franzia, España, itsasoa ere,
Hedatuak inguru gauza eder dire;
Bainan Ibero seme, Kantabre zaharra,
Eskal-herrian bethi, zer gauza ederra!

Agertu baino lehen menden gutizia,
Salbatzaile Dibino, behartu grazia,
Sarthu zen Kantabrian, ganbiar bezala,
Feniziar guna, untziz zabilala.

Kosta aldea behin zuen begiratu;
Hainitz aria guti barnago izatu;
Egu-erdiko alde bere izatean,
Etzen gaizki athera denbora luzean.

Mintzo naizen denbora ez da hurbilgoa;
Jesusetik bortz ehun urthe goragoa;
Ordutsuan hasi zen Fenizia galtzen;
Geroztik haren haurra guti da agertzen.

Bi mende eta erdi bederen ondotik,
Heki segi, soldadu jantsi Erromatik,
Hasteko perla handi, ezin ahantziak,
Ehortzi dituztenak harmada biziak.

Erromak Kartagori haudik abiatu
Gerla Afrikan noizbait zena akhabatu,
Bi hiriek zutela mundua luzeki
Zein nausitu behar zen pirpiran iduki.

Batek behin Iduri galtzerat zohala;
Laster berritz ikusten hats handi zuela;
Noiz ere baitzen kasik hagonian sortzen,
Orduan nihoiz baino zailago agertzen.

Ezin hilezko herra higuinzaren bahi,
Bi hiri jeloskorren harmadak non nahi
Ibili itsasotan, nola oihanetan,
Elkharri sorraraziz etsai guzietan.

Jadanik bera aski gerlako suharra,
Bi aldetarik zuten Kantiberiarra
Harmetarat berotzen, eginez ohointzak,
Edo aberasteko milaka agintzak.

Guziek ezagutzen hanbat aitzindari,
Ohore emaileak orduan gerlari
Meso, Asdrubal eta Annibalen aita,
Skipion aiphatua osabak gal eta.

Azken horrek Erroma ez guti altxatu;
Bertzek ere Kartago luze sustengatu;
Denek bizia higan herrate ariman,
Skipionek Annibal hortz arte Zaman [1].

Hainitz populu heki hurbil bizi zenik,
Aiphatzea balio hemen ez duenik;
Batzuen edo bertzen alde behar jarri,
Orai zena gordetzen, hortzia sarri.

Espanian soldadu sortzen Afrikatik;
Ez gutiago heldu Erroma aldetik;
Egun guziz odola itsasoz ixurtzen;
Elkharri bi etsaiek deusik ez barkhatzen.

Lehoin errabiatu bi hoiere erdian,
Eskaldun aita biei bere Kantabrian;
Hartu zituen harmak, bainan ez herritan;
Bere etxei zioten kontu mugarritan.

Siliok [2] erakusten gizon Eskalduna,
Lehoinzko harmaden buruan emana;
Hain odol gori nihork ageri zainetan;
Hirrisku ez ikusten nihoren harmetan.

Gorphutz guzia indar, gerlako egina,
Herioak izitzen nihoiz etzuen;
Nondik nahi etsaiak zioen ematen,
Haren gaiak izituz etzen hil egoten.



Afrikanoa zuen hastetik maitatu;
Hirrisku handienen buruan segitu;
Bitoria guti zen, non haren besoak
Ez baitzituen biltzen berthuten khorook.

Negu, bero, gosea, azienda tzarrak,
Ezin zeba zuzketen haren oin zainharrak;
Kizkalia iguzkiz edo hormatua,
Nihork ikusi hura etsian sarthua.

Gudian hasiz geroz etziteken geldi;
Hala odol ixuri gerlatetan lodi;
Harmetan jarritz geroz, han bere gustua,
Bertzela ezin biziz lehertzen burua.

Ez dire hoin beroak, gure egunetan,
Gizon gazte haziak ithurri beretan;
Gehiago bizia orai da prezatzen,
Gerlate itsusia zuzenki higuintzen.

Erromanoen gerlak afrikanoekin
Ehun urthe bederen iraun indarrekin;
Eskaldun inguruan, español lurrean,
Mundua heki beira, bizi beldurrean.

Erromak, nausitzean, Kartago hondatu;
Eskalduna hargatik lehengo gelditu,
Nahiz bethi etsaia zitzaion ethorri,
Haren odol goriaz iduri egarri.

Kantabrian harmada Senpronioak galdu;
Pison eta Fulbiok herioa bildu;
Traidorekerietan Galbak balentria,
Bainan ez Biriaturk utzi bitoria.

Lehenbizian artzain, gero aitzindari,
Lau urthez eman buru Erromanoeri;
Bekhoz bekho heiekin bakeaz mintzatu;
Ezpata utzi gabe bahiak galdetu.

Bakea Koepionek gero nahastean,
Biriatur berritan jarri gerlatean;
Ez balitz urre gostuz laster hilarazi,
Erromanoa zuen ungi dantzarazi.

Metello, Nepos, Loena, ahalkez ihartu
Manzinok harritia besoak uztartu,
Ezin ganez burutan menditar haurrekin,
Skipion ethor arte, lotzeko heiekin.

Eskaldunen buruan Sertorio eman,
Ethortzean nahasiz paperak Erroman;
Orduko balentriak izan aiphatuak;
Bortz Erromano egon beldurrez hestuak.

Urrea baliatu suspitxa sortzeko,
Aitzindari handia biziz gabetzeko;
Etzaukaten etsaiek gozo ikusirik,
Haren kontra harmetan gaina bilhaturik.

Erromanoek Ponpe handia zaukaten;
Kantabrian zenean ez hainitz egiten;
Unhatua ibili, lehertu luzeki,
Etsaien izitzeko egin gabe aski.

Ethorri zen denbora zeinetan Erroma
Jarri baitzen iduri munduko arima;
Bere legei guziak zituen plegatu;
Nihongo erregerik nausi ezagutu.

Iguzki ilkhitzetik iguzki sartzera,
Neguko hormetarik hegoko berorat,
Bere soldadu hartzez hedatu beldurra,
Ixil aski ezarri gehien bulharra.

Miliunka soldadu zutenek kondatzen,
Hekin hazteko nekhe aspaldion hartzen,
Nahiago bakea pagatu dirutan,
Ezen ez gehiago izartu gerletan.



Soldadu Erromano gerlarat emana,
Sei, zazpi ehun urthez, hartarat egina,
Ikusi zen non nahi ixurtzen odola;
Hark gorritu gabea lur gutik axala.

Handienez jarri Augusten denboran;
Urrundik ohoratzen erregek ikharan;
Ez iduri bazela nihoren zainetan
Odol ixur nahirik haren guduetan.

Kantabria altxatu, ez nahi nausirik;
Munduaren ikharan ilkhi etxetarik;
Traba guziak hautsi, zorroztu ezpatak,
Ehorzteko uztarri etzuenaitak.

Hasi zen gerla, eta, ez gerla xumea;
Bethikoa agertu eskaldun semea;
Bortz urthe iraun zuen odol ixurtzeak,
Herritarrez bertzentzat, khirats arantzeak.

Auguste bera eman harmaden buruan,
Nahiz manatzaile on zuen inguruan;
Gasturik handienak egin ilkhitzeko,
Kantabria baitzauzan etsai hauditako.

Jakina han etzela nihor izan nausi,
Etzela hango haurra uztartzen ikusi,
Eder behar zitzaion lehen izatea,
Egiten Erromari hetazko gorthea.

Etzen ez, segura da, ilkhi Erromatik,
Ibiltzeko populu txar baten ondotik;
Halako gizon batek bilhatu trionfa,
Etziteken nihongo mihiaren trufa.

Hiru harmada ziren sarthu Kantabrian;
Guziak arras fida gidari nausian;
Agripa itsasotik, bi bertze lurretik,
Bitoria zaukaten lehen egunetik.

Bortz urtheren buruan Augusten harmadak
Eztitzen aditzen uste alboadak;
Etzuen bortxa ahal, Mendurin jarria,
Ilanbat harrabotsekin, bilhatu etsaia.

Augusteren izena gorphutz batek galdu,
Herstura zenbeitetan ez baitzen ixildu;
Menduri inguruan enperadoreak
Uzter bere hezurak, errotuz jendeak.

Hartu zuen bidea, bere errabian,
Guziak erretzeko inguru handian;
Nihor izan grazia galdetu zuenik
Ezin bertze igurik Eskaldunaganik,

Erori zena bizi etsaien eskurat
Kantatuz Iberia, higan gurutzerat:
Gurutzean herio, bertzen ahalkea,
Kantabriako haurren lehen ohorea.

Zerbeit asmu iduri jadanik zutela,
Hartan zerbeit trionfa gerthaturen zela;
Hartaz zituzten harmak bethi seinalatzen;
Egia horren bahi Tertulien deitzen.

Higan zen Erromarat enperadorea,
Odolez gorritua bere azotea;
Etzuen nahikatu trionfa sartzean,
Sobra min baitzakharken bere bihotzean.

Etzen ohore handi populu xahutze,
Altxatzea menditan milaka gurutze;
Etzuen utzi bizi, lege jasateko,
Ahur bat jende baizik, ona hazitako.

Mundu guzia bere zuen erresuma,
Bethiko gerlatetan hazkartu Erroma,
Behar Eskaldunari buru emateko;
Hura zuen aurkhitu azken pokaduko,



Geroztik deskansuan bakea kantatu;
Gerla luzen tenploa lorian zerratu
Harretako indarrak galdu Kantabriak,
Zerutik agertzean Jesusen graziak!

Lehoinduren da berritz, sarri ikustean
Moro goibel nahia haren sinhestean;
Nihork huzkur ikusi behar orduetan;
Bethi bera agertu tenore handitan.

Asko balentria du egin lehenago,
Orhoitzapen beharrak guziez gorago;
Geroaz ez orhoitu lehen Eskalduna,
Berthute ederrenez dohatua zena!

Haren etsaiek dute ez behin aithortu,
Pare gabeko zela mendetan agertu;
Hura hekin begitan gerlari lehoina,
Nihoren uztarririk jasan etzuen.

Skipion eta Lara ikusteko ziren,
Noiz ere elkharganat hurbildu baitziren,
Gudu handi batean, harmak eskuetan,
Agurrik saminena bere mihietan.

Lehena, ezin ukha, zen Erromanoa;
Seinaletzat zakharken hekin arranoa.
Ethorkia bertzeak zuen Kantabrian;
Haren omena handi gerlako gaudian.

Lehen, lehen bihotza, sua ez neurtuz;
Gorphutzeko indarra jauntzia zain hautuz;
Ezagutua denez mendi guzietan;
Izen kasik bakharra bizia mendetan.

Izan diteken bezin gizon zaluena;
Burua zuen gora, nola Herculena;
Burdina kraska zuen besoko indarrez;
Asko etsaiek zuten jakin oren tzarrez.

Harmarik gabe ere ikustea Lara,
Kontra ziren gizonen ez guti lazadura;
Ilkhitzen gudutarat kopeta ageri,
Orho handi batekin ozpina iduri.

Burrunban zarabilkan maizenik haizkora;
Geroztik ingurutan jabetzen ikhara;
Aldean bazitzaion lagunik erortzen,
Lerro huts guzietan baxharrik agertzen.

Balio berak ehun, hura den tokian
Etsaia harritua, hortzak errabian;
Herioak iduri botherez galdua;
Bere bazka baituke gizon izitua.

Ez du nihoren eskas seinale aldean,
Erori bada ere norbeit odolean;
Beso luzeak lagun hutsen bethetzeko;
Kolpeak ez trabekin buru lehertzeko.

Aitzin guzia zauri, kopetan odola,
Hortakotz gehiago urgulutan dela,
Bere harma seguraz bortz ditu ehorzten;
Hats hartzeko grazia nihori egiten.

Ezker ala eskuin den, hari dohakona,
Izanik ere doblez besotako zaina,
Arrunpeka ibiliz haizkora airetan,
Hurbiltzen diren oro ematen fuinetan..

Gibetik zenean nihor gordez heldu,
Asmuak zuen luze halere lagundu;
Jakiten nola harat iharrus besoa,
Ehorzteko trebesaz traidore jokoa.

Huna oren handia; biribil sabelak,
Ostez gainerat joan, othoiztuz konsulak,
Soldadu harmatuak, alde orotarik;
Skipionek jotzeko zenbeit artetarik.



Indar guzia zion eman kolpeari,
Adios erran zuen Larak bizari;
Bainan orduan ere, hedatu haizkora;
Haltzairua lerratu ahoa bebera.

Oihu lazgarri batez bazterrak betherik,
Oroz gora burua higi zuelarik,
Arrapotan ahoa, zain denak ageri,
Jazarri nahi dio bere etsaiari.

Botatzen dio kolpe pisu eta latza;
Harrabotsak airean haize ona datza;
Erromanoak kobrez burua beharrik;
Bertzenaz etzukeien luze bizitzerik.

Oren etsaia! Larak, noizeta ere baitu
Altxa duen besoa, nahi behititu,
Skipionen ezpatak dio eramaten,
Bere haizkorarekin hil hotza erauzten.

Harmada gerizea bakharrrik iduri,
Ordutik lagun oro eman ihesari.
Mendeak iraganen; Lara eskalduna
Izanen bethi ere aiphaturen dena.

[1] Zama da Afrikako hiri bat.

[2] Silio bizi zen hiru hogoita sei urthe Jesus baino lehen.

Kanta

AIREA: Bi sei liberako...

Kantabriako semek herrian itxiki;
Atzetarat gateaz miletan urriki;
Ez bedi beraz nihor urrunegi heda,
Jaio lekhua baino hoberik guti da.

Gogo deusek ez du urrun arinduren,
Aita-amak ez dire nihoiz ikusiren,
Axxkiden berri guti luzean aituren,
Hiltzen badire ankas, ezkilak ez joren.

Uda alderat lurra liliz estaltzean,
Goiz arratsen freskura aldizka sortzean,
Herria ez ikusiz bere baratzean,
Eskas baten asiki bethi bihotzean.

Urrungo erresuman herriz orhoitzea
Denboraren luzean arima zaurtzea,
Eta ezin ezeza haren arantzea,
Gizon bihotz dutenen bethi gurutzea.

Lokharri minak ditu gure sor-lekhuak,
Nor nahi arrailatzen hark egin oihuak;
Edozein oihanetan ditezen sorthuak,
Gizonek maiteago herri inguruak.

Aita beharren premu, zenbat laborari
Bizi direnak josiz hekin etxolari;
Jaïnkook eman baitu beharren etxeri
Hainbertze arraizia nola tronueri!

Poetek erran dute, bethi bizitzeko
Ulizek zuelarik agintza zeruko,
Hauta eman zuela bere Ithakeko,
Izan gabe segura nihoiz ikusteko!



Herriarentzat dire biziak ematen,
Gerletako nekheak gogotik jasaten,
Errege axkideak sekulakotz uzten,
Aitzindariak urrun gorthetik egoten.

Zenbat gizon herritan gora aiphatuak,
Jainko batzuen pare bethi maitatuak,
Zaindu dituztelakotz bere sor-lekhuak,
Dixiadura handiz etsaiek hestuak!

Erromak ez ahanzten izanik Dezio,
Fabien arrazari besta egin dio;
Herriko ohorea deusek ez balio,
Esker gabek diote bethikotz adio.

Herri preziatua, aita-amen lurra,
Mendiek ez askiren harroken bulharra
Kondenatzeko bethi hazi duian haurra,
Uzten badu bethikotz hitan den tresora.

Sor lekhuko oihana lehoinak ez uzten,
Bere gerlen ondoan han loa egiten,
Mendez mende nihori khoroa ematen,
Mehe ala aisian errege egoten.

Pirenen bi aldetan Eskalduna sorthu,
Berrogoi mende huntan handik ez higitu,
Aitek utzi larreak bethi zaindu ditu,
Mendiak bezin sendo deusek ez airatu.

Ez da ez oraino hil Eskaldun odola,
Badaki mendietan handi izan dela,
Oinen peko alkhia aitekin duela,
Haren haurren artean bastartik ez dela.

Behar handi zenbeitez urrunerat gana,
Han bazaio ethortzen hiltzeko orena,
Herria du gogerat saltatzen zaiona,
Han ezin ehortziaz minik handiena.

Ez da odolik behar bihotz batzuetan,
Herria kausten dute toki guzietan,
Aita-amak ahanzten edozein sasitan,
Axkideak egiten berdin gaskoinetan.

Dugun bethi ohora Eskaldun herria,
Dugun bethi aitentzat izan itxikia;
Ez da baliosago Parisko hiria,
Hemen ehortzi zaiku arbaso guzia.



EUSKAL HERRIA

Nihoiz lan hurbil gabe izan Eskalduna;
Hortik ethor ziteken dakharken izena;
Haren *esku lan duna*, agertu laneko,
Hainbertze baliosa nola gudutako.

Bainan Eskal-Herria izan zen deithua
Moroez izatean luze tratatua;
Orduan behar hurbil *eskuda* aldean,
Gerla on egiteko etsaia jaustean.

Uzten zuen haintzurra eskuda hartzeko;
Aldean harma bethi behar bizitzeko;
Eskuda alde duna edo Eskualduna,
Hola nik endelgatzen arbaso izena.

Esku alde duena, nahi ordutako,
Behar bada izanen hainitzen gustuko
Iberi, Kantabria, eskualdun herria,
Izen hoitan nik daukat badela aria.

Mundua ilhun orai hemezortzi mende,
Eskuz egin jainkoek izatean galde;
Egiatzko Jainkoa arras ahantzia;
Debruen erresuma lurreko guzia.

Populu aipatuak bere jakintzetan,
Greka xoragarriak asmu ederretan,
Parthiar, Erromano, gerlari handiak,
Bere eginbidetan, gauean guziak.

Populu eskalduna, biziz berezia,
Gutirekin mintzoaz harturik aria,
Sinhets nezake aise ez dela itsutu,
Jaun goikoa duela bethi adoratu.

Mende bederatzian Leonek Baionan
Kaustu zuen populu idolekin treinan;
Gatean urrunago, ez nihork erraten
Hango populueri zer kaustu zioten.

Baionako hiria, orduko denboran,
Lehenago bezala atzeko menturan;
Badakigu guziak zer diren laphurrak;
Bertzenaz jabetzeko lehen aztaparrak.

Halakoek denboraz Baiona bethetzen;
Nola baita sagardi sagar dia deitzen,
Eskaldunek izena eman Baionari
Laphurdi, nola ohoin toki segurari.

Mintzo garen denboran, hainitz lekoetan,
Etzen bertze herririk haren ezkinetan;
Sasi eta oihanek estaltzen Laphurdi;
Geroztik han sorthua ahalka ez bedi.

Emeki du herriak jendea ikusi,
Lehenik Nafarroan egotua nausi,
Hedatzen kosta alde, Laphurdi aldetik;
Herririk zaharrenak gazte beraz hortik.

Gorago hasia naiz sinhestez mintzatzen;
Galdu badut bixtatik, errex da itzultzen.
Ikusi Eskalduna bizi bethi bera;
Ezin ganbiatu zen aitatik aitara.

Gaizkia egin zuen, aise da sinhesten;
Orai ere guti da bethi on egoten;
Bainan Jainko bat baizik hark ez ezagutu;
Bere beharrak hari mendetan galdetu.

Haren Jainko izena aski da lekhuko,
Ez duela bertzerik izan goragoko;
Hura zen patriarken jaon lazgarria,
Pirenen sinhestean nihoiz ez berria.



Ondoren ondo hurrei irakutsi aitek;
Ezin ahantzarazi populu nahastek,
Ez denaz geroz nihor nausitu mendetan,
Hek tieso beiratu mendi, haranetan.

Bertze populuetan nausitu idolak;
Bainan bertzela ere nahasi odolak;
Hauzoek hauzoeri kontu ez ematen;
Azpitik nausieri alkhiak ebasten.

Ez du nihork beiratu hasteko bizia;
Jainkoek irakutsi orotan gaindia;
Egin gaizkiak behar, bake izateko,
Zeruetan asmatu bera iduriko.

Nihoiz bere tokitik Eskaldun higitu;
Zimenduak mendien erraieran ditu;
Semea bazitzaion harmetan hedatzen,
Munduz mundu etxea etzuen ibiltzen.

Hola du patriarken denbora segitu;
Hainitzen eskandalei ithurria herstu;
Guzien ilhunbean itxiki argia,
Jainkoaren dohanei salbatu bizia.

Eskaldunak segitu lege naturala;
Hark egin hari argi behar zen bezala;
Erakutsi bethitik, nihor damutzea,
Gaizki zitekeiela, nola higuintzea.

Behar zela berea utzi bakhotxari;
Beretik ere eman eskaz duenari;
Burasoak ohora, beira egitetik
Ez gindukena nahi guk jasan nihondik.

Lege horrekin ditu iragan mendeak;
Bidea errex kaustu segidan fedeak;
Hura ez zeruari harmekin ozartu;
Martiren odolean gaixtoz ez gorritu.

Seinalatzekoa da orduko denbora;
Deusek hala ematen patriarken bara;
Goldeaz bihi egin, esneaz edari;
Hori plazer agertu bethi Jainkoari.

Hasi orduko aitzen zeruko egia,
Errabian sarthu zen Erroma handia,
Ez jakin nondik heldu eta norat zohan,
Egoatea bilhatuz mendetako loan.

Bazter guziak ditu asaldan ematen;
Haren xedei laguntza debruak egiten;
Egia chorzteko aitua iduri,
Non nahi zitzaioten sorthu aitzindari.

Mundua nolako zen direnek orhoitzen,
Ez diote gauzari ezinik kausitzen;
Bakhar batzuk orduan guzietan nausi;
Hek nihongo ohointzei eginak ihesi.

Jende guzia bizi hetaz ehortzia;
Nor nahik egin behar hekin gutizia;
Gauak ala egunak higitzen bestetan;
Gormandizek segida lohikerietan.

Orduan abiatu neguko aldetik,
Erromanoen kontra harmatuz gogotik,
Lege gabeko jende nihoiz ikusiak,
Azote izigarri jaunak egorriak.

Guziek egiari gogor egitean,
Bat bertzea hobirat harmez ematean.
Guti hedatu ahal ebanjelioa;
Haren banatzaileak, segur herioa.

Den gutiena argi abia orduko,
Edozein erresuma bathaia zeneko,
Giristino egina Eskaldun guzia,
Eta ungi lothua zeruko hazia.



Bai, hoita hemezortzi urtheren buruan,
Jesus izanez geroz bitima munduan,
Pirenen ingururat jautsi Santiago,
San Zernin baino zenbeit urthe lehenxago.

Ohoin, lohi, gaixtagin, ez hango nausiak;
Predikuek ez izi hekien hiziak;
Horra misterioa, nola eskalduna
Izan den egiari hastetik emana.

Gaixtoek aitzakiak, gaixto egoteko,
Egiari hedoi bethi emateko;
Nahi dutenei utzi gaizkien bidea,
Errex da sarrarazten zeruko fedea.

Erromako ohoinak, gaindiz plazerean,
Arrobatuz mundua igeri urrean,
Hiru mende luzetan, izan lazgarriak;
Erriberaz ixuri odolezko gaiak.

Egiaren etsaia izaten holako;
Bertzena ebañalek juie ez nahiko;
Lohiak ez entzuten lege garbi dena;
Ungi etsaia bethi gaixtagin laguna.

Ez beraz mirakuilu, Jesus ethortzean,
Erroma gogortzea bere bizitzean;
Ohoien estomaka lehen-lehena da;
Hark behin iretsiaz etsitzen ahal da.

Amarra borthitza du ebatsi diruak;
Aitak ez bihurtzea, probetxu premuak;
Jasta duenak urre ez maite eskea;
Geroko justizia, ohoinen oldea.

Erroma erregina harmetan izana,
Elizako nausizat Jesusek zaukana,
Luzeki graziarat hola lehiatu;
Odolean eskuak lebenik gorritu.

Zigorrada bezala, zeruak egorri,
Hiru mende gorriren odolaz egarri,
Hartzen pareko gizon nihork ikusiak,
Gordetzen zituenak neguko sasiak.

Etzuten beldur nihor; etxeak berekin;
Sortzen ziren herritan, su eta harmekin;
Azpikoak bezala, aitzindari oro,
Lehen eta askenak, berdintsu barbaro.

Erromako mugarri urrun hedatuak,
Betan bezala kasik izan etxatuak;
Neguko gizon hartzek nausirik ez kaustu;
Bere haur odolean hiriak hondatu.

Ez aski Italia munduko urrekin;
Hedatu urrunago gose handirekin;
Ehortzi populuak, herriak suntsitu;
Berekin bertzen krimak batean purgatu.

Suebo, Alan, Bandal, sarthu Españian,
Min handi egin gabe behin Kantabrian;
Barbarozko uria ez hoitan baratu;
Bisigothek zituzten ondotik segitu.

Arianoak ziren, guti argituak;
Lerratu ziren utziz eskaldun lekhuak;
Ariarik ez izan sor arte Suinthila,
Errege katoliko, eskaldun bezala.

Hartako elkharrekin axkide agertu;
Sisenande semeak fueroz uztartu;
Orhoituz hemen sobra nohala aitzinat,
Itzuli behar dugu aphur bat gibelat.

Lau ehun eta seian barbaro hedoiak
Europarat ixuri bere uren gaiak;
Estilikonek zuen ideki bidea,
Berritz abiarazi gerlako heldea.



Franzia alde oro zela odoletan,
Ebroan Bisigotha hari kirziketan,
Eskalduna largatu Kaskoinia barna;
Nobenpopulania tokien izena.

Karibertek andrea eskalduna hartu;
Hekin menetik hola Tolosa beiratu;
Hedatu izan ziren Bordele alderat;
Arrastoak kausitzen aski urrunerat.

Franziako erregek lan izan heihekin;
Zapatu bazituzten, ez lan gutirekin;
Harmada handi behar, Herkulak gidari
Heristal, Martel, Pepin, Karle aitzindari.

Espainia aldean lagunak ez geldi;
Afrikanoek harat egin zuten gaindi,
Zortzigarren mendea hasteko menean,
Orhoitzeko denbora garen orenean.

Rodrigues, Bisigothen errege lohia,
Mendetan odolezko nigar ithurria,
Erori Juliano bezteko bidetan,
Haren etxean sarthuz oren goibeletan.

Juliano kondeak alaba kaustean,
Esosatua gabe, haur egin menean,
Jadaneko Afrikan baitzen podorosa,
Bendekuz deithu hango jende urguilusa.

Lehen guduak zuen Rodrigues ehortzi;
Kasik haren harmadak arrasto ez utzi;
Eskal-herri guzia, etsaia inguru,
Altxatu bere alde, emateko buru.

Adurreko aldean, Ebroan bezala,
Hedatu behar zuen egiteko gerla;
Arabek Espainian lan hainitz ematen;
Franziaren goseak Biarnotik hesten.

Eskaldunen odola agertu lehena;
Nihoiz bezin ohorez beiratu izena;
Kondatzen bazen buru, ez hainitz ikusten;
Bainan odol zainetan doblez erakusten.

Altxa zuten bandera, hauzoek utzia;
Bilhatu mendietan hats hartze tokia;
Han elkhar ezagutu, harmadak berezi,
Nola balitz eragin lehoinezko hazi.

Lana da sinhestea orduko gizona,
Barnetik harra jari, katoliko zena,
Nola zen menditarik agertu harmetan.
Beldur batere gabe Araben ostetan.

Ikus, Jainkoa lagun, gudurat ilkhitzen,
Bere erresumako mugarri hedatzen,
Arbola gazten pare egiten adarrak,
Erregeri ematen ezkontzetan haurrak.



Franses eta Angeles gorthetaro jaunak
 Eraman aldareerat lili eskaldunak;
 Herri guzia jarri aitoren semetan,
 Moroen kontra egin gudu handietan.

Sinheste onak hetan beiratu bizia;
 Mahometen banderak ikusi hobia;
 Berthute handienek luze distiatu;
 Seinaleak etxetan ez dire suntsitu.

Hekin iraupenari bada beiratzeko;
 Etziren fede gabe nihoiz atherako;
 Ez izatea buru arin baliatu;
 Arima solidoak Jainkoak maitatu.

Zazpigarren mendea hamasei urthetan,
 Garzis erregetzean eskal-herrietan;
 Donibane Garazik ala Nafarroak,
 Biek nahi ohore emana khoroak.

Bainan zer du egiten errege tokiak?
 Populu bera ziren eskaldun guziak;
 Herri bat edo bertze hautaturik ere,
 Khoroatzeko bestak guziek ohore.

Aitzindari bat eskas elkharren aitzeke,
 Garzis hautatu zuten bere gidatzeko;
 Amezkoako konde nor zen orok jakin;
 Altxatua izan zen guzien bozekin.

Errege egiteko aiphua zenean,
 Populuak egorri, bere izenean,
 Sei ehun gizon gazte eta hainitz aphez,
 Inguratzeko gauza behar ziren arthez.

Khoroa ematean, beso altxarazi,
 Guzien onarentzat nahi zela bizi,
 Etzuela legerik berak ukituren,
 Beiratuko zuela dretxo bakhotxaren.

Gregorio bigarren aita saindu zela,
 Garzisek khoro hartu errege bezala;
 Aita Sainduak buldan Burunda aiphatzen;
 Han erregetu zela Garzis seguratzan.

Berrogoita bi urthez egin zuen gerla;
 Moroeci khendu etxe, gaztelu bezala;
 Urrungo bazterretan omena hedatu;
 Jaun arrotz handienez harmada berratu.

Haren seme Inigez etzen gutiago;
 Moroak jarrarazi aitaz urrunago;
 Hekin eskuetarik athera Iruña,
 Aise etsi etzuten segidako miña.

Etzuen nahikatu han galdu denbora;
 Segi zuen Alaizat etsaien bandera;
 Jakaraino egorri Aznar jakinsuna,
 Dohain bereziekin bihotza zuena.

Lau errege Arabei hark heda sareak;
 Hekin buruen bixtan kantatu gaudeak;
 Oteizar ethorkia ohorekin geldu;
 Aragonako Konde jarri Aznar handi.

Isaban hil Inigez gloria handitan,
 Mende bederatzia zelarik bietan;
 Aitoren semek maite, gerlari handia,
 Berrogoita lau urthez higatu bizia.

Haren seme Garzia agertu ondoko,
 Behar ziren gaiekin ordu denborako.
 Moro berri jautsiei eman behar buru,
 Bertze etsaik ere zuela inguru.

Ikusiz Eskaldunak jausten menditarik,
 Ezin khenduak lehen parrapiotarik,
 Segitu nahiz ere gerla Espaiñian,
 Karloman agertu zen Pirenen herrian.



Izatu Zaragozan setio ematen;
Eskaldunek han arte deusik ez egiten;
Gibelakoan zuen erre Iruñea
Eta asaldan eman menditar semea.

Otxoa bigarrena gida zuelarik,
Mendi artetan jarri elkhar aditurik;
Aitzindariak men bendekua nahi;
Bere aiten azote, hau Karloman bahi.

Harmada Franziarat sartzen bi partetan;
Karloman bera lehen aitzinekoetan;
Bigarrena kargekin, eta ohointzekin,
Heldu pisu, ezтики, lazo itxurekin.

Ibañeta lehenak higan eta jautsi;
Trabarik xumerena nihon ez ikhusi,
Nahiz zen enbuskada Oriarriagan,
Oihan eta harrokaz estali errekan.

Hura gorde zeneko bertzea agertu;
Halako bazka guti etsaiek jastatu;
Etzen gudua izan, bainan herioa;
Hirrisku gutirekin han gizona joa.

Bat etzen handik ilkhi, nihon kondatzeko
Etsaiek othe zuen molderik jotzeko;
Eska dun lan guzia harri biratzea,
Lehertzeko errekan franses ohatzea.

Nihoiz ez da ahantzi eskal herrietan
Orduko sarraskia franses soldadutan;
Mendez mende kantatu hango bitoria,
Huna nolatsu duten moldatu guzia:

«Oihu bat aditu da deia lazgarritan,
Eskalduna gelditu ernerik atheta,
Erraten duelarik: nor da hor, zer nahi?
Holako bozik hemen ez aditzen ohi.

»Zakhurra ere ilkhi lo zagon tokitik;
Ezin geldiraz nihork sainga egitetik;
Altobizkar guzia harrabotsez bethe;
Segitzen Ibañetak luze duen arte.

»Behin ilhun iduri, harrokaz harroka
Ezker-eskuin punpatuz, erreketan joka,
Harmada seinalatzen hurbil behar dena:
Ez du lo atzemanen herriko gizona.

»Eskaldunek menditik ihardetsi gora,
Tutu adirazteko hazkar du bulharra,
Xorroztuz halzairua oihuka da hasi
Hoinbertze gizon nihork hemen ez ikusi.

»Hara, hara non diren; zer lantza sasial!
Erdi oro banderaz nola estalia!
Harmetarik ximiztak jarian iduri;
Errak, haurra, zenbat den, kontu lerroeri.

»Bat, bia, hiru, lau, bortz, sei, zazpi, hameka,
Hamalau, hamazazpi, hoita bat, milaka;
Bethi lerro segitzen, ez ditezke konda;
Zeruan izar baino gehiago bada!

»Ilkhi kanpo, muthilak, beso hoiek mira;
Menditako harrokak errotik athera;
Leher, leher buruak, ez utzi bihirik;
Etzuten bertze galde hunat ethoririk.



»Zertako nahi zuten herria nahasi?
Hek baino lehen gare gu hemen ikhusi;
Jainkoak mendi eman guretzat atheka,
Hekin artean nihor ez ager lerroka.

»Gain behera ordutik harri abiatzen;
Gizonek ez balio, odola ixurtzen.
Zenbat hezur lehertu! Iholdez odola!
Tutua du Rolandok jotzen berehala.

»Egiten du harrabots, emanez indarra;
Mendiak gora, bainan gorago adarra;
Haren orroa gaten joka harriz harri;
Karlomani ematen urrunean berri.

»Gerlan dire lagunak!, Erregek erraten.
Ganelonek kontrarat hari ihardesten
Erregez kanpo batek erran balu hori,
Beiraturen guziek nola gezurrari.

»Ondi ozko Rolandok orro berritz ere;
Hats handiz bortxarekin egortzen dolore;
Aho guzia odol, kanpo buru fuinak,
Tutuaz adirazten bere bilitz minak.

»Karlek oraino berritz aitzen lagunekin;
Rolando dela dio behar etsaiekin.
Ganelonek erraten: Kondea bidetan
Morgak dabilka handiz nausi itxuretan.

»Aitzinat jo zaldiak, ez da egoterik
Lur handia oraino urrun da gutarik.
Rolandori odola zurrutan dohako
Buru arrailatutik ageri barneko.

»Jotzen berritz adarra eta Karlek aitzen;
Dakharken hats luzeak ez guti izitzen.
Segurki, dio Nesmek, hasi da gudua;
Dugun laster sokhorri gerlan den mundua.

»Karlomanek tutua joarazten gora;
Jausten ere gibelat burdinaz bulharra;
Harmak zorrotz eskutan, gauak argi guti;
Ur hainitz erreketan jausteko behiti.

»Bi harmada burutan jotzen du tutuak;
Karlomanen zaldiak zango unhatuak;
Bere bizar zuria, bulharrak behera,
Berantegi agertu oren bat sobera.

»Indar eta zaldirik balin baduzue,
Ahalik lasterrena, ihes egizue;
Karle, egik lasterka hire jakarekin;
Jaka gorri etzohak plumaia beltzekin.

»Harmadetako lili, Rolando gaizoa,
Ikusiren hara han gure besoz joa;
Hurbil hunat guziak; jauts gaiten behiti,
Ihesi dohazinak ehortziak bethi.

»Geiago nihor ez, non lantzen sasia?
Non hanbat koloreko banderen gaandia?
Goibeldu dire harmak, non dute dirdira?
Zenbat diren oraino, eian konda, haurra.

»Hogoi, hamabortz, hamar, bia, bat, batere;
Bih bat ez ageri, bilhaturik ere.
Deskansu etxetarat zohazte, nausiak;
Xakhurak etxoletan sarraraz guziak.

»Zuen emazte onak, bere haur xumekin,
Besarka bozkarioz ikustearekin;
Xuka zuen puñalak, ez ahantz tutuak,
Eman buru azpian batean lothuak.

»Arranoak menditik sarri agerturen,
Zein lehen xukatzeko lehertu hezurren;
Mende luzen ondoan hemen hezur zuri
Agertuko metaka jende izigarri.



»Rolando nor zen orai hemen errateko,
Arreba zuen Karlen andrea Khoroko.
Oriarriagan zen bertzeekin hondatu;
Abadiatik hurbil kapera altxatu.

»Han dute gero erran ehortzi zirela
Atzeman gerlariak, husturik odola;
Hala bada edo ez, segur da egia,
Han etzela jostatu franses gazteria».

Otxoak bazituen bi seme aiphatu:
Santxo eta Adalrik; ez bardin agertu.
Karlek lehena maite, higuin bigarrena,
Zeren hunek baitzuen odol eskalduna.

Akitanian egon Santxo aitzindari;
Buru ona zuela dugu irakurri;
Bainan Karloman zuen bere nausitako;
Adalrikek mendiak hauta beretako.

Karlen semeak huni ez utzi bakerik;
Akhitzerat segitu harmak zorrozturik;
Han ezin bortxaraziz harma bihurtzerat,
Sua eskuan ilkhi bazter erretzerat.

Populu salbatzeko gosete menetik,
Berbera bake galdez ilkhi zen iritik,
Harma bihurtuak laster berritz hartu;
Nongo odoletik zen hil arte agertu.

Iruñerat joan zen Luisen harmada,
Deus gutitarik zuen beira enbuskada,
Adalrik, bi semekin, Oriarriagan
Jarririk, hondatzeko, aiphatu errekan.

Hoita lau urthe zuen Rolanen hiltzeak;
Erne itxiki jende hartaz orhoitzeak;
Halere gudu egin; nor ziren nausitu,
Jakiteko argitan, nihork ez kondatu.

Adalrik han gelditu bere bi semekin;
Aita ala semeak herriko minekin;
Gizon miragarri hoik gutik ezagutzen;
Zenbeit gutiagoko mihiek aiphatzen!

Eman zioten gerla bethi Franzinari,
Bizia beiratzeko eskal herriari;
Duke bezala ziren agertzen kargutan;
Zor zaie laudamena menderen mendetan.



Laugarren erregea eskal-herrietan,
Santxo Garzis, sorthua egun gogorretan;
Itxiki gora buru, egin balentria;
Bardenan irabazi behin bitoria.

Bilduz lagun handia, Abderram urrundu,
Ordoño zuenean basan utzi kondu;
Franzian sarrarazi Aragonan gaindi;
Mouza kontra hil arte, izan bethi handi.

Utzi zuen khoroa bere Semeñori;
Hunek ere ohore eman odolari
Eta ondoko utzi Inigo Arista;
Handi zela aitzea izen aski baita.

Haren denboran ziren inguru guziak
Etsaik handienez ikharan jarriak;
Eman zioten buru, khendu ere lurak;
Halako fortunarik ez gizon beldurrak.

Inigez bigarrenak khoroa atzeman;
Bere aitak etzion argi guti eman;
Hura ere segidan ez basan lohitu;
Balde-Junkeran laster Abderram zehatu.

Emazte hartu zuen Urraka ederra,
Aragonan Aznarren ondoko beharra;
Mende bat eta erdi, bi bortz urtherekin.
Egon zen Aragona berex Nafarrekin.

Hemen dire ethortzen orai bi Abarkak,
Santxo Garzi biekin menden errepikak,
Denen buruan Santxo handia deithua,
Zortzi menden buruan berdín aiphatua.

Azken horrek hedatu eskaldun herria;
Beretu, nola lehen, herri Kaskoinia;
Tolosako errege jarri bitorian;
Harmada pasaiatu urrun Espaiñian.

Leongo erregea, Bermudez hersatu;
Kastillako errege seme bat paratu;
Kordobako inguru ibili banderak;
Andaluzian ere hedatu beldurrak.

Izen handiagorik nihork garraiatu;
Erromanoek xoilki dukete xitu;
Beretu zuen kasik dena Espaiña;
Franziak ere utzi zioen zathia.

Bazuen berthutea, ez xoilki gerlako
Bainan ungi guzien bardin hedatzeko;
Egin hainitz Eliza, zaharrak berritu;
Bethe gizon bereziz milaka komentu.

Garzia Santxez zuen semetan lehena,
Nafarroan errege ondotik izana;
Etzuen ungi kaustu aitak lau semeri
Puskatzea khoroa, zohakona hari.

Hainitz Moro errege zafratu ondoan,
Aitaren berthutekin ezin ahantz loan,
Aragonan errege anaia Garzia
Bere nahastalekin utzi ehortzia.

Atapuercan hil zen, soldadu bezala,
Anaia Fernandori egitean gerla:
Errege den gizonak jakin behar hiltzen;
Bainan zuhurtziari deus ez dio khentzen.

Utzi gabe harmada guzia biltzerat,
Su eta khar zen sarthu etsaien erdirat.
Heldu zaizko ondotik Santxo Lazo deithu,
Santxo Noblea eta Remiro aiphatu.

Azken horrek, grinatsu, utzi eskal-herri;
Godefroaren lagun Palestinan jarri;
Bere axkide hainitz segiarazirik,
Toki sainduen kharrak bihotza errerik.



Hamekagarren mende hiru laurdenetan,
Sakratzean Ramirez eskal-herrietan;
Ez da izan errege baliosagorik,
Ez eta zorionez haren parekorik.

Asko buru arinei beruna emanik,
Nahastale puliki karzeler eginik,
Deskansu handi zuen eman Nafarroan,
Legeri ere indar non nahi ondoan.

Logroñotik egorri Santxo Kastillako,
Lau-hazka, zamaria ez sobra azpiko;
Buru a phal eman guduko gizona,
Bere aita hil zion Ruydar frikuna.

Haren ondoko heldu, errege segidan,
Pedro Ramirez, hila hamargarren udan,
Eta Alonzo maite, gidari zuena
Gaston aphezpikua buru hoberena.

Maramamon Kotondan emanik azpirat,
Harma xuritan sarthu Kastilla handirat;
Bentzutu Baldespina eta Pedro Lara;
Kordoban ere eman ausarki ikhara.

Santxo Ramirez utzi Alonzok ondoko;
Segidan heldu Santxo, jakina mendeko;
Gero Santxo hazkarra, zeinaren denborak
Guti huzkur ikusi eskaldun zaharrak.

Hoita hiru, edo lau, errege izanak;
Guziek erakhutsi bihotz haltoenak;
Gerletan balorea, Elizentzat kharra:
Guzietan lehena da Santxo hazkarra.

Mureto mintzatu da Eskaldun erregez,
Eliza sainduari hek eman laguntzez,
Santxok egin botuaz Nabas ez uzteko,
Non etzuen lehenik etsaia trenkako.

Moroek bazituzten tresor handienak,
Urre, zilhar, tapiza, harri ederrenak;
Kanpetako inguru fortea gathetan;
Herio eragiten handik etsaietan.

Gathez egin hesia Santxok ezeztatu;
Barnat saldaduekin bera lehen sarthu,
Miramamolin zela Alkoran eskuan,
Ezpata biluzia jarria tronuan.

Tripatik dio Santxok ezpataz ematen.
Errozgorra lagunei hirriz erakhusten;
Mih bat izatu zen haren laudatzeko;
Othoiztu zuten denek tresora hartzeko.

Harmada ikustean boz bera guzia,
Ihardetsi zioen, bisaian hirria:
Ez naiz erresumatik ni hunat ethorri,
Beiratuz barbaroen urre meta horri.

Lehenik hautsi badut hekien gathea,
Bilhatzen nuen xoilki herri laguntzea,
Han distiaraztea egia zeruko
Mahomet ehorztea basan sekulako.

Hortako hirriskatu nik ene bizia,
Dena den Jainkoaren dohaina guzia;
Zeruan eta zuen beso hazkarretan
Fidatu naiz gerlako oren tzarretenan.

Ez dut urriki behar, gauza gan gogara;
Etsaia ostrikatu, xeden arabera,
Nahi bezinbat gizon zukeien berekin.
Eta forte hazkarrak gathe burdinekin.

Etsaiaren kanpako aberastasuna,
Emazue tenploan, orhoitzapen ona,
Berotzeko gizonak, fede hirriskutan,
Ethor ditezken gerla segidakoetan.



Gutiago balios gauza ditezkenak
Har betza soldadutan beharra duenak.
Justizia beiratuz lanen arabera,
Guziek ez baitute jasan zauri bera.

Gaztetasuna dute askok iragaten
Gerlari izerdia dutela ematen;
Izan bezate beraz zahartu orduko
Behar dena, deskansu, noizbeit bizitzeko.

Uzten zuei guziak; enetzat gatheak,
Ohore daualakotz hekien hausteak;
Galdetzen ere perla, tronuan jarria,
Agertu nionean ezpata gorria.

Miramamolin zuen perlatzat aiphatzen,
Hura bera zelakoz tronuan agertzen,
Izen goitia zuen omen Esmaralda:
Hartako Santxoz perla deithua izan da.

Harma seinale Santxok gatheak ekharri,
Esmaralda erdian zioten ezarri;
Gizon guti agertu haren indarreko;
Izpiritu ez eskas, oro izateko.

Hark zuen Tudelarat Ebro lerrarazi;
Hartakotz, Erromano lan eginarazi;
Geroztik hiri hura ur onek freskatzen;
Haren zubia jendek urguiluz zapatzen.

Aragonan Beranger haren etsai bizi;
Kastillago errege lagun altxarazi,
Sanxoren erresuma biek partitzeko,
Zoriona bazuten haren bentzutzeko.

Bere eskaldunekin zituen ehortzi,
Harmetako seinale hirrigarri utzi,
Bi otso asikika haren erresuman:
Seinale hobeago etzezaken eman.

Hoita hamalau urthe mende hamabiek,
Theobald hautatzean eskaldun herriek.
Errege sarthu laster, haren izeneko
Theobald bigarrena, sorthua gerlako.

Estuñiga, Agramont, Gebara berekin,
Itsasotan urrundu gurutzearekin;
Lur Sainduei beharrez laguntza ekharri;
Balentriak eginik handik zen ethorri.

Henrike Xanpañako haren ondokoa;
Alaba Joanari hark utzi khoroa;
Hunek dote eraman Philip ederrari,
Franziako tronuan behar zena jarri.

Segidan nausi sarthu Luis Hutin txarra,
Karlos eder, Joanna, Blanka, Leonora,
Febo, Katalina Fox, Labrit azkeneko;
Eskaldunak horrekin khoroa galtzeko.

Hamabortzgarren mende hamabian zela
Nafarroa jarri zen Español bezala,
Alvarez eta Alba, bi duke aiphatu.
Fernandoren ordenaz Iruñean sarthu.

Joannes Labrit eta Andre Katalina
Heretiko izanez, hoztu eskalduna;
Jarri españolekin fuero beiratuz;
Aita saindu Juliok berak engaiatuz.

Baziren jadaneko kantoin eskaldunak
Españari berak esteka zirenak;
Hek Biskaia, Alaba, eta Gipuzkoa,
Hola joan puskaka eskaldun khoroa.

Kausa dire mendiak, Franses eskalduna
Ez bazen Nafarrekin Español egina;
Karlos Kintok ikusi hark eman legeak
Etzuzkela hain urrun izan ohoreak.



Kantu hau eman ditut, ibiliz larriki,
Hainitz zen unhaturen, egonez xeheki;
Jainkoak nahi badaut bizia luzatu,
Oraiko eskaldunetz nahi dut mintzatu.

Laphurdi, Xuberoa, Nafarroa biak,
Gipuzkoa, Alaba, Biskaiko hegiak,
Nahi ditut hedatu bere andanetan,
Eskaldunek ikusgai zein bere tokitan.

Nahi nuke altxatu herri bakhotxari,
Zor zaion aldarea haren denborari;
Erran herri bakhotxa nola den agertzen,
Zer jaun edo nausiek duten ohoratzen.

ESKAL-HERRI BAKHOTXA

Ez nuen arren nahi joan urrunago,
Segitzen dut lerroa hainitz aitzinago,
Erran ondoan nola lehen Eskalduna
Hedatu zen pusketan Ibernia barna;
Toki haren izena aspaldi Irlanda,
Erran nahi eskaraz ur erdiko landa.
Mela [1] eta Giraldik [2] dute erakusten
Hango jendea mendez Kantabretik jausten.
Eskoti deitzen ziren hekin arabera,
Eta Eskaldun daukat izen hori bera,
Hala nola Angeles izen bertze asko:
Berry, Derby, Arrubi, Cantorbery, Beko.
Joan da Irlandarat lehen Eskalduna,
Nola baidoha orai Montebido barna.

Nola duzke zuhaitzak zazpi adar eder
Begitan ditezkenak andanekin ager,
Hala da Eskal herri zazpi alde jartzen,
Bederen hurbildanik bazaio beiratzen.
Aldean Laphurtarra ez da Xuberoko,
Ez eta Nafartarra nahi Alabako;
Hemen jaio herriz du bakhotxak izena,
Bainan urrun edozein nahi Eskalduna.

Nafarroa-Behera, Xubero, Laphurdi,
Franziari zitzaizkon partiletan geldi.
Españiako dire Nafarroa gora,
Alaba, Gipuzkoa, Bizkaia ederra.

[1] Mela bizi zen hoita hamar bat urthe Jesus hilez geroz.

[2] Giraldi bizi zen hamaseigarren mendean.



NAFARROA BEHERA

Nafarroa-Behera hasten Laphurditik,
Mendixketan hedatuz iguzki aldetik.
Donapaleio eta Garazi hiriak
Oihan artean dire agertzen liliak:
Bi erroter hautatu gidari baituzte;
Larraburu, Lantharet, izenak dituzte;
Ez aski izatea gorphutzen dohainak,
Baituzte mihiz ere urrezko pikainak.
Hedaduraz Baigorri herri handiena;
Sudun arnoz Larzabal naski joriena.
Jenderik gehiena biziki arin da;
Itsas aldetik harat ganbiantza bada:
Lurrak balu bezala hedatzen jendetan
Su hain gori duena bere mahastitan.

Halturan eskax dire gizon gehienak,
Eta guti aphaizten dituzte errainak;
Etxeko jaunak berak xamarrekin dire,
Bertzetan jakaki hoik emazten baitire.
Etxetan ere ez da hainitz fantesia,
Kanpo ala barnetan kixkil lan guzia.

Nafarroa-Behera izan du ohore;
Haurretan ez du izar eskas orai ere.
Beltzunzeren omena urrun da hedatzen;
Lore ederragoek Harispe beztitzen;
Bera egin da gizon, zorrik ez nihori;
Odola du ausarki gudutan ixuri;
Ohorezki du higan bere eskalera;
Etzaiote nihori sobra dela gora.
Franziako mareskal ez da Eskaldunik;
Harispe da bakharra hortaratu denik.
Prezaten dute orok haren iguzkia:
Jainkoak dioela luzeki bizia.
Izena eman dio bere ilobari,

Dutey-Harispe denek maite dutenari:
Ungi dohako arras loratu izena,
Ez da-husu aurkhitzen holako gizona,

Dagenet izatu da luze deputatu;
Badu nihork bezenbat horrek izpiritu;
Lurreko itzuliek ez bezate izi;
Buru onek luzerat eramaten hauzi.
Anaia Isidor du, Laphurdi guzian,
Bidetan aitzindari, omen berezian.
Etxeberri premua izan da Parisen,
Deputatu egina entzunik solasen.
Irakutsi du bethi hainitz zuhurtzia;
Ez du hark aphaizduko sorthu den herria.
Anaia du Parisen orai deputatu;
Frankeza, diru eta buruz da hautatu.
Hoik bezala Baigorri Exauz zen sorthua,
Tursen arxaphezpiku gero hingatua.
Haren jauregian da d'Abbadie jauna,
Xubero Arraztetik ethorki duena.
Ez dute Eskaldunek axkide hoberik;
Beldurtzeko ere da duten halakorik.
Larre garatar bat da, Nafarroa goran,
Izatu aiphatua erregen denboran;
Izen horrek oraino dakhartzke ohore.
Izan da deputatu Larraburu ere.
Garaziko seme da Sallaberri jauna,
Aphetz orotan naski buru hoberena;
Baionako erroter etzen halakorik;
Ez dio gaizkiari ematen bakerik;
Edozein ifrentzutan nahi den agertu,
Haren mihi kolpeak jasan bebar ditu.
Lagun du Arbelbide, erroter khartsua,
Gaxtagiñen trionfaz bethi beldurtua.

Tokiari darraiko baintz izpiritu;
Landerretzek pikainak handik bildu ditu;
Mauleon da erroter estimu handitan;
Loreak bil letzake herrunka orotan.



Ez dezaket izenda nor den seinalatzen,
Edo herri bakhotsak zein duen prezatzen;
Bidaxunetik hasiz higan Alduderat,
Eta Arnegin gaindi ethor Heletarat,
Sobra izen liteke bidean hartzeko;
Utziren ditut behin, gero ikusiko.

NAFARROA GOIKOA

Nafarroako etxe Zaharrak badire,
Bi Nafarroak luze betan bizi dire;
Español jarria da goiko Nafarroa;
Hibaia handia du hegotik Ebroa.
Baditu hoita hamar lekhoa luzean,
Eta naski hoita bortz zabaltasunean;
Franzia du mugarri iphar alderditik;
Aragon menditsua bixtan iguzkitik;
Iguzki sartzealde, Kastilla zaharra,
Guriopez duena agertzen mustarra.
Gipuzkoa, Bizkaia, itsaso aldean,
Hedatzen zaizko, berex, mintzo ber-berean.
Mendi gorenak dire Adi, Altobizkar;
Belateri darraizko ehun mila bizkar.

Hamabi ehun eta hoita hamalaua
Ez dugu jasan behar izan dadin gaua:
Xanpañako konde zen Thibaut aiphatua,
Santxo zazpigarrenaz suhi hautatua.
Ezkontzaz zion Blankak Thibauti ekharri
Nafarroa guzia, poxi prezagarri.
Ukitu zuenean ezkondu beharrak,
Franziako errege, Filipe ederrak
Hekin ume Joanna tronurat altxatu,
Nafarroako lurraz khoroa berratu.
Segidan izan nausi Ebruzko kondeak,
Gaston maitatu eta Albretar jendeak.
Hamabortz ehun eta hamekan bezala,
Albak eman zioen lege espainola.

Joannes Albreten haur Henry bigarrenak
Nafarroa-Beheran zituen izanak.
Margarita Baloa andre zuen hartu,
Eta Joanna Albret hartarik izatu.
Antonio Burbonek Joanna hartzean,



Jarri ziren aphur bat behar gerizean,
 Eta mundurat eman hirugarren Henry,
 Zeintarik laugarrena baitzaukun ethorri,
 Henry handi deithua, Eskaldun odola;
 Nahi bada Kaskoina bekhaitz dadiela.

XUBEROA

Sei mendeak zirela eskas bortz urtheren,
 Eskalduna nausi zen Xuberoko lurren.
 Lur hori deithua zen denboran Subola,
 Bizkonde titulua gora zakharkela:
 Hama-hiru mendea zelarik seiean,
 Filipe ederrari joan zen dotean.

Pirene grekez, eta eskaraz Subola,
 Erran nezake kasik bardintsu direla.

Suprefetak Mauleon egiten ohore:
 Kantoin da Atharratze, xumea badere.
 Xuberoko jendea omenez leguna;
 Badakharke mihitan nihon den zumena.
 Sinhestea badute, bethi izan ere;
 Arintzat derauzkate hainitzek halere.
 Ez ahanzten hargatik Maitiren fedea;
 Mauleon zaindu zuen aiten sinhestea,
 Kadiratik arthiki predikari tzarra,
 Harritua ezarri gezurti ozarra.
 Orai ere badire giristino hautak,
 Semeak maite jainko segitua aitak.
 Damurik zenbeit gazte izpirituekin
 Eman direla makhur aiten sinhestekin!
 Ez da Jainko legea nihoiz ganbiatzen,
 Munduko berthuteak hark ditu hedatzen:
 Ez duke beraz nihork, ungi bilhatzeko,
 Edozein gisaz hari gudu egiteko.

Gizon ederrik bada Xuberoa hortan;
 Biltzen dute bizia asko inginutan;
 Erne dire beharriz nola izpirituz,
 Ez dire loharkatzen kantaz eta xiztuz.
 Darthez ezaguna da Franzia guzian,
 Bankako urreak du beztitzen bizian;



Haren adarrek ere ohore ibilki;
 Izen garbiagorik ez diteke uki.
 Eskaldun suprefeta bat bederen bada,
 Eta hura d'Andurin Mauleko seme da,
 Gizon jakin, zuzena, bethi ohorezko,
 On galdez dabilana bihotzez herriko.
 Atharraztik ilkhitzen zen Xaho jakinsuna,
 Beira balu fedea, Eskaldun lehena.
 Gutik dute fransesa nola hark ibiltzen,
 Ez du ere parerik denean mintzatzen.
 Balinba nahiko du holako gizonak,
 Laguntzen duelarik zeruko dohainak,
 Eskaldunen fedea berriz besarkatu,
 Eta heiekin biziz herria altxatu!
 Errotik katoliko dire Eskaldunak;
 Ez ditezke bertzela hekien lagunak.

Barkus du bere herri Xilo argituak:
 Etxeleku ere du maitatu zeruak,
 Emanez izpiritu hanbat hedatua.
 Gorritepen ondotik, Hagou da hautua.

GIPUZKOA

Franziaren kontra da, mendebal aldetik,
 Gipuzkoa ageri itsas bazterretik,
 Errepera ederrik baitu bazterretan,
 Hala nola lur guri herri guzietan.

Jendea ere ez du gaxtoa, segurki;
 Maitatu ez duena ibiltzea gaizki.
 Ondarrabiak badu inguru harrasi,
 Aspaldion zaiona arrailatzen hasi.
 Oriok freskatzen du luzeki Tolosa,
 Eskaraz deitzen zena lehen Ithurisa.
 Urume ondarrean Donestia sortzen,
 Etxe guzia bardin duela agertzen.
 Ez du urrun Pasaia, portu hobereana,
 Erran nezake kasik Europan lehena.
 Bergara aiphatzen da ematen eskola,
 Dohatua delakotz hiriak bezala.
 Gipuzkoak izan du hainitz gizon handi;
 Hekin handitazunaz bethi orhoit bedi;
 Hori da bide ona gora hizateko
 Eta omen garbiaz luze higitzeko.
 Hango: san Inazio, lehen jesuista,
 Bresilgo apostolu, Joseph Antxieta,
 Muxiko kardinala, Sandobal, Aiardi,
 Ubilla, Idiakez, aphezpiku handi;
 Jauregi, Olozabal, Ibarra, Rekarte,
 Arrese, Arteaga, Gabiri, Ugarte,
 Jakin eta aituak ziren denborako;
 Agirre, Borda, Isas, nausi eskolako.
 Erregen sekretari: Hoa, Amezqueta,
 Aroztegi, Ibarra, Ipeñarrieta,
 Gaztelu, Mendizorroz, Perez Elizalde.
 Elorregi, Zabala, Zara, Larrunbide.
 Jeneral izan dire: Lasa, Urkiola,
 Zubiurre, Ibarra, Okendo, Zabala,



Otxoa, Arriaran, Eraso, Berritu,
 Irigoien, Urdaire, Aranburu, Portu;
 Garibai, Zamaloa, Isasti jakinak,
 Utzi Gipuzkoari lore ederrenak.

BIZKAIA

Bizkaiko mendixketan sortzen da hirria,
 Aberatsa du haran ageri guzia.
 Bilbao du lehena hiri guzietan,
 Asturiako ilek daukatena mentan.
 Ansa du hiri horrek arrainez bethea,
 Aiphatua da hango angula maitea.
 Señoria Bizkaiko titulu lehena,
 Ohore handiz bethi ekharri duena.
 Meheak ditu lurak asko bazterretan,
 Xakolin prezatzen da gaztainen artetan;
 Bada marmola eta mea burdinazko,
 Mende bederatzian higan zen gorasko;
 Ordutik bazituen biltzar bereziak,
 Bere aztura zuhur eta justiziak;
 Bainan Kastillak zuen luzean beretu,
 Eta fuero maitez lastersko larrutu.
 Felipe bigarrenak, maitez bizkaitarra,
 Aitoren seme egin haren haur suharra.



ALABA

Salinan gaindi sartzen arrai Bitorian,
Mila herri duena bixtak agerian.
Han zituen Augustek Kantabreak herstu,
Hartako hiri hori Bitoria deithu.
Santxo handiak zuen altxatu hiria,
Sarrasinei khentzean gaudian bizia.
Badu zezenetako plaza ederrena;
Hor zelebratzen dute besta adinena.

Mororik ez omen zen han nihoiz nausitu;
Zortzigarren Alonzok zituen beretu.
Han arte Arriagan zituen biltzarrak,
Harat aphezpikua uzten Kalahorrak,
Lagun aitoren seme eta infanzunak,
Hautatzeko nausi on urthe zitezkenak.
Bitorian egon zen Josepen tresora,
Ihesi heldu zena Franzia aldera.
Gipuzkoa, Bizkaia, Alaba heiekin,
Barduli deitzen ziren mende lehenekin,
Berritan izan dute ehun aitzindari,
Ohore emaileak bere herriari:
Gibelalde, Arrondo, Zoroa bizia,
Ithurralde, Zagasti, Barnetxe handia.

LAPHURDI

Seigarren mendea zen eskas bortz urtheren,
Laphurdin hedatzean Eskaldun lerroen.
Sasi zen han artean Baiona inguru,
Ematen dugularik barne Hiriburu.

Azkenik behar bada Laphurdi kantatu,
Gutik lan gaitzagorik dute besarkatu,
Ez gaitz delakotz hanbat kanten emaita,
Bainan minbera baita egia maitea.

Laphurdi Franzian da, Eskaldun herria,
Gure aitek zioten khendu elhorria;
Hek kasatu laphurra han zena gordetzen,
Bazterrak zituela ikharaz bethetzen.
Mugarri lau aldean ditu itsasoa,
Ihuri, Mendiondo eta Bidasoa:
Urezko hiru bide eta herrixka bat,
Mugarritako onak zer nahi bezenbat.

Kaskoinen ingurutik edo iguzkitik
Baionarat lerratzen Ihuri Bardoiztik,
Biduzekin bidean delarik nahasten,
Edo bat dutelarik Ahurtin egiten.

Bidasoa da sortzen mendebal aldean,
Espainia duela berexten jaustean.
Hegoan Mendiondok lurrez du atheka,
Ez baita berehala joanen trunbilka.
Itsaso handia da hedatzen negutik,
Herria beiratzeko lasterken menetik.
Hola ditu Laphurdik hegalak hedatzen,
Kaskoin, Nafar, Español dituela jotzen.

Lehenago izan zen Erroma handia
Hastapenean arras ohoain mindegia,



Bainan garbitu zuen ethorki lan onez:
 Laphurdiko ohoina etzen Eskaldunez.
 Tzarkeria duenak bizian laneko,
 Laphurdin orai ere ezin higatuko;
 Lehenago gaxtoak estali baditu,
 Nihork hekin itzalak hain higuin ez ditu.
 Nihongo haurrak ez du buru zuhurrago,
 Elgerkeriei beira hainitz guti dago.
 Ez ditu segituren herri horren haurrak
 Jaiura gaxtotako muthil gazte tzarrak,
 Haltoa du arima, aitoren bihotza;
 Ez du beldur beroa, hain guti izotza:
 Gose edo egarriz ezin beratua,
 Lan gehienetako da gizon hautua.
 Gorphutzeko indarrez dohatua ungi,
 Ez beldurrik halturan ikustea argi;
 Zaintsu eta arina, ihardukitzeko
 Ez du oinezkoetan parerik kaustuko.
 Pilotako jokoan agertzen denean,
 Galtzak eta athorra bakharrik soinean,
 Atzetik bildu jendek egiten aithorra
 Gazte lerdena dela muthil Laphurtarra.
 Bozkorioa ez du sobera largatzen,
 Nigar eta hirrien badaki neurtzen.
 Ageri baduela beruna buruan;
 Begiratuagorik ez da inguruan.
 Herrunkari batere diona beiratzen,
 Nihongo ostatutan ez da arlotatzen.
 Ez luke begitarte edanez sobera,
 Bide on segitzeko aski hori bera.
 Herrixka zenbeit bada naski bazterretan
 Eman ez ditekenik bertzen izaritan;
 Gehienez mintzo naiz: haitzak baduela
 Guziek badakite non nahi itzala.
 Laphurtarrek ez dute maite estekarik:
 Halere legek hetan ez jazar beharrik.
 Nihoren oinetarat ez dire erortzen,
 Fagorea ez dute ahuzpez bilhatzen.
 Handi ala ttipiak artexenak dire,

Maitagarriak ere, hantatzen badire.
 Ez dute jan nahiko eskaile ogia,
 Irabaz badukete bere janaria;
 Alferrei ez diote ekhartzen agurrik,
 Lanak ez du baxatzen aitoren semerik;
 Gizonari darraiko zerbeit egitea,
 Eskuak gurutzatuz ez on egotea.
 Gehienek etxea berek erabiltzen,
 Ontasun arabera muthil dela hartzen.
 Othe diteken nago nihon langilerik,
 Lan dorphe egiteko, hain mehe bizirik.

Hoita hamabortz herrik Laphurdi egiten;
 Bakhotxak bere oldez argi erakusten.
 Aphezpikua dago Baiona hirian;
 Ikhasi du Eskara, atzea Franzian;
 Hartako Lacroix jauna Eskaldunek maite,
 Bere mihian hori mintzatzen zaiote,
 Erakutsiz guziei Eskaldun mintzoa
 Ez dela uste bezen ikhasten gaxtoa.
 Kaskoinek darasate, zazpi urthe bethez,
 Debrua egon zela deus ikhasi gabez:
 Munduko mintzoetan ez da hain garbirik;
 Ez eta behar bada hain gai handikorik.
 Damurik ez direla herritako jaunak
 Bere mintzo ederra arthatzen dutenak!
 Ezagutu mihitan naski zaharrena
 Ez liteke utz nola atzo sorthu dena;
 Ez ginezake ikus, setioz bezala,
 Erdarak orotarik hertsatzen duela,
 Erran gabe berritan mintzatzen hasiei,
 Utz dezoten bizia zaharren mihiei.

Laphurtarrek badute dohain berezia,
 Ez dute nihoiz izan buru nahasia;
 Ez dire bizi tripa ungi bethetzeko,
 Beharra jaten dute xoilki bizitzeko,
 Hekin kanpoak berak zer diren erraten,
 Berun gabeko joiak ez hala egoten.



Giristinotasunak hetan du haltura;
 Ez dute bizi nahi abren arabera;
 Jainkoganik dutela sinhesten ethorki;
 Ungiaren bidetan egoten gogorki;
 Ez dire oro garbi egun guzietan,
 Bainan aithorzen dute erorikoetan.
 Etzaiote ahalke zeru bilhatzea,
 Gauezko ethorkizun, hekintzat hiltzea;
 Geroko esperantzak gehien arintzen
 Lurreko trebesian gaizki dena heitzen.
 Zoro behar gizona ez badu ikusten
 Geroaren usteak zer duen egiten:
 Duenari hark dio beiratzen urrea,
 Eta ez duenari agintzen berea.
 Ez duke nihork sinhets, ez bada zerurik,
 Aberatsak dukela lurrean bakerik.
 Guziak dire beraz behar egiaren,
 Ungi iragateko bere biziaren.

Xume ala handiek Laphurdin sinhesten,
 Zerurat beiratzea nihork ez sobresten;
 Hortik heldu frankeza guzien oneko,
 Eta, ezpata gabe, bakea herriko:
 Balukete bazterrek bihotz altxagarri,
 Bakeak behar balu gizon galtzagorri!
 Izitzen badu ere ezpatak frikuna,
 Ez du hark sorrarazten berthute maitena,
 Zeinak, aginduz bati zeruko saria,
 Beiratzen baitu bertzei lurreko hirria.

Hiru mendi badire, atheka bezala
 Laphurdi hegoatik beiratzen dutela,
 Begiei baitiote besta erakusten,
 Nihor hekin gainerat denean higaten.
 Hasparnez goiti dago Ursuia ederra,
 Zabaltzen duelarik othezko bizkarra.
 Hedoiei pasaioan idekiz uria,
 Gaindiz dago mendetan haren ithurria.
 Mundarrain Itsatsutik duenak higaten,

Mendi arraia dela gora du erraten;
 Ez bada ere Zesar nihoiz han kanpatu,
 Etzitekela gaizki behar da aithortu.
 Bizpahiru mendixka, bulharrak iduri,
 Larrunek aitzinean baditu ageri;
 Nola hekin gainetik higan behar baita,
Larre urrum deitzen da mendiaren punta.
 Aspaldi lurrean da Larrungo kapera,
 Ahazten has; ere ermittau denbora:
 Ez dire gehiago inguru herria
 Higaten adiraziz kantaz litaniak.
 Badire hor-hemenka harrasi ondarrak,
 Suntsituz daramatza emeki denborak;
 Eginak izan ziren zenbeit gerlatetan,
 Gerizeak ageri harloza azpitan.
 Gainetik ageri da Laphurdi guzia,
 Nehondik ez baituke hanbat arraizia:
 Herri xurik dituzte haranak bethetzen,
 Zilhar bezala urek artez distiatzen.

Zenbeiten arabera, *lau uren gaindia*
 Laphurdik izatu du ozaita handia;
Lau uren erdia hainitzek hautatzen;
 Bertzek *larren iphurdi* dute murduskatzen.
 Bainan hibaiak dire lauez gehiago;
 Mendiz ere Laphurdi ur hesiz ez dago;
 Larretan balu berritz behar den iphurdi,
 Araberan sabelak ez luke non geldia.



IHURI

Oragarren petralak pasaian garbituz,
 Baionako alderat Adur izen hartuz,
 Ihurik itsasorat jotzen du arinik;
 Ur bide gutik dute hain bazter gizenik;
 Bidaxuni diotza bazterrak ungitzen,
 Ez bada iholdean sobera gaintitzen.
 Gehienez ez du errenkuratzeko;
 Biltzen du artho, ogi, bai belhar neguko.
 Ihurik hainitz arrain badu erraietan;
 Izokinak hargatik ditu kolaketan;
 Hango untzitan dabil jende orotarik;
 Garbiak ez du hetan hainitz lehiarik;
 Amoak hirrisku du musuen ukia,
 Ez bazaio segitzen berekin nausia.
 Hanbat gaxto, aldean, denari lokhartzen;
 Kaskoin begia guti zeruak beldurtzen.

LARAN

Bastidatik jausten da Laran lorietan,
 Segituz errepirak Bardoizko zoletan,
 Biduzekin Ahurtin galdu den artean,
 Jotzeko itsasorat handizki batean.
 Arraia du izena jo arte Bastida;
 Egia errateko, hainitz arraia da.
 Lehen errotaraino heldu da marea,
 Arrainez dakharkela nihon den ostea;
 Barthak dire herrian errepirak deitzen;
 Artho, belhar, sahatsek dituzte gaintitzen.
 Mandorik larrienak handik atheratzen;
 Eta Espaniarat untza truk hedatzen.



URHANDI

Itsatsuri daraio saltoka Urhandi,
 Aberasten duena erdian Laphurdi.
 Haren haur gastatuak bereziki hiru:
 Kanbo, Uztaitz guria, eta Hiriburu.
 Herrifrankari ere baliatzen zaio,
 Belharrezko gaindia hark ematen dio.
 Aberastuz herri hoik, dohala ohetan,
 Sar diteke Baionan trionfa handitan.
 Izokin, amurraia, korrokoin, xarboa,
 Arrain maite hautatuz bethi jatekoa,
 Eme direnek jakin nola har nazetan,
 Utzi gabe guziak bertzentzat hazitan.

UHERTSI

Uhertsik hastapena Urdazurinbi,
 Ehun xirripek dute bidean berratzten.
 Ainhoa, Sara, eta Helbarren joria
 Baliatzen dutenak haren ixuria;
 Bere ohea segi deskantsu da jausten,
 Ez diola biderik griñari ematen;
 Erraietan dakharke arraina ausarki,
 Inguru errepirak ferdutzen ederki.
 Jotzearekin Askain Uhertsik zubian,
 Bertze bat iduri du bere arraizian:
 Han hasten da birungan, lorian bezala,
 Luzeki gozatzeko Askaingo hegala.
 Ageri du arraina, itzuli denetan,
 Izarra bezen husu zero garbietan:
 Benedikatzeko du herriak Jainkoa,
 Eginik izokina han bezalakoa.



BIDASOA

Bidasoa Beratik doha itsasorat,
 Franzia eskuin utziz iguzki alderat.
 Sinhetsi behar bada aita Mariana,
 Ur hori izan behar bi erresumena.
 Badakit Garibaik zer duen erasi;
 Adimendua behar ametsentzat nausi:
 Ez duke Españolak Bidasoa bere,
 Eta ez luke hori nahi behar ere:
 Ageri du erdian irla aiphatua,
 Aski errege handiz mugarri hartua;
 Itsasotik arraina heldu da murruka,
 Guziei da biltzea, zein gehiagoka.
 Sarentzat direnean tokiak xuhurrik,
 Hedatu behar dire elkhar aditurik.
 Aski pirpira bada muga ingurutan,
 Beldurrez behaztapa gardak ilhunbetan,
 Eman gabe hauzoak elkhari harrika:
 Bertzelako behar da Eskaldun fereka.
 Egin bezate orok lainhoki arrantza,
 Gutu balio luke eginik azantza:
 Paris eta Madrilek egorriren jaunak,
 Klikatzeko astiroz gizendu arrainak.

Dohatsuago dire, Biriatu zolan,
 Egin dezaketenak ixilik bere lan.
 Izokin ala xarbo, zer nahi badute,
 Azukre ala kafe han sortzen zaiote;
 Kontrabanda ederrrik badoha gainetik,
 Ez dire urrats oro izokinen gatik.

UR BEREZIAK

Ithurri onak dire herri guzietan,
 Ez da min emailerik Laphurdi lurretan;
 Guziek dakharkete zintzurrari ona,
 Eta orratzen ere janik gogorrena.
 Bainan badire urak guziz bereziak,
 Gaindizka dituztenak biziko haziak.

Edozein portuetan itsaso on bada,
 Donibane-Ziburun hain ona behar da,
 Gatz beraz gazitua, ur beren gaiekin,
 Eta ez gutiago on diren kostekin.
 Pasaioak badire, bizkar haltoenak,
 Hurbildik ikusteko urrun dabiltzanak;
 Ur ezta aldean, edo arrantzako,
 Edo nahi denean, kanpo ikusteko.
 Jende ona ere da ezin gehiago,
 Nihon guti diteke gaxto gutiago.
 Badire ikhasiak lehen herrunketan,
 Ager ditezkeienak edozein gorthetan.
 Itxikitzen diote bere sortzeari,
 Hartzerat utzi gabe batasun nihori.
 Buru onak badire aitzindarietan;
 Heki da ematea hagonia mentan.

Hainitzak egon dire ethorri nahiak,
 Eskolek ez baitzuzten hek behar nausiak.
 Beldur horrekin orai nihor ez egonen,
 Eskola hautatuak urekin izanen,
 Jakitatea jarri beharren alkhian,
 Ethorkidin nor nahi mainhorat lorian.
 Ez aski jakitate, bada segurantza
 Arthatzeko zuhurki bera den bihotza.



Gaitz guziek ez behar mainho itsasoko;
 Minek galdetzen dute ur araberako.
 Hurbil da beharrea Askain urez dena,
 Zauri gehientzat ixurki duena;
 Egin arte karrosen bide hain beharra,
 Higan diteke urez nahi bezen gora.
 Askain ez da mendia, *baste da goratzen*,
 Askubeak mendiei bidea du lotzen.
 Ez *Sar* mendi arterat ikusteko *Sara*;
 Ez begizta Larrundik *beharean* Bera:
 Mendi oin guzia da ithurritan gaindiz;
 Harat zohan eria omen bertze aldiz.

Guti izan diteke ur hobeagorik,
 Edatekoak dire Bordele utzirik;
 Ez dire ithurriak dohain bardinekin,
 Burdin eta sufrea sortzen zenbeitekin:
 Sokhorriko paretan bada ithurria,
 Negela sendatzeko bethi idekia:
 Herriak mirikua izatean bere,
 Ezin gabetua du menta arebere.
 Bertze askok bezala, baluke beharra,
 Doiean altxatu du oraino leihorra;
 Hiru gerla tzarretan errea izana,
 Lurrean gelditu da etxe gehiena.
 Iragan mendea zen akhabo bezala,
 Non biluzi baitzuten espanyola zela;
 Jende asiakoa, gatheak emanik,
 Egorri Franziarat, sabela arinik:
 Han gosetez hil dire gure arbasoak,
 Gaphoinez asetzean Kaskoin harrizkoak.

Askaingo semek lehen bazuten gustua
 Eta etzuten ere harroka burua.
 Handik zen Sosiondo higan Baionarat,
 Aphezpiku kadiran biziz argitzerat.
 Haren zen Askubea, jauregi bethiko,
 Hain ungi litekena aphezen biltzeko.

Uhaldeko seme zen Duhalde handia,
 Sinan arima ketan kharrak ibilia.
 Aiphamena utzi du mende orotako;
 Haren dohainak horrek ez sobra beztiko.
 Olhaberritako zen Berddes jenerala,
 Eztuena bekhaizten gudutan odola.
 Marzenekoak ziren Xurio anaiak
 Hedatu nahigatik zenbeitek hedoiak;
 Donibanen erroter hil da bat hetarik,
 Imitazionea eskaraz utzirik:
 Hori utziz anaiei, hill zen arraizian;
 Segitu zuen berak arthoski bizian.
 Laugarren liburua ez du hark itzuli;
 Arrebari zioen hura utzi lili.
 Anaia bat bazuten jesuista zena,
 Bordelen theologal aiphatu izana,
 Zeinarekin Tournely baitzen eskolatu,
 Eta zeinak nausia baitu kopiatu,
 Erraten zuelarik, izan balu bera,
 Etzuela eginen liburu alferra.
 Ager hadi, Xobadon, kaputxin handia,
 Beaumont arxaphezpikuz ungi ikusia;
 Hire mihia nahiz zenaren agertu,
 Erregen predikari hinduen hautatu.

Hamabortzgarren Luis zen behar handitan;
 Inguruan zituen tzar guziak mentan:
 Hek zuten, aisiakotz, Xobadon urrundu,
 Eta errexago bat gortherat hurbildu.

Parisen zen orduan Leczinski maitea,
 Galdurik ethorria Polones gorthea:
 Haren aitzinean zen Xobadon mintzatu,
 Eta aditzaileak zituen gustatu.
 Oinez zabilan bethi bide guzietan;
 Erraten bazioten nihork aurkhitzetan,
 Zertako etzen nahi ibili bertzela,
 Ihardesten zioten Eskalduna zela.



Paristik landa zuen minekin ikusi,
Dantza soka zutela Askainen ihesi:
Han arte igandetan, lerroan guziak,
Estaltzen zituztela plazako hegiak;
Ematen ziren xutik, bozkario jari,
Mokanesak hedatuz zaharrek gazteri.
Agure zaharrena jartzen zen buruan,
Erramuzko adar bat zuela eskuan;
Hark zuen lehenari mokanes hedatzen
Eta guziak ziren saltoka segitzen.

Lehengo kaputxinek, zazpi urthe handiz,
Ibili behar zuten haintzurra izerdiz:
Urthe hek deitzen ziren bestiazko lanak;
Geroko zirelarik arimen pikainak.
Nola ez baitzen buruz Xobadon hortako,
Vaderat [1] eman zuten lagunek hiltzeko.
Bordelen gerthatu zen pikandia hori
Eskaldun herritako lili lehenari.
Parlamentako jaun bat zuen axkidea,
Maiz hura mintzatzeko bazuen bidea:
Hark, ez ikusiz Klement [2], bere egunetan,
Errenkura hedatu lagun suspitxetan.
Beharrik zen mintzatu; ur eta ogian
Jadanik hil hurren zen komentu azpian.
Beldurrez zuten handik lasterka athera,
Eta utzi ageri axkiden gogora.

Etzuen probinzial izan nahikatu,
Erromaratekoan hartako luzatu;
Aita Sainduak zion egin errenkura,
Gutiri zaiotena egiten ardura [3].

Luzekisko mintzo naiz Askainen gainean,
Herritan maiterena garen orenean:
Bazohan Angeles bat Larrunat Serrestik;
Kurrida zuen besta mundurat geroztik;
Ikusi zuenean Askain bere salan:
Holakorik kaustea, zioen, bada lan!

Bainan higan zenean mendi gaineraino,
Eta bixta hedatu handik zirauceino,
Ikusten zituenez burua bethea,
Mingarri zitzaioen behiti jaustea.
Etzuen holakorik aurkhitu begiko,
Morthuan bildu zuen zer konda biziko.
Sarthu zen Askubean, aphezpiku lana,
Piramidek bezenbat iraunen duena;
Asko diru behar zen haren egiteko,
Ithurria menditik azpiz ekhartzeko;
Baratze berdintzea gusta da ederrik,
Nihongo etxek harri hala pikaturik,
Eskalerik Parisen ez da ederrago;
Haren harri pikatu desafioz dago;
Gardia portaletan zaldiz da ikusten,
Alferretan hainitzek zer den galdegiten.
Jauregiko nausia da Argellies jauna,
Guziek maite duten izpiritu ona.
Ximeldegian Daille bizi ohorezki;
Gutik haren agurra herrian izaki.
Bi jaun koinata hoiek badituzte haurrak,
Eme direnak nola buraso zaharrak,
Dohain bat bereziki hetan da prezatzen:
Giristino on dire guziak agertzen.

Baldar aphezt Askainen Hirigoien handi,
Zuhurki dakharkena kargua aspaldi.
Aithortzen dute orok, herri gidatzeko,
Ez ditekela kausi hainitz hobeago.
Etxeberrian dago ezkontzaz joana;
Haraneder du lagun legeak emana:
Laborarj miraila Heuty Haraneder,
Buru gora non nahi dukeiena ager.

Doxamendi maitea, maxtru ibilia,
Plazetxeberrian da bizi onhetsia.
Xardiet Luberriko berritan galdu da,
Prestu eta zuhurra, nihor balin bada;
Premua zuen hartu berekin untzian;



Biak suntsitu dire itsaso handian:
 Ez dago aita hori behin ahantzirik,
 Behar solegituak hartaz orroiturik.
 Dukos bezen jakinik nihor ez herrian;
 Hortakotz ez dario espantu mihian;
 Bizi da, bere alde, Serresko etxean,
 Distiraziz berthute agorten mendean.

Gizon seinalatuak oraino badire:
 Monsegur, Barrandegi, Durruti, Lapeire;
 Hiru aphez ere bai; bat da Irulegin;
 Ungi hainitz baituke hark non nahi egin:
 Bihotz on batekin du hainitz arraizia,
 Bozkario saildutan darama bizia;
 Populu dohatsua errotor duena
 Xemartin Grazi, izen ungi dohakona.
 Ez da halturan gora, bainan da joria,
 Bere eginbideri zuhurki josia.
 Bigarrenak izena du Doihanbehere,
 Bere sor tokiari diona ohore;
 Baigorriin errotor gazterik jarria,
 Ikus duke bakhotxak zer duen mihia;
 Maina bezala, badu izpiritu zuhur;
 Haren kantari ere eman zaio agur.
 Hirugarren apheza bizi da Bardoitzen,
 Piko hauk dituela nolazpeit moldatzen.
 Ustez xede onetan, nahiz herriari
 Geroan kausirazi orai zer den berri.
 Badu arimen karga pisatzen diona;
 Jainkoak bezo barkha hunelako lana,
 Ankas badu egiten nihola gaizkirik,
 Hula hingatuz oren kurrideri khendurik.

Askaingo jendea da dozena bat ehun,
 Muthilik orotar ez baita berrehun:
 Diruketa joan da deusetako zena,
 Zenbeitek airaraziz buru zuhurrena.
 Nondik nahi beiratuz, Eliza pulita,
 Jendeari darraikon bezala koketa.

Biarritzko dorrea egin da Larrundik:
 Etzuken harri hobe jautsaraz nihondik:
 Harri bera Baionak zubiko hautatu:
 Segurantzak harekin bethiko baditu.
 Oxala balitz bethi harrizko galdea:
 Ez da hasarre Larrun bethi ematea.

[1] Vade zen komentu azpiko leze bat, non hil arte, behin, ematen baitzen jaterat.

[2] Clement, Xobadonen bathaioko izena da.



Ilkhi gaiten Kanborat urez mintzatzeko
Guti dukegu erran haren altxatzeko;
Omen handia badu urrungo hiritan,
Jakinsunek emana, gaitzen zebatzetan.
Beldur naiz baduela ontzekoa bizi
Hainitzen errenkura hark ixilarazi.

Erdia bizkarrean, errekan erdia,
Urhandiak deramo gainari azpia;
Gainbehera plegutik hartu du izena,
Mihiazen ezpatak murriztu duena.
Gizon larriak dio etxea bethetzen;
Haur gehienek ere dute ohoratzen.
Aiphatzea askiko bakharrrik Fagalde,
Hardoi, notari eme, aitua Delissalde,
Salagoiti erroter Ezpeletan dena.
Apez mirail bezala, buruz sendoena;
Zelhai, aphez maitea, lehen kantako,
Nola gurutzeari bulhar hedatzeko.
Ezin ahantzia da Kanboko Zalduna:
Kanta batek erraten hari darraikona:

Azantzako Zaldun hori
Herri huntan erroter,
Ez erroter, bai erorkor,
Hura andria aldian bitor.

Ikharako denboran, ahantziz Jainkoa,
Izan zuen flakeza zin egitekoa,
Eta gero segidan, andrea hartzeko,
Komedia guzien khoro azkeneko.
Etzuen hola egin Zelhai fededunak,
Hartzerat ethortzean gizon harmadunak:
Ihesari eman zen lehenik airetan,
Bainan nola gardiak baitziren orotan,
Unhatu zen ondoan, harrapatu zuten,
Eta ikusi ere herio jasaten,
Baionako hirian, hitz on zariola,

Begirik idorrenei nigar zaritela.
Emazte bat bidean, zohala hiltzerat,
Athera zitzaioen eskamiatzerat:
Egizu, zion erran, othoitz enetako;
Hori aski izan zen haren ukitzeko;
Higan zuen bizia bethi nigarretan;
Hil dela deraukate grazien bidetan.
Apez zuhurak dire Jaurretxe anaiak:
Lehenak hedas ditu liburuzko gaiak;
Egin ere prediku asko elizetan,
Khar handik zabilkala arimen bidetan.
Hardoi aphezetarik bat da xoilki bizi,
Bihotz hoberik Kanbok ez du nihoiz hazi.
Azantza izatu da, pilota botatzen,
Parerik etzuen Franzian aurkhitzen.
Bazuen arreba bat gizon iduriko,
Jakak khenduz geroztik, ona pilotako.
Hiriart, Hirigoiti, bi aphez badire,
Bata ala bertzea buruz onak dire;
Lehenak ez du eskas aphaindura baizik,
Dohain badakharkena apheztuak goizik.

[3] Benedicto hamalaugarnenak erran zion: *Dolemus quod tarde veneris*: min dugu zeren luzatu duzun.



MERKATUDUN HERRIAK

Hasparnen egiten da merkatu handia,
Erran ere diteke Laphurdin nausia;
Nondik nahi jotzen du aziendak harat;
Badohake beharra metan hautatzerat,
Ez du tokiak egin merkatu omena,
Hertsiki ikusten da jende biltzen dena;
Bainan onak baitziren bethi herritarrak,
Lehia hartu harat tratante zuhurrak.
Sinhestean herririk ez da bobego,
Jende guzia kasik ungiari dago;
Ez da jende xirxila, ergel halakoa,
Ahopaldi tzarrenez gaindia ahoa.
Sei mila arimetan sarthua delarik,
Lan liteke berexten sinheste gaberik,
Handiek erakusten bidea ungiko,
Higuinduz lehia tzar nihor trufatzeko.

Buru gabeak dire beldurtzen direnak,
Ostrikatzeko gora tzar errankisunak:
Tzarrak ez du prezatzen nihoren ungia,
Barneko ithurritik dario mihia.

Benedikatzeko da Garat Pikasarri,
Egin dituen ungiz bere herriari.
Izan du izpiritu eta khar zeruko,
Graziaren hazia lodi hedatzeko.
Kaperan ondoko du Aita Deiheralde,
Baitaki beharrentzat sosa nola galde:
Gizon saindu, khartsua, bertzen ungitzeko,
Ezdu bere burua hark urrikalduko.

Komentu oro dire segida handitan,
Ungiaren bahiak menderen mendetan:
Muthikoak *anaiek* dituzte altxatzen;
Neskatilak *serorek* luzeki arthatzen,

Eri etxea bada deus ez dutenentzat,
Jendea ekharria behar guzientzat.

Laborari etxeak joriak badire,
Zapatainak non nahi amakutzen dire;
Hainitzek herriz kanpo ontasun bilhatu,
Eta etxe ondoak ekharritz edertu.
Hirigoien anaiek beztitu herria,
Langilen gostuz eman hainitz arraizia,
Bildu badute sosa, jakindu hedatzen,
Araberan gutiek hanbat lan ibiltzen.
Jainkoak diotela, osasunarekin,
Grazia higtzeko egunak bestekin.
Dagerre, Zabaloa, español eginak,
Urrun dituzte jaten bere ontasunak;
Urreak balituzte herrirat ekhartzen,
Atsegin balukete herritar laguntzen.
Mirikuak badire aiphamen dutenak,
Mihiz bezala kaskoz ungi berreginak
Harriage, Durruti, zuen omen ona
Ingurutan izanen menden laudamena.
Donibarren Larralde hainitz da prezatzen,
Franxistegi Baionan perlatzat beiratzen.
Darthalet bi anaia aphezak badire,
Maitagarri bezala, maitatuak dire;
Aphez hobe guti da bi Darraidu baino.
Mintzatu behar bada aphezez oraino,
Hordire, Kutelarre, Hiriart, Urruti,
Garat-Lorda, Landalde, Berho, Larramendi,
Eri, saindu, aberats, izpiritu dunak,
Bakhotxari emanez zor zaizkon dohainak.
Aphez maitenak dire Errekart, Fagalde,
Aspaldion errotor direnak bi alde.
Aiphatua izan da kantaz Bordaxuri,
Bazakien ematen gatza pikoeri.
Miriku den semeak ixitzen omen du;
Herriak prezauren, deus agertzen badu.
Bakezko juie hil da gazte Sallaberri,
Ez baititake ager hobego berri:



Makhurrik gehienak zituen xuxentzen,
 Eta abokatentzat gaphoinak mehatzen.
 Ondoko jarri zaio Harriage jauna,
 Bakharra urrunean huts bethe zukena.
 Jaun aphezpikuaren sekretario da
 Franxistegi apheza, hauta nihor bada.

Uztaitzen merkatua galdetu izan zen,
 Ardietsi zutela nihor ez orroitzen.
 Hain ungi egin dute zirenak egonik,
 Etzauzkan merkatuak direnak eginik.
 Iduri du herriak zenbeit erregina,
 Ohe guri batean loriaz etzana;
 Xuritan eman dute herriko gustuek
 Eta Ameriketan bilhatu diruek.
 Toki horrek segida bethi du handia,
 Izan du lehenago hiri izaria.
 Ekharri ditu gizon urrun aiphatuak,
 Segidan dituztenak ume hautatuak:
 Garat senadoreaz mundua mintzatzen,
 Denbora gaxtoetan zuen distiatzen.
 Odola zohanean hibaie Franzian,
 Nahi zuen zuhurki eragin ungian.
 Ikusi zen gaizkia bortz urthe nausitzen,
 Sobrania guziek ez Garat ukitzen;
 Ez badu herioa jasan on bezala,
 Ezin erran gaizkia lagundu duela;
 Guziek badakite zela onetarik,
 Izpirituan ere hautatuetarik.
 Haren izena ez da Eskal-Herrietan
 Ahantziren iduriz menderen mendetan.
 Uztaitzen du semea, baldar-aphez jauna
 Jakina den bezala, bihotz hoberena.
 Lahirigoien-Garat hartu du suhitzat,
 Erakuts ditekena aberats mirailtzat;
 Hark bezala balaki higitzen dirua,
 Aberatsa liteke bethi maitatua
 Asko beharrek dute jaun hori India,
 Andre bat ere badu perla iduria.

Dassancek herriari ohore ematen,
 Premuak notalgoan zuhurki egiten,
 Nihor enganalzeko dirurik ez hartzen,
 Irabazia gatik arima ez galtzen.
 Anaia, aphezetan delarik maitena,



Izpirituz agertzen gaindi dariona;
 Fransesen erdara du erroik ikhasi,
 Parisek berak hortan guti haren nausi.
 Eskaldunen pikoa ikusten da hartan,
 Egiten du birria lainhoki bidetan;
 Bethetz eginbideak nihork bezen ungi,
 Ez du jendei egiten hartzaren arpegi.

Seskosse, Joaxuto, indiano jaunak,
 Zuen jaio tokiri bilitzez emanak,
 Beiratz urrunean haur onen amore,
 Ekharri diozue langilei labore.
 Gutti herrik izaki holako dohainik,
 Ikusteko haurretan, indiak eginik,
 Ethortzen zaizkotenak, arima beretan,
 Mirail on higatzeko sorthu lekhuetan.

Garat bat izatu da kantari ederra,
 Eskolatzen baitzuen erregina bera.
 Ezin aliantzia da Dihinx notaria;
 Buru onez dabilka duen lan handia.
 Baionan badu menta Novion maiteak,
 Mirikuntza beztitzen haren bertuteak.

Subiranek ez dute aphaltzen herria,
 Gehienek badute heiekin aria.
 Dibasson jende oro jainkotiarra da,
 Jainkoarentzat dena bertzendako bada.
 Badire bertze asko omena dutenak,
 Apez gaztetan ere nihongo maitenak:
 Delizalde formala, Deltxart pausukoa,
 Panpin iduri Bidart, Duhalde beroa,
 Dithurbide sarkorra nihor balin bada,
 Eta jelsiaren urrezko partida.
 Odol hoberenetik Darrigol ilkhia,
 Garraiatzen du izen osoki handia;
 Ez delakotz gai txarra, luze bizi bedi,
 Gauean nahi badu ez diteke geldi.

Labordez mintzatzea ahantz ez diteke,
 Egiaren etsaia beharko ninteki:
 Bada Haitzeko jendez hanbat errateko
 Non beldur bainaiz kasik eskas agertzeko.
 Oi, balitz ontasuna holako eskutan!,
 Laguntza balukete beharrek herritan.
 Handiak ez dire ez bazkari emaile,
 Zintzurari dutenak bilbatzen ogale:
 Zer irabazi duke gosea dagonak
 Ungi jaten ikusiz herritako jaunak,
 Gora eta orotan erraten dutela,
 Den gutiena zorrik nihon ez dutela?
 Behintzat nihor ez da handi egiazki,
 Ez badu sinhestea beiratzten arthoski:
 Herritako jendetan prezagarriena
 Izaten ohi bethi jainkotiarrena;
 Hura dute beharrek lehenik usnatzen,
 Ez dute nihor hala mihiek aiphatzen,
 Ilhunben etsaia da, berthuten axkide,
 Ungiaz dohanean, deus ez du guphide.
 Ikusten direnean jende haltoenak
 Arthoskien bilhatzen zeruko dohainak,
 Etzaiote emana tzarren mihieri
 Arrapo etxatzea berthute maiteri:
 Handiek dute hoben, baldin tzarkeriak
 Bazterretan baditu egiten gaundiak.
 Herritan aitzindari onak direnean,
 Gordetzen dire tzarrak urrun oihanean.
Seroren komentua Uztaizten badute;
 Arropak berri orok han hartzen dituzte;
Anaiak ere dire laster ethorriko;
 Eliza ere naski berritan basiko.
 Lopenage erroter khartsua badute;
 Eginen du ungia, traba ez bezate.
 Ilkhi gaiten Uztaiztik hainitz on erranik,
 Herri hori liteke Laphurdin maitenik:
 Damurik dituela jende jeloskorrak,
 Elkharri egortzeko bihotz min sarkorrak!



Ezpeletan aspaldi merkatua bada;
Herri hori hauzoan aski prezatzen da;
Biltzen du azienda hamabortz guzian,
Bertzerik ere saltzen hekin aitzakian.
Jende ona behar du; nihor errenkura,
Han etzaizkola joan gauzak bere gura.
Baztango bide zaio joaiten erditik,
Badu uste bezenbat irabazi hortik.

Izan da Ezpeleta bizkonde handia,
Bere zuen denboran abantzu herria;
Haren jauregia da egin apheztegi,
Ez baitzaio pedazuz argitu arpegi.
Lionel Nafarroan mareskal zelarik,
Eta Karlos errege aita zuelarik,
Anna bere alaba, maitea osoki,
Ezpeletari zuen eskondu handizki.
Erregen odoletik Jausten Ezpeleta,
Baionan aphezpiku aspaldi hil baita, (1170)
Odol horrek badirau bethi Españian,
Dakielarik ungi zer den ethorkian.

Diharassarri seme handi da agertzen,
Notalgora bezala herri ohoratzen,
Dohatu du zeruak buru hoberenaz;
Badaki ihardesten pasaiake lanaz.
Gardetako kapitain, Duvoisin jarria,
Guziek badakite zein den atzarria;
Izpirituko argi neurri gabe du,
Edozein kargutarat heltzekoa badu.
Gaitzak etsai handi du David mirikua,
Guzien arabera hainisko aitua;
Munduak badu gizon mota orotarik,
Jende xeheak guti holako aitarik.
Salbaia konbertitzen seme zaio eman,
Munduko on guzia ikusiz ariman.
Egiten da Castelper juie hautetarik,
Aithor ona dohako hauzo orotarik.

Ezpeletarrak dire Larralde prestua,
Palacio erikor, Theilary hautua,
Guziak aphez batzuk nihongo onenak,
Duvoisin bere khoro eman duketenak.
Alduden hil izan da Larrondo gazterik,
Errotor guti baita aldiz halakorik;
Iloba bidetan du aphez egiteko,
Itxuren arabera, badu gai laneko.



Sarako merkatuak guti du balio,
 Azienda guziak ihes egin dio;
 Behi bat dohanean, munduko gorena,
 Harentzat izaten da plaza gehiena;
 Besoak uztarturik, hari beira daude
 Hauzotar alfer handi, merkatu axkide.
 Etxerat ezin joan ilhundu artean,
 Egoten ohi dire zozoen elhean.
 Bainan herria baita Paristen hasia,
 Botika zaio sortzen bethi gahasia.
 Sal-erostale bada egun guzietan,
 Merkatu ahanzteko hamabortz biltzetan.
 Herri eder horri da ungi beiratzeko,
 Nola egin behar den plaza beztitzeko;
 Urthe guti duela etzuen argitzen,
 Orai da julufraitzat bederen agertzen.
 Bethitik izan ditu gizon aiphatuak,
 Graduz bezala buruz baitziren hautuak:
 Lahet aphezpikua, Labat-Juzan jakin,
 Nahiz aria guti zuen aituekin.
 Dornaletxe oraino ez da ahantzia,
 Jenden oldez laburzko izana bizia;
 Eriek dutenean ikusten halako,
 Beldurra galtzen dute kolerak hiltzeko.
 Izatu dire bi Dop, miriku handiak,
 Batek Parisen ditu egin balentriak;
 Bertzeak ehun herri itxikiz bizian,
 Guzien othoitz onak bildu hilherrian.
 Nihork ez du aditu beharra zuela
 Egundaino hertsatu, diruaz zohala
 Irabazia balu oro sar-arazi,
 Hargain izan ziteken errearen hazi;
 Haren eskasa etzen aphur bat betheren,
 Bizi ez balitzaio seme bat bederen,
 Bi egorrietarik Parisko hirirat,
 Erien solegitzen ungi ikhasterat.
 Jainkoari esker da hura gutartean,
 Ez duena aitari zorrik sendatzean.

Bertzela ere ditu eriak arintzen,
 Hekin oinhazetarat denean hurbiltzen.
 Lehen, lehen antzea du mirikuntzako,
 Bihotza ere halto herri kantatzeko.
 Dithurbide, miriku eta baldar-apez,
 Bere eginbidetan prezagarri doblez;
 Sarak guti kondatzen holako lilirik;
 Mikeleperitz duke hurbilenetarik.
 Dihursubehere bat, Mixel deitzen dena,
 Deraukat ingurutu buru hoberena
 Josteta maite badu, segitzen badaki
 Tratuko bere bide dakiena funski.
 Costes, erroitor onak hainitz du egiten,
 Arima onek ere laguntza emanen
 Neskatxen altxatzeko serorak badire,
 Herriko beharrentzat prezatzen baitire.

Aza ilharrak dire Saran aiphatuak;
 Hetaz dire egiten gorphutz hanpatuak;
 Dutenean hetarik beretzat sobera,
 Oihu egiten dute lainhoki hauzora.
 Goietzek egin ditu herrian indiak,
 Lo handian zaudela inguru guziak.
 Hiribarren Baionan zaite seinalatu;
 Eskolako bideak hark ideki ditu.
 Harismendiko jauna Detxeberri deitzen;
 Hartaz unirik baizik nihon ez aditzen.
 Ahideak baditu eskal-herrietan;
 Elkhar iduri denek omen hautuetan.

Senperen izena da Eskaraz Helbarren,
 Nahiz alderdi batek orai duen arren.
 Mila eta zazpian, Brunet Senpereko
 Gobernadorea zen Baiona hiriko;
 Handik laster saldu zen haren jauregia,
 Azkenean nausitu hartaz Urthubia;
 Bi etxek egin zuten gerlarik luzena,
 Zein behar zen agertu Laphurdin lehena.



Urthubiarrak ziren deitzen *sabel-zuri*;
Senpertain izena berritz *sabel-gorri*.
Mila sei ehun eta berroita hamekan,
Urtubiak Senpere ezarri estekan.

Senperek behar luke Saratar aria,
Hekin kontra delakotz segidan jarria;
Bainan ez du khar bera bederen tratuko,
Nahiz balio duen tontotasuneko.
Merkatua berri du; errateko zer den,
Ez diteke biltzerat egin azienden;
Tratuaren antzeak nihor gutik ditu;
Gehienek hobeko haintzurren segitu.

Ohatze ederra du bederen herriak,
Bainan etxeak oro kasik itsusiak;
Bere haran ederra nihoiz ez beztitu,
Ageri ez duela gusturik izatu.
Lurrean du aspaldi jauregi handia,
Ez behin Urthubia ehortzi nahia.
Joan da Goienetxe, koronel izana,
Hala hulako juie, baldar-aphez ona.
Hari esker da bidez Senpere dohatu,
Hark ere dio ungi oihana beiratu;
Segitzen badiote hark utzi bideri,
Senperek ez galdeko laguntza nihori.
Mende bat bizkarrean Duronea bizi,
Halako buru guti herriak du hazi;
Fabien semea du baldar-aphez jauna,
Omenik garbiena bethi dakharkena;
Ainhoan erroto du Evariste luze,
Zeruko legearen kharrez hedatzaile.
Lafitte Hendaian da erroto hingatzen,
Xedea diotela gaxtok ifrenzatzen.
Askainen da erroto Larralde semea,
Zilharra bezalako Senpertain umea,
Izpiritua zorrotx, khartsu arimentzat,
Ximentasun osoan behar guzientzat.
Urrun du haren aita hedatu omena,
Haroztegitik hartuz hazi hoberena;

Mando tratuari da luzean jarraiki;
Seme premua ere lothua da zinki;
Ez du hark odolari utzi nahi zorrik,
Ez da baliosago nihon haltzairurik.
Anaia notaria hasi da lanean,
Gaiek emanen dute laster gorenean.
Adema bi anaia dire seinalatzen;
Nahiz diren gazteak, biek distiatzen;
Batek aphez arropa dakhar ohorezki;
Miriku da bertzea, ez jarria gaizki;
Biek badute gaindiz izpiritu ona;
Idekitzen zaiote athe ederrena.
Nork ez du ezagutzen Senpertain Lixero,
Ibil ordu zuena pasaian gargoro,
Eginik Donibanen kaia ederrena,
Baionako zubia, fara Kaskoinena?
Aphezpiku bat bazen Aztarritz deithua,
Baionako kadiran mendez hingatua;
Aztarritz jauregia, Askain inguruan,
Harena zela dute zenbeitek buruan.

Belhaun muilo handia Senpertain deitzen
Ordu luke gargoro hasteko aphaintzen;
Behar luke herriak arras aberastu,
Ethorki handienak oihanez baditu.
Badituzte *serorak* neskaten oneko;
Hori da eskaler bat, bertzea beharko:
Herrian baditeke urririk eskola,
Antolatze hoberen gauza berehala;
Ethor ditezke gero denbora gaxtoak
Irets detzaketenak herrien gozoak.



Urriñan ere bada merkatu tokia,
 Ez baitu nola plazak edertzen herria.
 Beharrik ez du hortik nahi irabazi,
 Eta du bere landan aski biltzen hazi!
 Bihiz nausi ahal da inguru guzian,
 Lur onak ditu eta bethi ongarrian;
 Nausi deitzen dituzte Senpere egurrez,
 Urrina artho bihiz, eta Haspar urrez.
 Urriñak badu haitza, ez eskas harria,
 Kisugai ala biden antolagarria.
 Eliza ere badu ederra osoki.
 Aldean zenbeit etxe jarriak xuriki;
 Nola panttupan baita sartze bidetarik,
 Harat heltzeak ez du begiko parerik.
 Herri horri dohako kanpotar biltzea,
 Nihon ez ederrago begi hedatzea,
 Biltzar tokitzat ere iduriz lehena,
 Eskaldun gutiziei arraiki dagona.
 Jaunak ere baditu arras Eskaldunak;
 Iragan aiten premu ager ditezkenak;
 Ikustekoak dire ohoren egiten,
 Atzeko jendeari aisia ematen.
 Jende hoberena da hango populua,
 Lumako ere badu seme bat hautua
 Goietxen alegiek buru seinalatzen,
 Damurik ez direla perla hoik prezatzen!
 Eskalduna ez balitz den bezen gibela,
 Hetan den gatza luke bilduren bertzela.
 Brat ere gizon handi Baionan agertu,
 Haren eskolak luze ungi distiatu;
 Mihirik ederrenaz garai solaseko,
 Lagun beza Jainkoa, ondena bethiko.
 Askaingo errotora, Larramendi zena
 Gazi zen izpirituz, biziz hertsiena.
 Buru on athera da Paulo Etxeberri,
 Hainitzen antzea du hark ilhun ezarri;
 Benoit Dorbe ere agertzen gizona,
 Gora duela segi bizi zuhurrena.

Eiheraburuk badu burua asmuko;
 Jacques Dorbek mihia guzien gaineko.
 Erlande Goienetxek jakin du egiten
 Ontasun dioena urrea ematen;
 Askaingo odoletik da hura sorthua,
 Bihotzik hoberenaz ere dohatua;
 Jainkoak beza argiz ingura bidetan,
 Ez dezan nihoiz izan arima penetan.
 Laurenzena, Doihenart, Etxeberri semek,
 Ez dituzte ithotzen eraginak amek;
 Bihotzez aberatsak, mirailak ungiko,
 Ez da errenkurarik hekien kontrako.
 Otologarai ere da gizon hautua,
 Gutí mintzatu gatik, hoberen burua.

Urriñaren izenak dio *ur egina*,
Urde hartu *bidea* Urthubia barna,
 Orai ere handik du bere ixuria,
 Bethikotz egin zuen noizbaiko pesia.
 Laphurdiko jauregi nausi Urthubia,
 Herri ederrenari dohakon lilia.
 Mende hamabikoan etxe hori bazen;
 Handik ehun urthetan, horko semea zen
 Segitzaile Franzian, Karlos bigarrenak,
 Nafarroan errege aira zituenak,
 Egorri zuen haurra Infante zelarik,
 Kanpoen ikusteko, ikhas xedek jorik.
 Hamabortz ehun eta hamalau urthetan,
 Urthubia Laphurdin bailiren dretxotan.
 Baionak izen horri zor handi badio,
 Akhabo zen etsaia hartu ez balio:
 Hama sei ehun eta berrogoita hiru,
 Urthe orroitzekoa Baiona inguru;
 Mantilla deitzen zuten jaun bat Española
 Zenbeit urthe bazuen Donibanen zela.
 Nihork etzuen jakin zertarik zen bizi:
 Baiona nahi zuen aldiz harrarazi;
 Bideak bazakitzan hirian sartzeko,
 Españolaiei errana erne egoteko,



Noiz ere Urthubiak, bilduz gazteria,
Ezeztatu baitzuen traidorekeria.

Urthubiako seme, lehenik sorthua,
Harta izatu da Bizkonde deithua;
Ez dago izen hori baten odolari,
Bainan etxe hortako edozein premuri.
Urthubiak izan du ohore mendetan,
Nihoiz bezen gora da egun berrietan;
Etziteken bethea jende hobeagoz,
Herriari guziak bihotz onez dagoz.
Errege iduriko aita zuhurrenak
Altxatzen ditu haurrik nihongo maitenak:
Baldar-aphez bezala, seme bat nahia
Seinalatzen ikusi bere sor tokia;
Premuak Baionan du gazte distiatzen,
Justiziaren gider delarik agertzen;
Arreba Baionako baldar-aphezari
Ezkontzaz joan zaio berthutezko sari
Izpiritu bezala gauzen ikusteko,
Lehen bihotza dute ungi hedatzeko;
Etziteken esteka pare finagorik,
Nola ez izpiritu gazituagorik.
Urriñarra da Petit, oraino gaztea,
Halere jadaneko ororen lorea:
Guzietan diote goraki aithorra
Mih gutik dutela hain dohain ederra.

Lo bezala egon da Urriña hazkartzen,
Haren umeak orai hasi iratzartzen
Benedikatzeko da d'Abbadie jauna
Laphurdiko jendea mugitu duena.
Urriña bazterrean hautatuz egoitza,
Hedatzen du herrian eskas zen ihintza;
Hark du abiarazi berritan pilota,
Mendez mende Eskaldun gurako josteta;
Eskara ere luke nahi begiratu,
Erdara zaionean abantzu nausitu.
Eskaldunek ez dute axkide hoberik,

Izaria eman du untza horitarik:
Bakhotxa nahi luke, eskal-herrietan,
Beiratu ibiltzetik ametsen bidetan;
Mundu guzia kasik duela ikusi,
Etzaio baduela Eskaldunak nausi.
Ez da bere onetan hari ferekatzen,
Ez duenaz geroztik deusere galdetzen:
Hark nahi lukena da berak egotea,
Jakirik bertzetako jenden agortea.

Etzaiote guziei jakitate eman,
Bainan oro balire Eskaldun ariman,
Gure jaunek lukete, lagunduz jaun hori,
Bertzela distiaraz Eskal herriari:
Nor nahiren den moltsa arin da sobera,
Hedatzeko bakharrik urrezko berdura.

Jaun hori aiphatzen dut Laphurdin delakotz,
Eta egiak ere nahi duelakotz
Ondoan jakitea, nola Eskalduna
Maitatu izan duen, guziz guxiena.
Ohore Eskaldunek horren axkidantza,
Erregekin badauka letrazko hizkuntza:
Badaki Laphurtarrak denaren prezatzen,
Bere lili bezala dio begiratzen.



Donibane merkatu badabil doblezka,
 Ez baita ingurutan prezatzen erdizka;
 Baionaz kanpo, hiri hori da bakharra
 Altxa dukena buru edozeinez gora.
 Ortziraletan dio abreak ematen,
 Asko tratu duela heiekin egiten.
 Astearteak dire bertze gauzetako,
 Oihal, bihi, janari, eskuz aldatzeko.
 Eskaldun pikaintzat Donibane bego,
 Ez diteke jendea nihon maiteago;
 Haren haurrak maiz badu haintz izpiritu;
 Leheneko aisiak damurik ez ditu!

Hameka ehun eta hiru hogoietan,
 Baionako eliza zelarik hastetan,
 Donibane dretxoak Baionesei eman,
 Gorphutzean bezala, orobat ariman.
 Hiru ehun bat urthe etzen iraganik,
 Ikusi zirenean, goseak emanik,
 Urthubia, Bonihort, Senpere berekin,
 Dretxo hoik bildu nahiz ausartziarekin.

Donibaneri eman Louis bigarrenak
 Dretxo berreginduak Franzisko lehenak.
 Hamar urtheren eskas mende hama seia,
 Donibane khentzean Baiones nausia.
 Handik laster zituen, Re [1] sokhorritzeko,
 Hamabortz bat piñaza egorri arinsko.
 Berrogoita bi urthe eskasean zela
 Hamaseiko mendea, sarthu Española
 Donibane hirian, errabiarekin,
 Eta utzi lurrean, urruntzearekin.
 Hamasei ehun eta hiru hogoiean,
 Hamalagarren Louis zen Mokoenean,
 Ethorria Paristik, andrea hartzeko,
 Besta izanen dena ezin ahantzizko:
 Baiona izatu zen zaldien tokia;
 Geroztik Donibane da Paris ttikia!

Izan ditu mendetan bere gorapenak,
 Biltzea berritz ere etsi ez duzkenak;
 Haur haintzek diote urrun distiatu,
 Itsasotan lehenak oraino baditu,
 Franzisko bandera ohoratu dute,
 Odol gorritz loreak egin diotzate.
 Ez daude ahantzirik Bake, Dalbarade,
 Bardoa, Dornaldeg, Hiriart, Latsalde,
 Dolhabarratz, Manescau, Noges bi anaiak.
 Lizariturri, Berro, Berindoa biak,
 Joan direnak eta oraino direnak,
 Amiral eta maxtru, hautatu izanak.

Saint-Martin ezagun da zaŕpi mende huntan
 Ohore dakharkela jende lehenetan.
 Lerenburu izan da Parisat joana,
 Laphurtarrek ikusiz mihi hoberena;
 Xederik haltoenek ez dute lagundu,
 Bertze askok bezala ginuna izandu.
 Negozioan dire ungi atheratzen
 Izen segidan hemen zaiztanak ethortzen:
 Ribet, Dufour, Lissardi, Hiribarren, Luquo;
 Hoikin kontra deus guti nihork adituko.
 Dargañaratz, Labaste, Maxet mintzaria,
 Hiriari dohazko nolatsu lilia.
 Ez aipha Pistres, Garat, Harrietar jaunak,
 Non nahi bereziren litezken gizonak.
 Azken oreneraino, Labrouxek izan du
 Herriko ohorea, nihork izan badu.
 Utzi ditu bi seme segida handitan,
 Izpiritua lagun bere graduetan.
 Gizon zuzenak ziren Dornaldeg, bia,
 Legetako zutenak lehia guzia;
 Notalgoan hil dire oroiz maitatuak;
 Arraro heldu dire hain gizon hautuak.
 Daskonagerre ez da herrian egotu,
 Bastidan du notalgo bidea hautatu.
 Xori errexinola diruri mintzatzen,
 Arraizia badaki zer den baliatzen.



Lissardi bi aphezak dire mintzariak;
 Bata ala bertzea urrezko mihiak.
 Ez diote batere Mendiondok zorrik;
 Nahi bada mintzatu xahar ahantzirik.
 Goienetxe berritan egin da alkate,
 Guziek haren xedei aithor on diote.
 Laguntzeko baditu Dathané, Lissardi,
 Diruz bezala kaskoz zimenduak lodi.
 Goienetxe semea bada mirikua,
 Gizon eder bezala, gaitz etsai hautua;
 Payes eta Ducosek pilota gustatzen,
 Ez hortako deusere balorean galtzen.

Mainhotako heldeak duela segitzen,
 Donibane hasiren burua altxatzen:
 Jende on, toki hauta, guziak baditu,
 Edozeinek luzean prezatzen baititu.
 Neskatek badituzte eskolan *serorak*;
 Ez dire ahantziak muthilen beharrak:
 Hiru *Marista* berrik dituzte argitzen,
 Jakitatean eta ungiaren gidatzen.
 Dumas egon da luze kargaren azpian,
 Laudamenak baditu inguru guzian.

Getharia, Bidarten, aire onak datza,
 Lakhetzen berehala hetako arrotza.
 Bihotza hango jendek arras eskukoa,
 Damurik gazteria dela arinskoa.
 Bidarten sorthua zen Sallaberri joana,
 Untzitako kapitain atrebituena;
 Haren haurrak badire haltzairuz eginak,
 Herri guziko lore ager ditezkenak.
 Bidarten alkate da Baskari handia,
 Aspaldiko langilen urre ithurria;
 Jostatu balin bada, maitatu du lana,
 Beharrean jakin du uzten lo minena.
 Harispe du laguna herri gidatzeko,
 Hainitz on ere dena bertze askotako.
 Itxainak eta Xailak egin ontasunak,
 Laborantzari eman bide hoberenak:
 Galtzen bada bidea, izanen elgeak,
 Gaınditzen dituenak bazkailu ferdeak.
 Erretegiak duke lurrekin distia;
 Ganikotzek harrian egiten India.

Getharian zen sorthu Saint-Martin maitea,
 Itsasoko bidetan kapitain trebea;
 Berak egin untzitan kurrirituz bazterrak,
 Bildu zituen lodi urrezko tresorak.
 Izpirituz etzuen inguru parerik,
 Etzaikioken eman egiaz baiarik;
 Bazakien iholdez beldur ostrikatzen,
 Nola lurreko biden xuxenki segitzen.
 Urriñako Palenket zuen axkidea,
 Batek ala bertzeak burua berea.
 Terroreko denborak Saint-Martin hertsatu,
 Paper tzar truk zioten urrea beretu.
 Soia aphezak ere burua ona du,
 Arimen salbatzeko khar handia badu.
 Aspaldi baldar-aphez Dibarburu jauna,
 Getharia guziak maitatzen duena.
 Duzinage, Duhalde, eta Haranxipi,



Franseseko lilitzat, Gethariak aski.
 Nihon guti etxerik hain xuriki denik,
 Nahiz orok kanpoa duten ederrenik.
 Bizitzeko duena hetarat dohala,
 Nihon ez da hobeki izaten odola.
 Herri horren oihana haitz batek beztitzen,
 Lurren erraiak laster beroek ukitzen;
 Itsasoan du bazka jende gehienak,
 Ez ematen aspaldi lehengo arrainak.

Hiru mende baditu, lau urthe gainetik,
 Ziburu hasi zela agertzen *zubitik*.
 Bideaz kanpo dute berritan ezarri,
 Erraiak erakutsiz herio kolperi.
 Bordagaingo paretan, Jopen iduriko,
 Bihotz ona behar du bizi egoteko.
 Franxex Larraldeko dio, behar orenetan
 Eskola toki eman sorthu den geletan;
 Eta herriko seme, bi jaun aphez dire,
 Bihotzik hoberenen jabeak baitire,
 Eskola nausi jarri, arren eta haurrak,
 Orotan gehienik arthatu beharrak,
 Etziten itsu geldi, eskeko bidean,
 Ez jakinez norat jo biziko mendean.
 Hartako laudagarri Hiriart, Larregui,
 Nahiak herriari erakutsi ungi.
 Deus ez dela Ziburun inguru erraten,
 Halere etxe berri *serorei* egiten;
 Jendeak baduela bihotza ageri,
 Erromesiaz gora hartzean iduri.
 Diru gabe deus ez du egin Paristarrak,
 Etzituen eginen Ziburuko obrak.
 Nahi badu norbaitek egiaz ungia,
 Hor izanen Ziburu, lekhuko handia,
 Egin ditekeiela egiten ez denik,
 Nahiz nihork ez duen utziaz hobenik.
 Arraina baizik ez du jendeak jakiko,
 Dena ere aspaldi errebes biltzeko.
 Beharra badakite oinekin zapatzen.
 Agorteak ez ditu beihala izitzen.
 Behar dute guziek bihotz arraroa,
 Herri gutik lukete hek bezalakoa.
 Hekin lagun direnak agertzen goraki,
 Ezbetza kanta tzarrak gorderaz huzkurki.
 Ungiak buruan du Basterretxe jauna,
 Bizitari ohore egiten duena.
 Bikario-jeneral Baionan jarria,
 Haranburu da izar bethi ageria;



Ez ditu gastaturen zeruko dohainak
 Hautatuz kasik oro bildu dituenak:
 Majestatearekin mihiko grazia,
 Eta jakitatea guzien garaia.
 Urriñan bikario, Chantre da ernea,
 Gutiek izpiritu dukete hobea.
 Aspaldi baldar-aphez bizi Haraneder,
 Behar zaiona ungi herriari eder,
 Ikustean emana hehar laguntzerat
 Eta sorraraztaile ura ithurrirat.
 Sopite, Mitxelena Ziburutar ziren,
 Beldur naiz orai ere halako badiren:
 Larrea, Hiribarren, bertze zenbeitekin,
 Eman ditezke gora itsas lehoinekin.
 Dardanburu semea ez da itsasoko,
 Bainan balio ditu guziak lurreko.
 Gai ederra heldu da Duhut atzarria
 Liliak bezala du beztiren herria.

Mainho tokia bada hoberenetarik,
 Paris egin diteke etxe berriturik.
 Bordagain beztitzen du beltzez kasta-gotak
 Alariken tropetan zituena aitak:
 Gutu bada nahasi herriko jendekin,
 Menta handiak ditu utzi maxtruekin.

Hendaia hitsik dago itsas bazterrean,
Intha ya egin hurren bere beharrean,
 Etxen erdiak aise lurrerat dohazko,
 Nahiz ez duten eskas pedaxutzat trunko
 Izan ditu gizonak lehen haginekin
 Bakailau ekhartzeko herritar semekin:
 Darburu, Garat eta bertze asko ere
 Zeinen izenak bethi aiphatzen baitire.
 Han dute Angelesek etsai handiena,
 Hekin izenak berak errotzen duena,
 Pelot, ez diotena nihoiz egin agur,
 Eta ez dena nihoiz izan hekin beldur.
 Itsasoz ohitua hekin arrobatzen
 Korsuko untzietan zenean ibiltzen,
 Zamariak lurrean bildu diotzate,
 Herrian bera zela agertzen alkate.
 Halakoa egin du hekien higuintzak
 Non ez baituke geldi nihoren othoitzak
 Erratetik orotan, gauza eder dela
 Ixurtzea non nahi Angeles odola;
 Josteta, padaretan hekin biluztea,
 Eta athorra gabe, bidetan uztea:
 Haren mintzoa bada orai estranio,
 Haren lanek Korsuan hainisko balio.
 Maximilien Hapet, gizon haltzairuzko;
 Amerikatik landa egin da herriko.
 Berritan kanpora da Durruti apheza,
 Eragiteko bidez hitza eta Meza.

Aitoren semena da Irandaitz ederra,
 Menderen mende bethi nausi on beharra.
 Bi urthen eskasean mende hamaseia,
 Hastean Elizaren lehen harrasia;
 Geroztik edertu da, eta aberastu,
 Herria gisa ez da biluzi gelditu:
 Utzi dio khoroa Othatzko semeak,
 Hil orenean hartuz kutxatik urreak.



Behobia hasi da egiten hiria,
 Etxe guzia kasik agertzen berria,
 Hirrisku ere badu berri egoteko,
 Jendea zaiolakotz maiz ganbiatuko.
 Barnetxen jende ona delarik berexten,
 Etxe zahar guti da *bide* hortan kausten.
 Gutik ere denboran zuten asmatuko
 Herririk toki hortan zela agertuko.
 Garda, soldadu eta jandarmez du gaindi;
 Hoiekin Eskaldunak maiz egiten handi.

Biriatuk, jarria harrokaren puntan,
 Izena har zezaken *bide harriskotan*.
 Nahiz herrixka bat den, badu bizitzeko,
 Eta asko herriri trufa egiteko;
 Frantzia, Espainiak diote ematen
 Arraroki bertzetan dutena ikusten:
 Artho, ogi, egurra, baieta arnoa,
 Zahatoz ekharria on eta gozoa;
 Etxe guziak dire aisian agertzen,
 Ontasun hoberenak dituzte gainditzen.
 Bonihortek ethorki du infanzonetan,
 Aiphatua izan da mende zaharretan.
 Aitoren seme zuten infanzonek nausi,
 Gerletan etzuketean heieri ihesi.



Ainhoan aurkhitzen da jainerik maitena,
 Bethidanik izan du omen garbiena,
 Pilota jokotarat gaztek gura dute,
 Josteta zilharrago hauta ez dukete.
 Hango haurretarik da Mazondo apheza,
 Haur rnaiteagok ez du nihoiz eman Meza,
 Izpiritu bezenbat badu modestia,
 Berthute bazterretan sobra ahantzia.
 Hiriart gardetan da gora aitzindari,
 Etziteken kargua eman hobeari,
 Herriko odola du bethi garraiatzen,
 Haltzairuak diotza xedeak bezitzen;
 Izan da Peroxegi, kapitain hautua,
 Nafarroan erregek berekin lothua;
 Etzen xoilki jakina gerlako lanetan,
 Bazuen jakitate zahar eginetan;
 Bekaz da alkatetan nihongo maitena,
 Eta Mazondo haren lagun hautuena.

Suraiden izan dire zenbeit pilotari,
 Ez dago ahantzirik hangotar Betiri.
 Herri horrek, Ahetzek, bai eta Arbonak,
 Izen berak dituzte haitzetik emanak;
 Hiruetan jendea bardintsu da ona,
 Ez da karzelako on hetako tzarrena.
 Bastres aphezak dire Arbonan sorthuak,
 Zorrotzenak dituzte hoik izpirituak;
 Hiriburun errotoz bizitzen lehena,
 Theologal bezala buru hoberena.
 Diharzek Ahetxerat biltzen du mundua,
 Edozein gaitzek daukan jende izitua;
 Berthuteak baditu, edo sendatzeko,
 Edo bederen, gogo ona emateko.
 Senperen bikario Kanderatz bizitzen.
 Bihotzik hoberenak duela dohatzen.
 Arbonako da Duhart barber maitatua;
 Amerikan Aldabek bazuen burua.



Gazteluko jendeak Arkangos handitzen,
Nahiz den aspaldion bertzetan higatzen.
Agertzeko du Larre, haur bat hautatua,
Ez ethorkia gatik xoilki maitatua.

Basusarrin da Adar, gizon maitagarri,
Zorrik ez dukeiena burutan nihori:
Damurik dela urrun gaztean higatu,
Baliatu diote bertzek izpiritu.



Higan gaiten aphur bat mendi alderdirat,
 Itsatsuko jendeaz zerbeit erraterat.
 Ungi du Eskaldunak deitu itsasoa,
 Osoki hala dena, bai *ihintz osoa*.
 Itsatsu ez da arras itsaso bezala,
 Bainan itxura badu delakotz itzala.
 Ez dakit non othe den jende hobeago,
 Patriarken pareko, bethi bera dago.
 Izpiritu ernea dakharke haurretan,
 Eskolatu direnak nausitzen orotan;
 Orkazberro, Barnetxe, Halti, Dorkazberro,
 Errex hoitaz egiten burudunen lerro;
 Segurak izan dire gizon hautatuak,
 Herrian gisa urrun gora beiratuak;
 Urtsinaitz Hiribarren eta haren haurrak
 Ez dire heinekotan izpiritu txarrak.

Baditu herri horrek gasnak mendietan,
 Preza letzaketenak Parisen bestetan;
 Gerezia ere da Baionan hautatzen,
 Lur eta mendi urak hoberen aiphatzen.
 Itsatsuk ikusi du bere haurretarik
 Oin erretzerat uzten, erran gabetarik,
 Non ziren *terrorean* baso sakratuak,
 Fededunen artheekin, lurpez gordetuak:
 Gurutze, khalitz eta iguzki saildua,
 Urrezko trinitate dohain izatua,
 Herritarrek dituzte handizki prezatzen;
 Hoikien beiratzeko martira egin zen.
 Ederrak badituzte baso sakratuak,
 Jasan luzke Elizak langilen erkuak.

Aphez eta kapitain Larrondo badire,
 Bata ala bertzea herriak ohore,
 Errentek egin dute hekin ontasuna;
 Eman bezate luze herriari ona.
 Itsasuar muthilak dire baliosak,
 Ez ditu mugituren ergelen solasak.

Semenarioak du Larresoro beztia,
 Hari dio zor baldin joan bada goiti.
 Eman ditu mundurat gizon hautuenak,
 Nor nahin begitarat ager zitezkenak.
 Dagerre theologal aiphatu izan da;
 Haren kharreko aphez guti beharbada;
 Semenarion zen jarri aitzindari,
 Estalki ematean doian etxeari.
 Orai edertu bada, etzen bethi hola,
 Dagerrek emana du gorde zaion zola.
 Hari esker hainitzek erran dute Meza,
 Hura gatik egin da ausarki apheza.
 Aphezgai gehienak han dire aphaintzen,
 Nausi onek dituzte eskolan argitzen.
 Etxe batek izandu luze aphez berri,
 Izena zakharketen denek Etxeberri;
 Segidakoak dire Hiriart, Dithurri,
 Dithurbide, hoik orok prestuak iduri.
 Harriet theilaina egin zen notari,
 Antzea ezagutuz bere buruari,
 Eta frogatu du Eskalduna zela,
 Bihotz guziaz ere gorphutzez bezala,
 Liburu bat egin hitzen bilhatzeko,
 Ez jakitean batek zer ziren mihiko.
 Diessen jauregia bada herri hortan,
 Bera ere han dago zaion denboretan;
 Suhizat hautatu du Uztaizko semea,
 Dohainik hoberenen urrezko bermea.
 Adrien semea da haltzairuzko dena,
 Gutik dute hobeki maite Eskalduna,
 Hartako du herrian axkide ausarki,
 Ez diteke holako nihoiz maite aski.
 Etxegoien Baionan hainitz da prezatzen,
 Badaki hark goizdanik legeak biphiltzen,
 Ez diteke goibela ethorki harena,
 Duellakotz burua guziz hoberena.



Guziek badakite direla bardintsu,
 Uztaizti paratuak, Haltsu eta Jatsu.
 Jauregiki bat bada Haltsu inguruan,
 Adin handi duena zaharren kontuan,
 Haitzeko odola zen han premu izana,
 Errepikatu dute mihiek izena.
 Andrea galdu zuen, zubi eskasean,
 Bertzalderat zohala xalanta batean (1506).
 Haren ontasunetik egin zen kapera,
 Gero duena hartu Eliza itxura,
 Han da bizi aspaldi aphez bat hautua,
 Nahi bada ikusi zaharren bultua:
 Etxegoien deithura zaio ezagutzen,
 Bizkarreko mendeak guti du izitzen,
 Aphexkak zaizko hari oraiko gazteak,
 Flakoxko badituzte zintzurren atheak.
 Haltsuko zen Harriet juie ohorezko,
 Utzi duena ume bera iduriko:
 Aphez arropa dute biek garraiatzen,
 Izpiritu dutela guziek aihortzen.
 Ezin ukhatua da, badute mihia
 Urrezkoa duena hitzezko jaria;
 Bat eskola gidari Baionan higatzen,
 Omenik ederrenak duela beztitzen;
 Semenarion da bigarrena nausi,
 Bere hegaletako guti du ikusi,
 Hainitz gauzaz burua bethe du gazterik,
 Ene ustez guti du bere parekorik,
 Jainkoak eman dio gaindiz izpiritu,
 Laguntzen ere berak dohainak baditu,
 Gose da liburuen, ez huzkur laneko,
 Nahi edo ez jakin behar da holako.
 Etxart aphezak ere behar du agertu,
 Ez ditu gordetzeko dohainak izatu,
 Jainkoak eman dio izpiritu ona,
 Bere kharraz luzeki lagundu duena.
 Guti dakit nik hemen Jatsuz errateko,
 Izan dezakelarik gaia bertzendako.

Salbatoreko beilak aiphatuak dire,
 Laudagarri litezke garbiak balire;
 Bainan hainitzek uste goibelsko direla
 Eta ilhunben lana hedatzen dutela.
 Indiano bat bada berritan jausia,
 Ezar duke herria guzien nausia,
 Nahi badu obratu, izan arabera;
 Ez diteke hobeki aurkhi ere bera,
 Guziez maitatua higanen egunak,
 Sobera nahasiak zahartzeko grinak.



Errepintako ona Luhuso herria,
 Ematen du berritan trenxoinezko gaia;
 Hango seme hautatu Diharze anaiak,
 Ez dituzte ekhartzen basazko erraiak;
 Aphez da bat hetarik, buruz hoberena,
 Jakitate zuhurraz dohatua dena,
 Latina eta Greka, bere arantzekin,
 Erakusten hari da bertze askorekin;
 Bat itsasoz dabila diru nahiz bildu;
 Bertzelako bidea Gorriak hartu du.

Makaia, Gerezieta eta Mendiondo,
 Ursuian dutelarik zangoentzat hondo,
 Agertzen dire arrai ontasun guritan,
 Zahar kondatuz Garro aitoren semetan.
 Hiru hogoita hamar urthe zituzkeien
 Mende hamekakoak, iduri guzien,
 Noiz ere Garrokoak baitziren ageri,
 Ohore ziotela handiz Laphurdiri.
 Gerezieta da Noges notaria,
 Bihotzez ona eta elheketaria.
 Mendiondon da sorthu, dohain egunean,
 Mende hau zitekela bere hamarrean,
 Hiriart, aphez saildu, egin zeruko,
 Bizia predikatzen higatu orduko,
 Makaiarrak: Bidegain, erroter zaharra,
 Erakutsia luze arimentzat kharra;
 Berho, aphez orotan prezatze dena,
 Lanari behin ere ihestu ez dena;
 David Hiriart seme, berant apheztua,
 Legez eta eskaraz ezin ixildua;
 Etxepare zuhurra, theologal hauta,
 Eta Hegi, erroter gozoena baita.
 Lekhuineko dire Kornu gustuduna,
 Eta Poxelu gazte, buruz hoberena;
 Bi jaun aphez horiek, ungi egiteko,
 Ez dute eskas bihotz, agor dena maizko.



Frankezak izan ditu lehen Billafrankak;
 Izenari darraizko oraino marrakak.
 Horko aphezak dire lauetarat heltzen;
 Dolhatz, Larre, Castagnet, Saint-Martin hek deitzen;
 Guziek badituzte dohain bereziak,
 Probetxuz hedatzeko zeruko graziak;
 Azkenak bereziki gai oro baditu,
 Amarru sobratuaz, gastatzen ez baitu.
 Makhilari aiphatu soberak badire;
 Eskaldunen kolpeak higuigarri dire:
 Atzeman dute gatza herri dohatsuan;
 Gaizkiaren ustela gazi haren suan.
 Jauregian d'Arkangos guziek agurtzen,
 Hartakoa ere da berthutez agertzen.
 Semeak ere ditu nihongo maitenak,
 Ezbaititu zoratzen urrezko izanak.

Osaba Hiriburun dute erregea,
 Bihotzeko dohainez parerik gabea;
 Hurbil Lahirigoien, Amand izeneko,
 Eskaldun izenari ez diona ukho.
 Hoikin eginbideak dire prezagarri,
 Bortz esku kolpe dute eman behareri,
 Dirudunak ez daki egiten hobeki,
 Hala hala herriak hoik maite handizki.
 Hamabi ehun eta berrogoita hamar
 Jesusen ethortzeak zituzkeien behar,
 Non d'Arkangos Arbelak detxima Urdainzko,
 Bilhakatu baitzuen aldiz Baionako.
 Geroztik izen hori da ezagutua
 Eta ere herriko lehen beiratua.
 Belzunzen jendeak du bakharrik ixitu,
 Hameka ehunetik loreak baditu,
 Ariak bazituen Grammont handiekin,
 Baita Nafarroako errege biekin.
 Henry laugarrenaren bat izan da nausi,
 Ostenden gerlan hiltzen bertze bat ikusi,
 Belzunze San Domingon gobernadoreak
 Erakutsi zituen lan paregabeak,
 Hiriburu guziko detxima bazuten,
 Heren segea batek zeren hil zioten.



Mugerren bada jende asko gisetarik
 Bainan buruzagiak dire hautetarik.
 Jauregian badute non har aire ona,
 Garraiatzen du bethi jende hoberena.
 Bihotza gora dakhar Fagalde eriak,
 Damurik barneak ez kanpo iduriak!
 Hainitzek badituzte hain eder itxurak,
 Ezin sinhets baitezke hekin errenkurak:
 Ez dire hortarakotz gutiago eri,
 Gaitzak jazartzen dio nahi duenari.

Aspaldi zen Lahonze bizi Abbadia (1163),
 Hasteko Bizkonde bat izan zen nausia.
 Hazi onaz geroztik Jainkoak dohatu,
 Lili bat nahi diot bakharrrik agertu:
 Darrigol, Eskaldunen buru zuhurrena,
 Eta errexki ere guziz jakinena.
 Ez balu hark bizia higatu laburzki,
 Aphezpikuturen zen bertutez zuzenki;
 Halere izena du aski seinalatu,
 Akademiak zuen behin khoroatu,
 Frogatu zuelakotz jakin guzieren
 Eskarak ez duela zorrik erdareri.

Lehonztarrei da ungi kontu ematea,
 Ez dezaten sobra har hiriko heldea:
 Izurri duenari hatsaren meneko
 Ondorioa laster zaio agertuko.



Bezkoitz dena basa zen izena hartzean,
 Lotzen zela ageri petral garbitzean;
 Beharrik Jainkoak du hau gatza ezarri
 Eta haren segidan harria egorri!
 Horko zen Lizarraga, gizon argitua,
 Bainan Kalbinen hitzaz sobera hartua,
 Eskaraz eman baitu Testament Berria,
 Aspaldiko delakotz xoilki ikusia.
 Hil dire Hirigoien, aphez bat hautua,
 Darrigolen denboran Paben aiphatua,
 Hanbat beharren aita, Karteron barbera;
 Delizalde urrea, Goienetxe bera
 Gobernuko sos biltzen enplegu zuena
 Eta hanbat askidek bilhatzen zutena.
 Baionan da Karteron, askide arraia,
 Lilitan pulitena, herri beztigaia,
 Graduan kalonddea, xorrotx izpirituz,
 Bisaia moldatua aingeruen tretuz.
 Herrian maite dute ezin gehiago,
 Bainan ere ordainez herriari dago;
 Horko dire Durruti eta Etxeberri
 Dohaturen dutenak non nahiko herri.
 Durizburu joan da salbaien ondotik
 Aita-amak hain maite zituen tokitik,
 Urrun bilhatzen ditu zeruko pikainak,
 Dohatsu aita-ama umetzat dutenak!

Urketak gaxtoago den baino omena,
 Jende arinik badu, xirikari dena,
 Bainan ere etxeak baditu mirailak,
 Ezbaititu baxatzen alaba ergelak.
 Han jaio dire Suhi, aitoren semeak,
 Nor nahik prezagarri Eskaldun umeak.
 Gatza bada herrian, gatzak izpiritu
 Gutirentzat diruri duela gazitu.



Laphurdi bazterrean, iphar alderditik,
 Bardoitz mendixken puntan, errekek artetik,
 Ikusten da airean bere lur mehekin,
 Etxeak dttuela xuri gusturekin.
 Hango laborariak lur hainitz antzea,
 Izerdi hainitzekin maite du biltzea,
 Ontasun zabaletan, bihi hainitz guti,
 Hartako gehienak dohazi behiti.
 Ez bazaio onkailu ematen lurrari,
 Gutu saristatzen du golde sakhailari;
 Hobe da gizentzea bi golde ongarriz
 Ezen ez bustitzea hogoi bat izerdiz.
 Herri guti inguru hanbat lur duenik,
 Ez da ere etxerik hobeki eginik,
 Laborantza denean errotik ikhasten,
 Hasiko da jendea aisian ematen.
 Arnoa ez da eskas, ageri bestetan
 Gizonek dakharzketen mihi motheletan,
 Ez da nihon bertzenaz jende onagorik,
 Erran ahal diteke bat ez dela tzarrrik.
 Salhako jauregiak izan du omena,
 Aitoren semetarik zuen hastapena
 Salha lehenik, gero Lalande nausia;
 Ader jaunaz berritan izan eresia.
 Hainitz urre egorriz, eman du bestetan
 Parerik ez duela urrun ingurutan:
 Damurik ez da bera han bethi egoten,
 Langilek begitarte diote egiten,
 Ez lukete hainitzek hark duen gustua
 Lurreko zeru baten uzteko hustua,
 Herriaren erdian, baratze lilitan,
 Errexinola kantaz ehun itzaletan.
 Bardoiztar Bidaxunek bakezko juiea,
 Gizon argitu bezen xedetan maitea:
 Hastean Dabbadie jarri legetako,
 Gai oro bazituen gora higateko.
 Nahiago izan du, herriko airean,
 Arantzetarik urrun, higatu bakean.

Osaba Hasparrenen badu notalgoan,
 Zuzenki dabilana guzien ahoan.
 Ez da ahantzi behar Haranburu jauna,
 Zuzen eta nobleki juiatzen duena:
 Holakoek ez dute kargua mendratzen,
 Donibaneke badaki nola den beiratzen.
 Biamondeiko jauna legetiarra da,
 Haren anaia ere mirikua bada,
 Xaharnean sorthuak ez daude herrian,
 Nahiz ez ohituak erdaldun hirian,
 Damestoi izena dute garraiatzen,
 Bihotzik hoberenek dituzte dohatzen
 Hoikintzat iloba da Zelhabe gaztea,
 Izpirituko lanez duena hastea:
 Hark koplen prezioa eraman Urriñan,
 Nahiak zerauzkala bertze asko griñan.
 Jainkoari zor dio ausarki eskerra
 Eginik haren gaiaz lili Bardoiztarra.
 Maite dute Baionan Damestoi premua,
 Mintzatzeko badakhar mihitan hautua;
 Notari du anaia, Eibarzeko ona,
 Gazteria guziko jaunik ederrena.
 Labegerie dabil kapitain untzitan,
 Nihoren beldur guti duela mintzotan,
 Burutan lehena du, ona orotako,
 Itsasoko bezala hiri handitako.
 Bere ozaita zuen Caverie jauna,
 Darrigoli eskolan buru zioena.
 Lohigaraiko seme bi aphez badire,
 Arima ederrenez dohatuak dire;
 Itsatsun bikario Dirasse Burgiko;
 Larrui bazitzaion nausitzen kantuko,
 Lehenak galdu boza dio harrapatu,
 Elizetan bazterrak hautsi nahi ditu.
 Alkate da Darricau, gizon hoberena,
 Balaki erakusten barnean duena.



Dirassen eskolatzen Donapaleioan,
 Estebe Dussaut berritz semenarioan,
 Leon Dajas herrian ez dago geldirik
 Aitzineko hoik nahiz atzeman gazterik
 Hiruek badituzte dohain bereziak,
 Khoroaatu beharrak lanaren jauziak.

Denbora zaharrear etzen Eskalduna
 Baiona hiri izen Laphurdi zuena,
 Nobenpopulanian zuen aitzindari,
 Hortzak zorrotz zagona bethi gerlateri.
 Gaztelu zaharrear eginez egoitza,
 Noizean behin zuen harritzen ohointza.
 Bizi baitziren urrun haren bidetarik,
 Eskaldunek izena eman gaxtotarik;
 Lur ala itsasotik zohakon jendea,
 Gehiena zelakotz bertzenen zalea,
 Deithu zuten atzetan hekien tokia,
 Egia zen bezala, hiri Laphurdia.
 Laphur hainitz oraino bazen ingurutan,
 San Leon ethortzean gurutze eskutan.
 Hek zioten burua athetan pikatu,
 Eskaldun herritarik zenean bihurtu.
 Hamabi ehun urthek hoita hamar eskas,
 Eman ziotenean Angelesek solas,
 Eta Ricard erregek, grazia handiak,
 Lekhuko zirelarik izen bereziak:
 Ezpeleta, Garzias, Orthe, Urthubia,
 Belzunze, Armendaritz, Eñaut Bertrandia,
 Peranburu, Saint-Martin, Garro eta Saulte;
 Paperek izen hoiek beiratu dituzte.
 Hoita hiru urthekin mende hamabia,
 Angelesak hartzean nausituz hiria.
 Karlos zazpigarrenak zituen kasatu,
 Hiru mende eskasak zirela gozatu.
 Hoita hiru urthetan mende hamabortza,
 Hurbiltzean Irundik harmada borthitza,
 Ezin hartu zuena hiri harmatua,
 Bere Baionetean geroztik hantua.
 Baionako seme zen Godin kardinala,
 Badire seinaleak hark egin zuela
 Jakobiten konbenta, jaio zen etxean,
 Hamabi ehun eta hogoita bortzean.
 Segidan sorthu ziren Karma (1264), Augustinak (1525),
 Kordilierak (1231), eta asken Kaputxinak (1615).



Mende hamabian zen Laphurdi izena
 Utzi, *baia on* gatik, deitzeko Baiona.
 Hama-zazpi urthetan mende hamabortza,
 Sortzean marraskekin izurrite latza;
 Bi urthen eskasean hamasei mendeak,
 Hiria eramater kolpez uholdeak;
 Berrogoi urthe eta zazpi lehenago,
 Español traidoreak erran zuen bego;
 Eliza nausia da osoki ederra,
 Badu ere errenta on eta beharra,
 Lormand deïthu jaun batek utzia berritan,
 Aphezpikuak berak enplegatzekotan:
 Hola ez du hirrisku lasterkako lanak
 Harrapaka biltzea eragintza onak.

Nola guziak aïpha, lasterka batean,
 Edo herriz idea labur ematean?
 Laphurdin hedatu naiz, bainan ez bertzenan;
 Hala izen handiak saltatu orotan:
 D'Abbadie, errege arras Ithurrotzen;
 Aitoren seme zilhar, Salha Aiziritzen;
 Eskaldunen lorea, Arxu Xuberoko,
 Luma eta bihotzez lehena lerroko;
 Atharrazko Eliza aphaintzen duena,
 Mintzari zuhur, pulit, Baratzabal jauna;
 Candellé, Larzabalgo errotor ernea;
 Goiti, Donibaneko errotor urrea;
 Jauregiberri, Pagoi, Larre, Etxegarai,
 Elissondo, Rospide, Pen, Elizagarai,
 Lardapide, Kurutzet, Nafartar semeak,
 Aphez on, jakin, eta herriko loreak;
 Erro, Eskaldun handi eta jakinena,
 Berritan herioak eraman daukuna:
 Karlosen aldeko zen, handizki aitua,
 Gora behera denek ezin mudatua;
 Bere sinhesteari bethi du itxiki;
 Bizi bezala, hil da karlista goraki.
 Gutiak dire egun holako gizonak,
 Fedea beiratzeko gordetzen direnak,

Jausten bere herrunka, nekhez bizitzeko,
 Nonbaiko desterruan hezurren uzteko:
 Ez dago ahantzirik Erro mendietan;
 Orroitzapen garbiak han bizi mendetan;
 Eskara maite zuen, hartaz da mintzatu;
 Ager beza premuak zer duen moldatu.
 Zure axkidea zen, Darotxetxe jauna,
 Franses Nafartar ume ohorezkoena:
 Herritar amoreak zaitu beiratuko,
 Jaun haren deus erranik galtzerat uzteko.



Xegarai laphurtarra, Eskaldun lehena,
 Jakinen bilkhuetan handi atzemana,
 Luzeki deputatu, orai konseilari
 Justizia gainean dutena ezarri,
 Ungi eginez egun konda dezakena,
 Nihor laguntzen huzkur izatu ez dena,
 Nahi nuke kantatu hatsik luzenean,
 Eta haren omena hedatu mendean.
 Bainan luze lukete orok kausi uko.
 Gehiago ni banintz hemen hedatuko;
 Hargatik Nafarroa uzten dut saltoan,
 Izenik ederrenak ageri lerroan
 Lehenbiziko Mina, Eraso, Duthari,
 Iturbide, Bikuña, Baztan, Orozteri,
 Etxeberriak, Goñi, Lanz, Casa-Egia,
 Fagoaga, Sopolan, Arroyo, Garcia,
 Agirre, Berrueta, Irigoien handi,
 Aphezpiku joana, ez ahantziz mendi;
 Aberats da handizki bihotzez Nabarra;
 Herri bakhotxak badu nihonden izarra.

Kantabren dukea zen Pelaioren aita,
 Zeinaren aiphamena erregekin baita;
 Eskaldun odola zen beraz Asturian,
 Nola Espainiako errege guzian;
 Ahaideak bazuzten errege joanek;
 Aiphatzea galdetzen hetarik zenbeitek:
 Alba, Zuñigas, Lerma, Gebara, Uzeda,
 Medina-Celi eta, guziz, Peñaranda,
 Zeinaren ethorkitik, gerthatuz hartako,
 Inperatriza baita egin Franziaiko.
 Andre hortaz diteke erran egiazki,
 Edozein herrunketan bizi zuen uki,
 Napoleon bezala, zela gorthetako:
 Garraiatzen dituzte gai denak tronuko!
 Eskaldun odoletik biek badukete;
 Dena den, arbasoak segitzen dituzte:
 Napoleonek eman Franzian bakea,

Urrundu atzaparren sukhardun heldea,
 Seguratu prestuak, gaxtoak izitu,
 Bigarren *Terroretik* herriak beiratu.
 Jainkoak du egorri, behar zen orduko,
 Franzia baketurik, Nikolas jotzeko:
 Neguko gizon hori da izigarria;
 Ifernutik berekin dakhar izurria;
 Gristino guziak, bere erresuman,
 Satanen lagun, ditu hertsatzen ariman.
 Zenbatek Siberian gatheak ekhartzen!
 Mortero keta jaunak han dire higatzen!
 Zenbeitek flakeziaz uztean fedea,
 Izan dute saritzat lodiki urrea.
 Ez du Elizak izan holako etsairik,
 Hasiz ere kondatzen Julianotarik;
 Rusian ez diteke egia predika;
 Nikolasek behar du Dabiden musika;
 Hura dute mihiek bere kantetako,
 Utziren bada ere Jainkoa bethiko.
 Aphez katolikorik ez da gehiago;
 Komentu gehiena biluzia dago;
 Rusiako Jainko da enperadorea;
 Urrunago nahi du hedatu legea;
 Burdinazko esku du Turkoei hedatu;
 Bainan ikuspen horrek bertzeak ernatu.

Jainko, gizon etsaia dute zehatuko
 Soldadu dohazenek, haren ikusteko;
 Napoleonek dio, behin khenduz maska
 Pagaraziko ungi bitimen marraska;
 Bere oldez etzuen egin nahi gudu;
 Gaitzagoen beldurrak hortarat joan du;
 Franzia ez da nahi Kosaken meneko;
 Kontrarat denek gerla diote nahiko,
 Ez baitute gauean nahi pulunpatu,
 Eta argi bideak hala nahi baitu;
 Ez du Napoleonek amorrik emanen;
 Ja egin dituenak lekhuko erranen;
 Hura nausi Franzia ungitu behar da,



Arras haren oldea nahasten ez bada;
 Ez du xede hoberik nihork seinalatu;
 Gaizkiaren gakhoak erakutsi ditu;
 Bihotza badu eta buru hautatua;
 Ez du beldurrak utzi nihon izitua:
 Zer ethorkizuna den harenzat argitzen,
 Iguzkian baditu argiak laguntzen!

Utzi dut aiphatzeko gizon bat handia,
 Seinalatu duena Eskaldun hazia.
 Mendeak zituela hoita hamahiru,
 Fernandok egin zuen berritan liburu,
 Aztura zahar kontra, khoroa uzteko
 Bere alaba maite Isabelendako.
 Eskaldunek etzuten onhetsi lan hori,
 Arimaz baitzagozin lege zaharrari:
 Etzuela oraino denbora handirik,
 Laudagarriak ziren fidel agerturik!
 Ager dezagun, ager Zumalakarregi,
 Legetiar gerlari emailea argi:
 Santos-Ladron handia terrea zeneko,
 Ilkhi zen, buru gora, Karlosen aldeko;
 Etzuen gizon, harma, ez eta dirurik;
 Halere ez zuten ikusi bakharrik,
 Biltzen soldadu onik herritar gaztetan,
 Bazter oro ematen bere alde sutan,
 Bortz ehun pezetero Bitorian hartzen,
 Aitsindari guziez non nahi trufatzen,
 Butron eta Artxaina uzten zafraturik,
 Berrehun bat soldadu herioaz jorik.
 Lehen aitzindariak terreatzen ditu,
 Ikara etsaietan nakiz barraiatu,
 Adiraziz Iruñan egilei holako,
 Batentzat bethi bortzei, bizia khentzeko.
 Bortz ilhabethe gabe, Zumalakarregi
 Zortzi mila soldaduz inguratu ungi;
 Denak ziren menditar bere nahizkoak,
 Beldur etzituztenak lerro doblezkoak.
 Portugaletik Karlos kasatu ondoan,
 Rodil morga handitan sarthu Nafarroan;
 Franses eta Angeles aldeko zituen;
 Karlistak traba oro hala bazituen:
 Erdiak, xizpa orde, makhilekin dire;
 Ez Zumalakarregi beldurtzen halere.
 Heldu zaiote Karlos, eta probinziak
 Badohaz Oñaterat, kuraios guziak;



Zumalakarregi du erregek trunpeta;
 Bizkaitarra jelosten hori ikus eta.
 Karlosen gose Rodil, Zumalakarregi
 Zelatan dagolarik, altxatuz arpegi:
 Jotzen du Carandolet, erdi lo dagola;
 Berrehun zaldizkoek ixurtzen odola;
 Elizondorat Rodil beldurrak egortzen;
 Han nihori xizpa bat etxetan asmatzen.
 Oraino Carandolet da harrapatua;
 Ikusten du harmada berritz zehatua;
 Galtzen du aitzindari, galtzen du bandera;
 Aski bitorrik dago, eskapatuz bera.
 Holako balentriak egunaz eginik,
 Higaten du Ebroa Zumalakarregik:
 Amor zuen ikusten erdi lo bezala;
 Atzematen diotza eskopeta mila.

Rodilek ez duke deus; agertzen da Mina,
 Eskaldunak beretzat ukhatu duena;
 Etsai guziak dire elkharganat biltzen,
 Eian duketen orok menditar hondatzen:
 Odoilek egin du munduko denbora,
 Lagunekin jautsi da bethiko hobira;
 Ulibarin gelditu Osma zehatua,
 Hamabortz ehun hilez bihotza zaurthua;
 Ribera *urbanoak* ikharetan dire;
 Lau ehun gizon galtzen jaun Oraak ere;
 Ocañak enbuskadan ematen ederki;
 Arcosen xizpak eman, zarpa gabe uki;
 Zumalakarregiri, Etxarri-Aranan,
 Xapelgorriek galde hartzea harmadan.
 Kordobak bihotz badu; ezin egin deusik;
 Valdes bera heldu da, odola musutik;
 Eulaten ikhasten du zer den dantza joka,
 Harmekin, gizon galduz guduan chunka.

Orduan, bere bortxa, Zumalakarregi
 Badoha Bilbaorat, dena itsas hegi;
 Angeles bala batek, bortz ehun metretan,

Jotzen du ondikoizki, lan beroenetan:
 Ormaiztegi baitzuen bere sor tokia,
 Harat herresta zuen zohakon bizia;
 Haren hutsak bakharrrik Bilbao salbatu,
 Etsaiek laster zuten eskas ezagutu!

Hemeretzi mendeak hoita hamascia,
 Haren hil ezkilari aditzean deia.
 Hura hai, hura hil zen, gloria handitan,
 Eginbide lehenen gora bethetzetan,
 Trionfan izpirituz eta baloreaz,
 Ezin ahantzi gisan nihoizko mendeaz!

[1] Re irla bat da Franzian.



MUTHIKOAK

Luze bera egon da mendez Eskalduna;
Bertzela etziteken berex nahi zena;
Hoita hamar hat urthe oraino duela,
Etziren ere haurrak, geroztik bezala,
Hama-hiru, hamalau urthe bethetzetan,
Edozein egunekin, zapatak zangotan.
Zaharrak gehiago nekhatzen badire,
Izerdi ithurriak bilhatzeko dire
Behar gabeko moda sorrarazietan,
Hala nola jateko sobraniozkotan.
Esnea, artho eta gasna herrikoak
Ez dire nihorentzat ezin bilduzkoak,
Eskalapoinak hartuz othe pikatzeko,
Eta zapatak utziz besta handitako.

Badakitizat muthilak, hama-sei urthetan,
Etzutena zapatik ibili oinetan,
Eta lehen aldikotz hetaz gozatzean,
Loriaren loriaz ematen ohean.

Eskaldun gehienak nekhez bizi dire;
Lanean lehertuak goizetik badire.
Arin dute arropa sorbalden gainean;
Oro sobra zaizkote xutik direnean;
Ezin jasan bertelak, ez eta buruko,
Bide edo lanerat abia orduko.
Ez dire negu hotzen beldur nihoiz ere;
Orthutsik elhurrean ikusiren dire,
Bildu gabe segidan neguko eztula,
Su gainean higatzen direnek bezala.

Gaztedanik sobreki direnak handitzen,
Segidako nekheak ez ditu izitzen.
Burasoak dituzte ohore handitan;
Ez litezke biziren hekin higuintzetan;

Igandez kanpo gutik zarpan mokanesik;
Ephe eztiz bizkarra gehienek hasik;
Athorra eta galtzak hekin estalkia,
Arina, bainan, segur, zikhinek utzia.

Zenbeit haurrek doiean dituzte ikhasten
Salbatzeko direnak bethi erakusten;
Halere ikus ohi nausi eskolako,
Duten denbora pixka heki bekhaitzeko:
Liburu erdaretan dituzte itzaten;
Deusere jakin gabe etxerat egortzen:
Zertako eman mintzo ezin ikhasia,
Doiean badu haurrak eskaraz astia?
Zertako Española, zertako Frantsesa,
Haintzur lana denean biziko herresa?
Ikhas bedi orduan ungi katixima;
Ez da hobeki hazten erdaraz arima.
Astia duten haurrak buraso etxetan
Erdaldun egin bitez bere mintzoetan;
Badute bide hori hekin pagatzailek;
Ez detzakete traba jaun erakustailek:
Ikhas beza erdara duenak ahala;
Gauzetan ederrena da bethi eskola;
Bainan porrokatzea mintzo erdarazko,
Baliatzen da hirri egin-arazteko;
Ez dute halakoek behar iguriki
Urrezko itzaletan izatea toki.

Badabiltza goizdanik batzuk ikhasteko;
Ez bezate sobra lan besarka aldiko:
Erdi jakinsun denak guti du balio;
Lasterregi du lanei erraten adio;
Alferkeriak ezin sorraraz ogia,
Beharko du asmatu zenbeit tzarkeria.
Bide zapatzaileak dire higingarri;
Holako bizi molde ez doha nihori.



Ez dute gorritzeko buraso hainitzek,
 Hekin haurrak ustelduz holako arantzak,
 Dutelakotz jakindu lana erakusten,
 Eta bide onerat jaiura ematen.

Etxean ez badute haurrek gider onik
 Gutu aitzinaturen, eskolan egonik;
 Errient ona baino hobe aita ona,
 Haren meneko baita jaiura lehena:
 Zimendurik ez badu etxeak izaten,
 Alferretan paretak harginek egiten.
 Ez du probetxos haurrak diru izatea;
 Nola biltzen den hobe berak ikhastea;
 Ez ikhastean aski erdara jauntzeko,
 Oihu egiten lanek, gosea khentzeko;
 Ikhasia ez huzkur jartzeko lanean;
 Ohointza izaten da alferren menean.

Ehun hiri badire, axola gabeak,
 Gorriraz letzakenak Eskaldun semeak;
 Gutu balin badire erdaran trebatzen
 Edo jakin bidean urrunat hedatzen,
 Ez diteke igurik hainitz gehiago,
 Baita gainerakotan behar handiago;
 Lurretik bizi denak aski jakitea,
 Baduela nekheak zeruko astea.

Hamalau urthe dute muthilek adina,
 Non baitzaite joaiten eskolako mina;
 Handik goiti ahalke egotea alfer;
 Murlazekin jartzea geroztik ez eder.
 Badire bazterretan oihuz dagozenak,
 Hedatzeko orotan argi jakinenak:
 Balakite hainitzak nola bizi diren,
 Aphilago luzkete bozak altxaturen;
 Gauza bat ageri da, muthil Eskaldunak,
 Ardiestean urthe handitzen dutenak,
 Edozein lanetako gorphutz baduela,
 Eta nihor berthutez nausi ez duela.

ERRIENTAK

Herri bakhotxak badu bere errienta,
 Burasoen ondotik haurrek behar aita.
 Izpiritua dute eskolan argitzen,
 Jakitaten athea itsuei zabaltzen;
 Bizia daramate aphezak bezala;
 Bertzenaz ez litezke nihoren miraila.
 Ahantzi da denbora zinetan Pabetik
 Heldu baitziren zenbeit eskasa kaskotik.
 Orduan nahi zuten apheza trabatu;
 Hek bezenbat zirela zioten kondatu;
 Itxiki behar zuten pausua heiekin;
 Ez bururik aphaldu nihongo jaunekin.
 Holako sinhestean izatu direnak
 Urrikitan aurkhitu dire gehienak;
 Jasan-arazi dute, izan jasaiteko;
 Beharrak erakutsi zer zen egiteko.

Gehien errientak ungi joan dire;
 Hekin artean buruz lehenak badire;
 Ungia dutenean arthoski laguntzen,
 Jende guziak ditu lorian beiratzen;
 Halakoek bidea zabal segidako;
 Nihor ez alferretan ungi ibiliko.
 Segi bezate lana oraino bezala,
 Jendearen gogorat egiten dutela;
 Ungi dire ikusten, nihon ez hobeki;
 Eskutako xoria ez larga zoroki.
 Jende onek egiten errienten ona;
 Errienten eskolak herriko omena:
 Eskaldun herri oro zuharra delakotz,
 Errientek izanen menta sekulakotz.
 Errientekin dire *anaiak* kondatzen;
 Berthute handiagok dituzte gainditzen.



Lan gaxtoa dutela, errex ikustea;
 Gauza beren erasten higatzen mendea:
 Hek bezala ez denak unhatu luzeki,
 Zer buru hauste duten erraten ez daki.
 Bainan lan guzietan behar da orroitu,
 Arrosa arantzekin bethi dela kaustu.
 Ez uste izan nihor duela handitzen
 Nahaztailen oihuak, denean aditzen:
 Errient esklaboak, lagun gaitzatzue;
 Hobeki bizitzea emana zaitzue.

Hola mintzo direnek bere ona nahi;
 Hanbat ferekatzaile, balitezke bahi,
 Berea dutenean nolazpeit atzeman,
 Grina guti dutela bertzentzat ariman.
 Oraiko errientak baitire erneak,
 Ez ditu atzemanen gaxtagin sareak;
 Hek eta bertze jende herrietakoa,
 Beira nihoiz jartzetik gaxto menekoa:
 Erresuma nahasiz, zerdak emendatzen;
 Egin diren gastuak nekheak pagatzen.
 Heldu dire gaxtoak erraten dutela
 Jende xehe arintze ordu litekela:
 Hek sinhetsiz, buzokak harmak ditu hartzen
 Anaien odolean eskuak gorritzen;
 Joaiten da etxerat, kantaz bitoria;
 Bi egunen buruko akhabo hirria.
 Haren odola esker, jaun batzuk goititu,
 Bainan jende xehea lehengo gelditu:
 Zer, uste zuen bada tronurako zela,
 Urrez egin alkhia harentzat zagola?
 Kasu guti hari da nahastaile tzarra,
 Izan dadin ala ez jendea beharra,
 Baldin zango eman ez haren bizkarrean,
 Eskua sartzen badu ausarki urrean.

Errientak herritan jaun batzuk baitire,
 Hobeki aphaindurik ez baita batere,

Galtza eta maipolis lardenak soinean,
 Jaunskil aldagarritan besta egunean,
 Lephoan mokanesa, jabotan urrea,
 Bethi ungi dirdiran buruko ilea,
 Errientak, zuei da hedatzea argi;
 Gehien dakitenei gidatzea ungi.
 Hazi zaituzten jende hanbat nekhatua,
 Ez bedi nihoiz izan gaizki pagatua;
 Gazteriaren ona zuek behar egin;
 Beira nihon iraka zoroki eragin:
 Arina balin bada nonbait errienta,
 Hari segitzen zaio jende enoxenta.
 Elizetan baitire kantari maiz aski,
 Gutiri gerthatzen da jartzea lazoki;
 Hartako gehienak, aria onetan,
 Higatzen ere dire Eskal-herrietan.



ERRIENTSAK

Gizonak behar dire lege egiteko,
Halaber lan dorphan ihardukitzeko;
Bainan emaztek ere badituzte lanak,
Gauza ungi pisatuz, ez naski xumenak,
Hekin eztitasunak behar du zehatu
Gizon gogor laguntzat dutena hautatu,
Arraizia hedatuz egun ilhunenetan,
Etsia hartu gabe oren makhurretan.
Emazteak ez badu berthute ezia,
Ez badaki moldatzen mokhor den nausia
Biziko erreketan ez dezake argi;
Etsitzeko ere du izatea ungi.
Behar du beraz izan hainitz jakitate,
Bainan oroz gainetik, zeruko berthuta
Gauza beharrena da harentza eskola
Eskas horrek gastatzen hainitz ola.
Gizonak deusik ez du etxean balio;
Haurren ungi haztea ama bati zaio;
Hura dute aldean lehen jaiuretan,
Haren nriraila hurbil, urrats guzietan.
Amak balin badire zikhin eta galdu,
Itxura baizik hetan ungiak ez badu,
Nola beira letzake kanpoko dohainak,
Oren guziz lekhuko, begiz lituzkenak?
Eta gizon tzar batzuk, berthuten etsaiak,
Bantatzean herrien lohiko pasaiak,
Zer beharko du egin emazte flakoak,
Ez baditu ekhartzen zimendu sendoak?

Emazteak badire, herri guzietan,
Eskola emateko bizien goizetan.
Hainitzek katixima hotzki erakusten;
Deusere arimentzat kasik eragiten;
Higuinarazten ere egia Saindua,
Oihuz eta bortxata burutan sarthua.

Heki liteke bada etxatzea hazi,
Bihotza dutenean behin irabazi;
Heki, lotzea haurrei halako plegura,
Non ez baitute nihoiz emanen beldurra,
Hortakotz eskoletan lan handia dute,
Bere eginbidea bethetzen badute;
Hekin meneko dire geroko bideak,
Egin behar dituzte etxeko andreak.

Behar dute bihotza lurretik altxatu,
Bere nekhen saria gorago bilhatu:
Gizon ala emazte, eskola emailek,
Maiz grina gehiago ezen nekhazalek;
Esker gaxtoz dituzte hainitzek pagatzen;
Artharik handienak deus guti kondatzen;
Bizitzeko beharra sobresten zaiote;
Haur askok errenkuraz baxatzen dituzte.

Maita beza Jainkoa eskola nausiak;
Hark diotza emanen lanaren sariak;
Etxek distiatzean hazi eraginez,
Bihotza gozatzen da urthetako lanez;
Hartako Jainkogatik, jasan behar lanak,
Mendetako ungia bilhatzen duenak;
Ez du lana egiten xoilki begientzat;
Agertzen da hargatik non nahi mirailtza.

Nola baita gaztean plegatzen arbola,
Hala du handitzean agertzen hegala;
Makhur utzia bada, makhur du ematen;
Gauza on guti hartaz segidan egiten.
Errienten lana da gizonen lantzea;
Emaztena, neskatxen ungi itzultzea;
Hartakotz behar dute berthuten India,
Hedatzeko bertzetan dutenen gandia.
Hainitzek balukete aski borondate;
Berthuten hedatzea atsegin lukete;
Bainan zeren gutiek dituzten laguntzen,
Gehienek luzerat kharra dute galtzen.



Izpirituko lana, gutik prezatua,
Hain da haltoa, nola lurretik zerua;
Nausiek behar dute hori ezagutu;
Lurreko trabengatik, ez nihoiz izitu.

Basa-herri hainitzek ez nahi *serorak*,
Erranez dituztela egiten *señorak*:
Ezagutza balute, ez litezke mintza;
Ez da urgulu bahi seroraren hitza;
Nihork ez du hobeki ihintz eragiten,
Arimako beharrak hala erakusten;
Bere eginbidetan gidatuz zeruak,
Ez detzakete egin aireko buruak.

Orai arte iraun du Eskaldun fedeak;
Nausitzen hari dire axola gabeak;
Apostoluen suak iduri hil dela;
Zenbeitek ez sinhesten Jainkorik badela:
Arima hautatuak, ungi hedatzeko,
Errientsen oren da, erne egoteko;
Zenbeitek kasik dute serora balio,
Hedatzeko lanpetan behar den olio;
Pizten dute zeruan eskolen argia,
Eta donuz hedatzen berthuten hazia.

Non errientsa onak, han neskatxa onak;
Bihotzek erakusten eman zaizkotenak;
Nausien bozkario, ikustea haurrak
Segitzen erakutsi zaizten hitz zuhurak.
Heki esker ama bat izaten da ona,
Bere ondokoekin zerurat dohana.
Mintzatzen balituzte amak herrietan,
Ager liteke ungi menderen mendetan;
Hainitz dute amekin segur eginkidin;
Bakharka ez dukete egin ahal bardin.
Emanez beraz balsan ungiko nahia,
Bilha bezate orok zorion bahia.

NESKATXAK

Hamasei urthetarat badire hurbiltzen,
Neskatxa gehienak ohi abiatzen,
Behar dutela utzi hurreko bidea,
Eta hartu emazten traza seinalea.
Hasteko bere amei diote behatzen;
Hek bere miraildako dituzte hantatzen.
Nolako baita ama, alaba halako;
Gutiek ethorkia dute ukhatuko.
Ama baiñintz delakotz ungian jarririk,
Hainitz neskatxa dire hautatuatarik;
Goizdanik jarri dire beharren jakinsun;
Ez dute sorrarazi nihon errankisun.
Bakhotxak berea du bilduren ardura,
Hartuz orratza edo kanpoko haintzurra;
Etxe oneko denak, bere adinean,
Kideko zenbeiti da ezkontzen aldean;
Ez du trabarik nihon, aita duelakotz,
Muthilak galdetzean, deithu mihitakotz.
Aisiako ez bada, hari da lanean,
Bildu nahiz zenbeit sos ezkon aitzinean;
Hamar bat urthe bada zuhurki bizitzen,
Erdi ungi eskutan, errecki da jartzen.

Kantatzen ohi dute Eskal herrietan,
Gose eta egarri, nihoiz ezkontzetan,
Ez dohazela ungi, bizi segidako;
Huna zer duten bethi gaztek kantatuko:

Airea: Azpeitiko neskatxek

«Neskatxa zoro, arin, buru gabekoa,
Zeren gainean duzu amesten khoroa?
Ohe bat izan gabe zokaz ezkontzerat:
Mingarri, denean mahain huts jaterat.



»Zure lagun beharrak gorphutz ederra du;
 Basoa errietan pare nihon ez du;
 Sosik gabe sakolan badabil bestetan:
 Ezkontzak othe du dirurik hazitan?

»Hurrez estali eta hordia egarri;
 Ostatutan bilhatzen barneko sokhorri;
 Haurrak nigarrez eta ama gosez hila,
 Gizonak ematen jakitzat makhila.

»Neskatxa diruz arin, muthila alferra,
 Ezkontzetan izaten mindegi lazkorra;
 Herria dute laster eskailez betheko;
 Hurrekin eskua berek hedatuko.

»Ez dukenak bizia irabaz beretzat,
 Emazte bat har beza etxeko laguntzat:
 Baten orde, sei aho izanen hazteko;
 Ezkontza orre da arthoz asetzeko!»

Ungi nahi duenak ondoan aurkhitu,
 Soinekotan dirua ez behar hondatu;
 Zuhurra ez da bethi berritan estaltzen;
 Girgileria ez du sobera maitatzen;
 Badu Igandetako bere mantalina,
 Eta hari darraikon, garbia den soina;
 Bainan hartuz jakia, arthoz gehiago,
 Ez du nahi ondoan egin meheago.

Zuhurki den alaba bizi amarekin,
 Hartu gabe bideak nihoiz ergelekin,
 Gero ere ohi da kaskodun agertzen,
 Eta ondorioa badaki gidatzen;
 Gazterik bere eskuz bizitzen jakina,
 Gutitan fundibitail, agerturen dena;
 Ez dakienak gauzak zer dire gostatzen,
 Ditu errekkienik, jostetan egortzen.
 Ama langilen haurra, langile izaten;
 Ikhasi bideari segida ematen.

Zer liteke ezkontzan alaba alferra,
 Dirua dabilzana bethi burra-burra?
 Soineko ederrenez bethi beztitzeko,
 Etzuen hura nihork etxerat hartuko.
 Gutu ere balio neskatxa beharrak,
 Errekk ibazterretan egilea zorrak;
 Hanbat arthez, denbora bere duenean
 Erakusten zer duken geroko bidean.

Hainitz aldiz neskatxa dena-den egoten,
 Eta ez ifernuan ezkontzaz ematen:
 Oxala balituzte guziek asmuak,
 Aitzinetik eginez bere arrimuak,
 Iragan egunekin geroa ontzeko,
 Edo ethorkizuna ez hirriskatzeko!
 Gutu balio luke hargatik urreak,
 Ez balu berthuterik dirudun jendeak;
 Deusik ez da dirua, arima tzarrekin;
 Balios da neskatxa, bethi, berthutekin:
 Arimako dohainak ez dire erosten,
 Edo Kalifornian trebes atzematen!



KRIKETAK

Eskaldun emazteak lainhoki beztitzen;
 Upulurda, jakekin, athorak gordetzen;
 Kasakina, buruko eta lephokoa,
 Zapata herrestekin, jauntzi bethikoa.
 Igande egunetan, Etxeko-Andreak
 Elizarat joaiten lephotik urreak:
 Izpiritu Saindua dute gurutzetan;
 Berriak hasi dire trukatzan gathetan;
 Soin seda eta kapa hainitzek ekhartzen;
 Buruko organdila, xuriz arrimatzen.
 Gutiago direnak bere ethorkitan
 Mantalinekin dire igande-bestetan;
 Astelehen guziez, balioan deusik,
 Zangarrak gorri eta zangoak orthutsik,
 Axiroinak borts aldiz odol dituztela;
 Alaba hoberenak ikuskidin hola;
 Edozein lanetako dituzte besoak,
 Ondoren ondo segiz bere arbasoak.

Bainan aurkhitzen dire neskata bakharrak,
 Bere soinekoetan ederki beharrak;
 Hek erosten ongentu ilen leguntzeko,
 Orenak ez bekhaizten mirail aitzineko,
 Liztorren pare gerriz, esku xuriekkin,
 Andren gisa josizko soin amarantekin,
 Brodekin hertsitarik zimenduz dirdiran,
 Erreginak iduri bere aphainduran.
 Luzeki izan dute gudu orrazekin,
 Emanez arretelu itxura gorekin;
 Etzuten ere nahi buztana dilindan
 Buruko plegatutik hiru ezkinetan;
 Ile beltzak zituzten papilotatuak,
 Beharri aitzinetik flokan hedatuak;
 Gerriak hertsatuak, sobera bezala;
 Tartanak bizkarretik, nardaz utziz xala.

Orai ere buruan adarrak ez dute;
 Trenxoin gibel itxura khoro dakharkate;
 Aitzinetik burua ageri erdia,
 Ilea sagerdeka bi alde jautsia,
 Dirdiratzan duela mazelan behera,
 Beharri gibelean sar arte ondarra.
 Españollek ilea ezpartzatzen dute;
 Nola nahi den, arthak ungi diotzate.

Holakok ez haintzurrei gustu atzematen;
 Ez bezteko larrua, jartzen dire josten,
 Hainitz hedatzen ere hiri goibelerat,
 Jaun zenbeiten neskato arrai higtzerat.
 Herrietan badaude, hoita borts urthetan,
 Ikusten ohi dire gurutze handitan:
 Aphaintzen baizik zeren ez duten ikhasi,
 Muthil gazteak zaizte joaiten ihesi;
 Buru duten guziek nahi neskatzetan,
 Aphainduraz bertzerik, ezkon orduetan.
 Zenbat neskata ez da bazterrerat uzten,
 Zeren ethorkiari ukho egin duten!
 Asko jaun suspitxekin neskato direnak
 Ez ditu bilhaturen Eskaldun azkenak;
 Joan badire, joan, ez dute herrian
 Beiratzaila bihirik kausten gazterian.
 Bere ere ez dute esku beltzik nahi,
 Jaunenak dituzteino itzalaren bahi;
 Bainan kopeta edo larru zimurtzetan,
 Edozein har lukete etxola zainetan.

Guti beraz balio kriket bizitzeak;
 Lorerik ederrena galtzen fanitzeak;
 Batere zuhur dena arratsaz orroitzen,
 Goizeko iguzkian, ez sobra jostatzen,
 Gaztetasanak labur ditu mugarriak;
 Aitzinetik zuhurak hartzen neurriak;
 Begitako fitsekin, ez farfalatuko,
 Zokhoetan zaurthua gero egoteko.



Beztitzeko gustuak, herrunka bateau,
Galtzan ditu arimak, sarthuz lorepean;
Aphaintza sobraniek sarea dirute;
Begi onik zuhurak nihoiz ez diote,
Jakina nolako den halako urrina,
Gorphutza dutenean uzten desegina.

Nola beraz muthilak, buru duenean,
Eta andrea behar gidari etxean,
Harturen du neskata arin ikusia,
Irabaz ahal sosak khetan egorria?
Ohorezki ogia jan nahi duenak,
Ez soinean ematen irabazi denak:
Zer dohako jendeak ez diozan beira,
Ilkhi behar denean laneko bidera?
Hola eman duenak norbaiten begian
Irabazi guti du, jartzeko lorian;
Bizkarreko arropak ez ogi ematen;
Aitzitik bortz zorori hobena egiten.
Kopeta behar batek, korradurik gabe,
Ilkhitzeko kanporat, nola urre jabe,
Bi zangoen puntetan gorphutza luzatuz,
Doiean ingururat begiak hedatuz;
Jaunen bilha dabilta, jaun izanen dute,
Bainan izenik haurrei emanen ez dute;
Segidan, ezin biziz, amak ibiliko
Nork dioten emanen haurrik bulharreko.

Nihor guti herritik ilkhi gaztedeino;
Etxean egon bedi, arthotik dueino;
Utz bezate neskatek moda segitzea,
Muthil tzarren ondok berak ibiltzea;
Arimen aphaintzea, bethi da hobeko;
Hortik heldu ungia, ez xoilki geroko:
Bizi denari zuhur eta berthutedun
Etzaio eskasturen Jainkoganik lagun.

Mintzatu naiz kriketez, ez hainitz delakotz,
Bainan bat ez izanik, hobeki delakotz;
Neskata Eskaldunak prezagarri dire;
Nihongo loren beldur, argitan ez dire.



GIZONAK

Lanetik bizi dire Eskaldun gizonak;
 Laborantzak galdetzen beso gehienak;
 Lehia gutirekin hiriko bestetan,
 Aski jakinsun dire, bere beharretan.
 Ez badakite seda nola den apliaintzen,
 Berinak nola dire leihotako urtzen,
 Nihork erakutsiren golde ibiltzea,
 Eta arropa sendoz gorphutz estaltzea.

Attona zenbeit bada galtza motxen alde,
 Aspaldi gehienek utziak debalde;
 Ez da berritz sorthuren moda hekiena,
 Nausi delakotz ere aztalik txarrena.
 Galtza luzetan dire oraiko gizonak;
 Maipolisek hartzen gainetik errainak;
 Gaphelua buruan; eskalapoinekin,
 Gathaska dutenean kanpoko lanekin;
 Ibiltzeko oin hutsik, ez batere huzkur;
 Ez dute hartarakotz gutiago agur:
 Deusek ez du baxatzen laneko gizona;
 Bertzenaz badarama bizi behar dena.
 Badakite beiratzten osasuna ungi;
 Parisat joan gabe, pizten dute argi;
 Nihor gutik rnunduan hain gorphutz sanoa;
 Irudi badutela indarren gakhua.
 Ikusten dire hetan, bizi luzenean,
 Ez direnak izatu, miriku menean.
 Hekin osasunaren beiratzaille ona,
 Bizi bethi izariz eraman dutena;
 Pitxerretan ez dute sudun edaria;
 Gehienen mahasti sagarno horia;
 Baxera hainitz gabe egiten bazkari;
 Gasna, artho, esnea, maizenik afari,
 Jan-edana sobreki hartzen dutelarik,
 Lanik gogorrenetan hari direlarik,

Indarrekin hainitzak bizitzen mendea,
 Hortz alferrek mainekin mirikuz galdea.

Laborariak dire errege herritan,
 Laborari dutenak zokho bazterretan;
 Ez dute txapelduna sobra ferekatzen,
 Non ez den guziekin bera nahastatzen;
 Eman dituzte frogak, bazterrerat utziz,
 Hautatu direnean berak bere nausiz.

Jakiteko Eskaldun biziaren gaina,
 Joan behar liteke, astia duena,
 Ikusterat bertzetan nola den jendea,
 Lanetik duenean biziko moldea.
 Bazter edozeinetan hainitzak bizitzen
 Larrua erdiskaxe dutela estaltzen,
 Arropa tzar, zirtzila, zikhina jarian,
 Iduri lan dutela bethi ongarrarian.
 Ez dute Igandetean jauntz aldi berririk,
 Hain guti zortzi guziz athorra xuririk;
 Hartzak arras iduri, ontasun ibiltzen,
 Igandetean ez dute bertzela fringatzen.

Hiritan bere ustez gaina duen jaunak
 Bekhaizteko lituzke gizon Eskaldunak:
 Ez badute urrea hark bezala metan,
 Odol garbiagoa daukate zainetan:
 Zenbat gaitz hiritarrek urrekin ibiltzen,
 Aisiari direnak hainitz jarrekitzen!
 Hekin berokeriei darraikote gaitza:
 Buruko min, sukhar beltz, herio murrirtza;
 Hekin oheko dire bizi jelosia,
 Bihotzetan emaile gerla nahasia,
 Eta grina sukhardun, suge bethikoak,
 Bakea nahastaile, dohain hirikoak.

Eskaldun gizonak du elgea bilhatzen,
 Bere lanen ondotik, deskansuz lo hartzen.
 Gorphutz dio tinkatzen gerriko gorriak,



Erretzean lephoa iguzki goriak;
 Estalki da kapusail, illaginen lana;
 Hura iduria da Afrikar kabana.
 Bi ixuritan dire etxe zaharrenak;
 Seinalatzen dituzte asmu errexenak;
 Menta handiak ditu kolore gorriak;
 Hartaz dire Eskaldun gustu bereziak;
 Urrun aiphatzen dute athorra xuria,
 Seinalatzen duena Eskaldun garbia;
 Abarka, ezpartinak, biaiarrak maite;
 Zapatek ohorea Elizako dute.

Asko gizon herritan, Bezperen ondotik,
 Hurbiltzen dire pausuz museko tokitik;
 Han jokutzen krakada, oihuz *bordagoka*,
 Mahain berean jarriz lau edo seirazka,
 Oren pare bat duke jostetak irauten;
 Erretiran kanporat guziak joaiten,
 Gutu dela horditzen igande saindutan,
 Edo laneko huzkur astelehenetan.
 Igande, Bestak, dire Elizen meneko;
 Bertze egun guziak arrunt lanetako;
 Hola emazte gaxok ez behar miretsi,
 Jaunek diotenean astea iretsi.

Igandetan gizonen solasak egiten:
 Nola duen haziak gehien ematen,
 Zer duken merkatuan egin aziendak,
 Noraino behar diren erabili landak,
 Zein den balios suko gorapen egurra,
 Eian artho bahi den neguko elhurra;
 Beherapenan behar arno ganbiatu;
 Artho lehen eginak maiz premiak ditu;
 Negu luzeak ditu ontzen baratzeak;
 Mertxika goiztiarra zaintzen hormatzeak;
 Onkailua emanaz ausarki lurrari,
 Egiten zaio mami, nola idiari;
 Eta heldu denean aldiz agorrea,
 Ez lurra berehala izaten errea:

Lur gizenek abrea laster gizenduko;
 Abrek bethi lurrari urin egorriko;
 Iralkexu hoberen, ferdailu laudetan;
 Probetxu guti kausten hainitz ibiltzetan.

Ez du laborariak nihoren beharrik;
 Erregek behar dute haren bihitarik;
 Maiz urrea biltzen da, arimen galtzeko;
 Herioa heldu da, deus egin orduko.
 Nondik nahi gizonak herioarat jotzen;
 Ungi bizi direnak hobekien hiltzen:
 Lanetik Eskaldunak joaiten zerurat;
 Ez hain errex guziari higatea harat:
 Bilha dabiltzanean zeru lurrekoa,
 Gutu artha dukete bide zerukoa.

Etxeko-Andrea da Eskaldun señora;
 Etxeko jauna berritz, errege ardura.
 Ilhabethean behin bera da joaiten,
 Zer duen merkatuan abreak egiten;
 Maizago dabilanak etxea hondatzen,
 Ez baita laborantza pasaian ibiltzen:
 Merkatu guzietan aria duenak,
 Iduri karriketari alfer dabiltzanak;
 Batzuk ala bertzeak, guzien trabako;
 Goseak iretsiren oro azkeneko.

Badohaz zenbeit etxe laster errekarat;
 Ez da zeren beiratu bethi partilarat;
 Lazokeria bada haizatzen etxetan;
 Lana ez da segitzen behar den funtsetan;
 Arropa berri ere, nahi sobra maizko;
 Zaharrenak bezala, ez dire bethiko;
 Josteta arinetan erreki egortzen
 Lehen ontasunentzat zirenak beiratzen;
 Gida ona denean, etxeak irauten;
 Emaileari lurrak bethi du ematen.



Besoak uztarturik, igande goizetan,
 Laboraria eder, landa bazterretan,
 Ontasunen ikusten, zenbeit lagunekin,
 Buru gordoak ukiz, hirri zuriekin!

KARGUDUNAK

Kantoin bakhotxak badu bakezko juiea,
 Gehien nahasduren antolatzailea;
 Urrea balio du halako gizonak,
 Zuhurki egitean dihoazkon lanak.
 Juieak izan behar ezin juiatua;
 Hartakotz guzietan, zuzen aiphatua,
 Arimaz garbi eta bidetan miraila,
 Orroiturik bertzenaz hirrigarri dela.

Herrietan badire, Baldar-aphezekin,
 Konseilari gizonak podore xumekin,
 Hekin sinhestaleak hobeki maizenik,
 Ez badire otsoak ardi zain emanik.
 Alkatez mintzatzeko, luma galupetan,
 Ungi onak badire bere egintzetan;
 Ez dire hoberenak oroz maitatuak,
 Bereziki lotzean gaxtagin eskuak.
 Sobera ilhaun dena ez da on nihongo;
 Batere ez izanik hainitz hobeago:
 Gizon onak zirela zenbeitek diote,
 Nahia egiterat utzi baitiote.
 Eskas bada burua bere gauzetako,
 Ez diteke hobia bertzen lanetako;
 Guzien beharrerat denak eroria
 Ez dezake antola nihongo herria;
 Baldar-apheza bada ostaler axkide,
 Arnoa edateko diru ez guphide,
 Arratsa ethortzean, husteko ostatu,
 Legearen oihuak ezaztatzen ditu.
 Ez luke ere behar nihon estekarik;
 Guti behar notari edo mirikurik,
 Nahiz diren jakinen herri guzietan,
 Flakezak direlakotz lakhet aldekotan.
 Baldar-aphez onak du herria arthatzen,
 Aitaren begiekin gaizkia haizatzen,



Konseiluari zuzen ematen kontuak,
Lo utzi gabetarik gauza aiphatuak;
Jakinsun zerk dakharken ona herritako,
Ez da huzkur noiz nahi bere lan uzteko;
Ez du bere bidea ikusten bakharririk;
Nihon ez dute etxek bakharka dretxorik;
Behar liteke ere aphur bat aitua,
Ez da aski hortako lur edo dirua.

Nahi dute batzuek oroz nausi izan;
Sarthu nahi lukete sudurra Elizan
Eliza badu aski Eliza gizonak,
Hala nola herria Baldar-apehez onak;
Bururik dutenean, harrika ez hari;
Aitzitik ohorea emenda elkharri.

Biltzarrean alkhatek herrunka lehena;
Heki da aiphatzea egin behar dena;
Bainan bertzela badu norbaitek ikusten,
Hortakotz ez beltzuri nihori egiten.
Beretzat izanen du bethi hoberena,
Odol hotzik adituz erraten dutena;
Ez du nihork izaten errateko hala;
Jakin ere behar da boza denen dela.

Baldar-apehea bada gizon jeloskorra,
Iduritzen zaiona oro dela hura,
Bazter guziak ditu herritan nahasten,
Eta urtheren mentan iraka ematen;
Zaharren egin denak kausten ditu makhur;
Hari baizik nihori etzaio zor agur.
Zaharrek ere bada zerbeit bazakiten;
Asko minen ondolik bide hartu zuten,
Bide sobra errexki batzuk desegina,
Intzirina handitan berant uzten dena.
Baldar-apehezak ungi egin nahi badu,
Ahalaz behar ditu Elizak lagundu;
Ez du behar egiaz jostetan trufatu;
Nahasien aldea nihoiz besarkatu:

Gai aski badu tzarrak berk jaiuretan,
Zirikatzaile gabe herriko nausitan.
Ez badute ungiak onek sustengatzen,
Tzarren mareak oro luzerat hondatzen;
Handiek egiari trufa egitean,
Erakusten direla gaxtagin bidean.
Ondoan dire gero sabel minak sortzen;
Ikhasteko lukete zenbeitek mintzatzen.
Biltzar eta Elizak aitzen direnean,
Berthute gehienik izaten jendea.

Iduritzen zenbeiti alkate direla
Herritan emateko Elizari gerla:
Apehezak baditezke bere itzalekin;
Bainan zer egin ere bortz Barrabasekin?
Arras gutiak dire Eskaldun holako,
Zeren diren guziak arrunt katoliko.
Besta handi denetan, Baldar-apehez jaunak
Elizarat joaiten, xarpekin emanak,
Ikhas dezaten orok, badela nausia,
Lurreko edozeinez gorago jarria;
Ondoren ondo hola ematen eskola,
Aphalak handienei plegatzen direla:
Ez luke nihork behar nausizat ikusi
Ez duena Jainkoa ezagutzen nausi.



APHEZAK

Eskaldunek apheza goraki maitatzen,
 Nihori gehiago ohore bihurtzen;
 Hura da gurutzetan bilhatzen dutena,
 Bozkarioan ere nahien laguna;
 Hainitzek hura dute bere konseilari;
 Edozein gauza dute fidatuko hari;
 Etxekoa dutela, denei iduritzen;
 Ez dire etxekoei hala idekitzen.
 Badakitza jendetan nondiren beharrak;
 Xukatu behar ditu guxien nigarrak;
 Nahasterik denean edo kolpekarik,
 Ez du gorde nahiko bere bisaiarik:
 Bizian, herioan ezin ahantzia,
 Errex da endelgatzen haren gutizia.
 Guziek nahi dute harekin axkide;
 Nihork hari bidetan agurrik guphide;
 Edozein hersturetan dute lagunduren;
 Harengatik zer nahi lukete utziren.
 Ez dute bortxaz maite, aitzat daukate;
 Nihortaz gutiago beldurrik ez dute,
 Jakinsun ez duela bilhatzen gaizkia,
 Bainan bai hedatzea guzien ungia:
 Aldarean agertuz Jesus bat bezala,
 Zazpitan egunean othoitzez dagola,
 On eta gaxtoentzat galdez zeruari,
 Predikutik egia erranez orori.

Handi-xumen axkide, guti du bererik;
 Gehienek hiltzean ez uzten dirurik.
 Khendu dioten oro esketan handiri
 Hedatzen berehala hauzo beharrerri;
 Ohoinek bihurtua nausiei emaiten;
 Bide guti hauziei herriz kanpo uzten:
 Nola ez jende onak hura maitatuko,
 Lege baino hobea gaizki urruntzeko?

Aho zabal zenbeitek badute erasten,
 Hainitz diru dutela aphezek izaten,
 Kaskodunak badaki, nihor gobernutik,
 Ez dela bere pagan hek baizen axitik;
 Bortzek hekin etxea dutela ostatu,
 Hek dutela atzea maiz behar freskatu.
 Bakharrrik ez balire bizitzen sobreki,
 Ohoreak luzkete eginen meheki;
 Ankas balin badute buraso beharrik,
 Edo ekolatzeko egin den gasturik,
 Doiean dituzkete urthe bi buruak
 Atzeman zorrik gabe, bahi liburuak,
 Behar dute beztitu, eman bazkariak;
 Hainitzekin dituzte bortxazko ariak:
 Eian orai nork duen, ethor arabera,
 Herrietan egiten aphezen berdura.

Badute aphez orok herrian esteka;
 Ez litezke bertzela izurri atheka;
 Arthaldearen ona, bere on daukate;
 Gorphutz eta arimaz arthak diotzate;
 Miragarria dute bere erregela,
 Munduan guti nahi bizi hek bezala;
 Jar ditezke, zein nahi, mirailen pareko,
 Hekin hitz eta obrek zer duten khentzeko
 Liburu, eri eta aldare sailduak,
 Horra hekin biziko lore hautatuak.

Hainitzen sinhestea, etsai aphezekin,
 Ez ditekela ungi gertha nihorekin;
 Aphez etsaia dela bethi gaizki heldu,
 Goiz edo berant zeru zaiola goibeldu.

Balin badu etsaik aphezak herritan,
 Bilhatu behar dire tresna tzarrenetan:
 Huzkur edo lazoak, etsituz arima,
 Min aitzea badela bertze erresuma;
 Bekhaizten ere heiek Elizei uzteko;



Ez dute mihi baizen kontra mintzatzeko;
Galdetzen bazaiote deusik eman duten,
Muskerrak baizen ferde, ixilik egoten.
Halakoak maizenik izaten ondoan
Aphezen ogi behar, eme herioan.

Ohore aphezentzat, etsai izatea
Nihork ezin zehatuz dabilan jendea;
Bide hoberenetan unhatua denak,
Beztu nahiko ditu hetan dohazanak.
Ez du nihork ikusi apheza ihesten,
Etsaiak duenean lagun galdegiten.

Aphezak direnean herritan eskastu,
Jende ungi zaleak lanak izan ditu:
Etxe arthikitzailek zimendu bilhatzen,
Gaxtaginek aphezei halatsu jazartzen;
Egiari mihia pikatzen denean,
Ohoien atzaparrak, bere orenean.
Zoroak dire beraz zenbeit jaun modako,
Ez direnak oraino erreka jotzeko,
Tzarren alde direnak agertzen lorian:
Nigar onik laukate hekin bitorian!
Gudu gaxto duenak aphezei egiten,
Eskua tzarrei bethi diote ematen:
Hartako adimendu gehienek aski,
Mintzatzeko tzarrekin Elizaz zuhurki.

Eskaldunak hil nahi apheza aldean;
Hura du bere lagun, munduak uztean.
Gorphutza beztitzen da bizian bezala,
Eta ematen zaio gainetik oihala;
Deus ez da garbiago gorphutz hura baino,
Hauzoek eramana bere hobiraino,
Lerroan ahukua delarik segitzen,
Eta hil othoitzetan partalier jartzen.
Erdi ungi direnek, hainitz Elizetan,
Argia pizten dute, Meza erratetan,
Urtheak diraeino, eta erakusten,

Hilak ez dituela sekulakotz uzten.
Jakinez hilentzat den bizien fedea,
Ez da hain latz izaten hobiko bidea.

Hobiak badituzte guziak bereak;
Berritan ibiliek ez eskas loreak;
Baratzeak bezala zenbeitek arthatzen:
Damurik hor-hemenka bakharrak lazatzen!
Elizatik lekhora, lakhet du jendeak
Hilen hobi gainean egiten galdeak:
Hola joanen eta bizian artean,
Aria itxikitzen fedea luzean.

Orroitzean guziak harako garela,
Sekulako etxea han beharko dela,
Hilharriak nahi du izan aphaindua;
Ez da mende batentzat egin gaztelua;
Jainkoak arima bat deithu duenean,
Harat eraman zaio, dolu minenean,
Gorphutz beharko dena egun batez piztu;
Nola nahi beiratuz, arthak nahi ditu.

Elizetan seinale jenden agortea;
Hek dire mira onak, nola den fedea;
Izan diteke hiri, fede guti duna,
Nihongo Elizarik ederren duena:
Errex da egitea, bertzen diruekin,
Etxe saildu dorredun pika-harriekin;
Bainan othe da nihon, herri berezkorik,
Eskaldun Elizekin parezkatzekorik?

Zer ere zuzenago, baizen ikustea
Ederrenik altxatzen Jaunaren etxea?
Presondegiak dire Kaskoinetan eder;
Ez dezake halako Eskaldunak ager.
Herri sartze orotan Eliza ageri,
Dorreaz dagoena hurbil zeruari;
Hiru edo lau lerro seilharu baditu;
Bere toki hautuak gizonak han ditu;



Emaztekin batere, hola nahasterik;
Ez luke beherean han duen gusturik.

Badute Eskaldunak sinheste osoa,
Mintzatu izan dela denboraz Jainkoa;
Ez duela gizona utzi ilhunbetan,
Izpirituz dohatu duen egunetan.
Elizan segituak guziak haurdanik,
Guti kausten arimaz artha ez dutenik;
Egia saindueri aithorra diote,
Hekin sustengatzeko beldurrik ez dute;
Asko tzarren tokaio, altxatuz trufari,
Ez dire oldarturen ungiar nihori;
Nahiz diren erorkor, bertzeak bezala,
Ez du gaizkiak aitzen hekien *tralala*;
Hizkuntza tzarra dute hedoitzat beiratzan
Ez ditu argi sobrak batere izitzen.

Lastima da jaun zenbeit ikustea sortzen,
Thuztatzeko egia, direnak handitzen:
Kokotsean bizarra, buruan xapela,
Iduri Elizako sobera direla!

Sinheste ez duena, on da orotako:
Galdegitzen zerk duen hura beiratuko,
Nahi hada laguna nonbait arrotatu,
Edo nahi badio kanibeta sarthu?
Tzarrek dute fedea oinetan ematen;
Barne oneko jendek ez hala egiten;
Deskansu handia da Eskaldun herritan;
Nausiak egon beitez ikusi bidetan;
Berritan sor diteken goibel ez axola,
Izan da gehienik galtzaile odola:
Nigarra egin dute bortz jaun handik larri:
Zeren egia zuten gathetan ezarri!

Emazte berezi bat Elizetan bada;
Haren behar handia ezagutua da:
Andre-serorak ditu Elizak arthatzen,

Bere bizi guzia hetan du higatzen;
Errankisun biderik, etzuen bidetan,
Hautatu dutenean zenbeit Elizetan;
Ohorezko etxetik zuen ethorkia;
Aldare aphanitzetan, bere gutizia.
Eliza hastapenan baziren holako,
Bere ehun lanetan aphez laguntzeko;
Ez dire eskonduak; horra ithurria,
Zertako den onhesten hetazko jarria;
Guziek ohorea diote ematen;
Hekin nausitasunak nihor ez bekhaizten,
Elizetan badire agertzen zimenak.
Eta nihor urrundik bezten ez dutenak.

Ez da Andre-serora moda dakharkena;
Haren jauntzia bethi izaten ilhuna;
Ez du arintasunik bere itxuretan;
Mezaren entzuteko bezti da kapetan;
Nihork ez bezala du bere burukoa;
Orori du ematen bertzela pikoa:
Ez uste nihoiz dela hirrigarri jartzen;
Nihork ez du agurra hobeki beiratzan;
Ez da hobekiena edo gaizkiena,
Hark bere moldatzeko ematen duena;
Nihork ez du erranen sobera duela;
Ez eta ere deusen eskas baduela.

Doluduna minean serorak segitzen;
Bera utzi behar da hitz onen hedatzen;
Hura da othoiztua argien pizteko,
Ahukua Elizan agertzen deneko;
Hura du minduriak lagun hurbilena,
Maiz bere etxeraino segitzen duena.
Elizari eman du bere izatea;
Gehienetan badu herriko etxea:
Herri eta Eliza ditu baratzeak,
Urruntzen dituztenak haren arantzeak.



Eliza, ez duena Andre-serorarik,
 Ezagutzen da laster ehun saretarik:
 Ez dakite gizonak, emazte bezala,
 Zikhin bilhatzen edo aphaintzen oihala.
 Hekin ona dutenek frogantzaz ikusi,
 Ez dituzte nihondik egorri ihesi,
 Bere bizi zuhurraz, mirail batzuk dire;
 Hekin hitz onen behar haintzak badire.

MIRIKUAK

Eskaldun gehienek miriku prezatzen;
 Xapeldun kasik nihor hainbertze agurtzen;
 Balin badire zenbeit higinak iduri,
 Panpa eman bezote bere bulharrerri:
 Zertako behar dute othoiztu zerua,
 Heda dezan lurean gaitzen ifernua,
 Jaun hek irabazteko ausarki urrea
 Edo guri dezaten biziko ohea?
 Halakoak ezagun edozein bidetan,
 Xapelak gorri eta abreak mukhitan,
 Xelina pelatua, kapa leihoekin,
 Krapestuak hirrikan belhari puskekin.

Izatu da denbora, zeinetan barberak
 Baitziren sendatzeko ahal zen baxerak:
 Purga eta lanzeta zituzten bahiak,
 Etzitezkeiela hil hekien eriak.
 Baziren ere bertze *aireko* barberak,
 Sorgin kontra zuztenak balios indarrak;
 Gaizo zenbeiti zuten ematen buruan
 Etzuketela onik bere mirikuan.
 Hetarik gehienek herri dute hustu;
 Parisko mirikutan, hisopa usnatu;
 Sorginekin astiak urrun joan dire;
 Dohatsu Espanian jasanak badire!

Miriku jarrikiei bere erietan,
 Ez direnei lazatzen herstura minetan,
 Esker diote jendek, nola Jainkoari,
 Eta gutitan zaie eskasturen sari.
 Erien atsegina, betan ikustea
 Gorphutz eta arimen arthadun jendea!
 Odol gabeko jende bakharrak badire,
 Mirikuen etsaiak agertzen baitire:
 Hek entzutean bada kasik errateko,



Herrietan direla etxe xukatzeke;
 Ez badute sendatzen zenbeit berehala,
 Irabazteko dute uzten dena dela;
 Ehun biaia bebar, galdetzeko guti;
 Halere herioan, ohoin izen bethi.

Urthe multzua ez da eskolan egoten,
 Urririk ibiltzeko erien ikusten;
 Gostatzen da etxeri, gusta da lan ere:
 Ikhasteko sukharrak gorphutz gostuz dire
 Bere eginbideak baditu bethetzen.
 Gauza tzarra onentzat nihori sakhatzen,
 Lo egiten deskansu miriku zuhurak,
 Nahasi gabe hanbat zoro deihadarrak.
 Eian duen denbora ungi baliatu,
 Eian ez den Parisen sobera jostatu;
 Ez diteke deskansu, gusta bada ere,
 Mirikuntza ez badu ikhasi batere;
 Ebasten du dirua erien arthatzen,
 Ez badaki nihola hekien sendatzen;
 Eta ankas bizirik balu dainaturen,
 Bere arimaz luke kalte pagaturen.

Ehun errenkura da aditu herritan;
 Etziren oro behar eginak airetan:
 Eri guti zuenak biaiak berratzten;
 Astean aski zena, goiz guziz ethortzen;
 Jakin gabez zer eman sendatzeko gaitza,
 Akhabatzerat utzi erien gorphutza;
 Ez nahikatu lagun, zerbeit egiteko,
 Lau begi zirelarik hobe ikusteko.

Zeruak eman ditu erremedioak,
 Nahiz joren gaituen nozbait herioak;
 Munduan ez du deusik egin alferretan,
 Beraz erremedio on da eritzetan;
 Ez du bizia nihork berea izaten;
 Berak nahi dueino, Jainkoak emaiten;
 Haren xedea bethi behar da segitu,
 Era sendagailuez nihor ez trufatu.

Idiak eritzean, zenbeitek egiten,
 Buraso gaizkitzean, zaitena bekhaizten;
 Ez hainitz naski, bainau, bakharrak badire;
 Hekin gorrirazteko hauk erraten dire;
 Ezin jasana baita, Eskaldun herrian,
 Bihotzik hoberena gaindi den tokian,
 Hain gogor izan dadin nihoren arima,
 Ez ungi arthatzeko aita edo ama.



ESKRIBAK

Lumatik guti dire bizi herrietan;
 Direnak ere kasik atzeak orotan.
 Eskribek lehenago hits zuten omena;
 Farisauek bezala, mihia leguna;
 Ez dakit nihor zuten gauaz arrobatzen,
 Bainan argiz etziren izikor agertzen.
 &&&&&

Gizon bat dohanean eskriben etxerat,
 Ez du lehen aldian tturik bisaierat;
 Eskuak murruskatuz, handizki emana,
 Heldu zaio agurka nahi duen jauna.
 Khalapurik ez badu minen erraiteko,
 Berak dio eskribak hitza ixuriko:
 Ezkontzen zare ala behar duzu diru?
 Badakit lur saltzeko zuretan inguru...
 Ankas zabar-gazteak ungi ez badire,
 Gauzen arrimatzeko bideak badire...
 Behar dire zaharrak arras estekatu...
 Hek pagatu zor oro, zuk egintzat sarthu...
 Andre gaztea bada bihurtu etxerat,
 Senharra hil ondoan, bakez bizitzerat,
 Haren haurra behar da guziez gabetu...
 Zaharrekin adituz saltzen abiatu...
 Hek eginen dituzte zorrak bazterretan...
 Zuk pagatuko xuxen aditu artetan...
 Errex da emendatzen egina den zorra;
 Athera zokhotarik paper galdu tzarra...

Hola mintzo balire notari guziak,
 Gehiago litezke bazter nahasiak;
 Gehienak dabiltza bide zuzenetik,
 Zathirik hartu gabe ohoin asikitik,
 Zein diren segurenak jendeak jakiten,
 Erakusterat ere, bortzaldiz ematen;
 Gaxtagin itzuliak, laster kanporatzen,

Eta omenarekin, irabazi galtzen.
 Ez da deus egin behar legen kontra denik,
 Ez erakutsi ere, kalte dakharkenik:
 Beretzat ez lukete sos bat ebatsiko,
 Mila bertzei dutenek ebatsaraziko!
 Errex da eskapatzen lurreko legeri;
 Zeruak jazarriren enganatzailer.

Hobeko zuten askok, ez balitz izatu,
 Prestamuz, diru nihon zuenik hedatu.
 Gero hainitzek lana, zorren pagatzeko;
 Erreka jo menean, khexamenak joko;
 Notaritan dirua errex da altxatzen,
 Bainan ezin bihurtuz, etxea egortzen.

Erraiteko liteke zerbeit ez jakinez,
 Sobra errexkiegi notaltzen direnez:
 Jakinen meneko da kontratuzko lana;
 Hitz batek ekharkidin sekulako mina;
 Eskribek balukete kontu emaitako,
 Gauza pisatu gabe, deus ez egiteko;
 Jakin bezate ungi zer duten erasten,
 Hekin luma kolpea nola den egoten;
 Aita bezala dire, bakearen bahi,
 Ez dute nahasdura nihon behar nahi;
 Hek behar erakutsi zer den hirriskua,
 Norbaitek emaiten prestamuz dirua,
 Zertaraino ditezken bermeak hirriskua,
 Egitean hauzoki axkide atheka.
 Itsuen argi dire, onen segurantza;
 Ez bezote nihori urrezta khalitza;
 Ungirako xedetan ikustean gaitzak,
 Ez gorde argitzeko behar diren hitzak.

Asko jende nahasi badire herritan,
 Minbera dabiltzanak notari tzarketan:
 Eskriben ohorea, urrunduz halako,
 Egotea mihitan, behar bezalako.
 Sar bezate buruan, gaizki handi dela,



Baten fagoratzea, bertze lo dagola.
 Lastima, ikustea gaizo laborari,
 Paper tzar paketekin, emanak bideri,
 Sustengatzeko hauzi eskribek piztua,
 Eta herra handitan luze segitua.
 Gero dire ikusten, beharrez gaindiak;
 Nigarra daritela egorriz guziak.
 Hek galdu ontasuna sarthu hirietan,
 Jaunen pasaiatzeko karrosa berritan;
 Agintza handirekin zituzten harrotu,
 Hauzo behar zutela bethiko larrutu;
 Berea zeraukaten segurki hauzia;
 Ematen ere orok suari hazia.
 Akhabatu denean hauzia luzeki,
 Gastuek egin dute pilaia puliki:
 Bati etzaio heldu beretzat arditik;
 Gastuak hartzen dire gelditzen denetik;
 Bi eltzehurrengatik hasi zen hauzia;
 Partidentzat kroskoak, juientzat mamia;
 Batek etxerakoan izaten athorra;
 Bertzeak biluzia egiten nigarra.

Notari onak ditu asko arrimatzen;
 Ez da hura hirian nihorekin aitzen;
 Ez da aski axkide legeko jaunaren,
 Hari janarazteko etxe aldearen.

PILOTA JOKOA

Perkain eta Azantza, Eskaldun herrian,
 Aiphatzen dire, nola errege Franzian;
 Eskarak diraueino, hoik bien izenak
 Kausturen mendietan bethi oiharzunak.
 Mende guziek dute bere pilotari;
 Hobekien direnak mende huntan hari:
 Kaskoina, Harriage, Belxor, Detxepare,
 Kamio, Iribarren, Dihursubehere.
 Lehenak orotarik hartza du iduri;
 Bigarrenak gorphutzez ez zorrik nihori;
 Hirugarrenak ditu espalda hazkarrak;
 Laugarrena beztitzen bisaia ederrak;
 Bortz eta seigarrena, aphezak baitire,
 Hekin dohain ageriz ixilduren gare.
 Hoik guziek badute gorphutzean indar;
 Pilotari handiak zaintsu izan behar;
 Edozeinek jo duke pilota puliki,
 Bainan flakoak ez du iraunen luzeki.

Asko partida dire irauten dutenak
 Bethetzen dituztela udako egunak,
 Batzuk ez bertzek amor nahi gabez eman,
 Hastean baizen fresko iduri ariman.
 Ez uste pilotari hoik saltzen direla,
 Zezenen pikadore batzuek bezala:
 Lehen premuak dire zenbeit herrietan;
 Ethorki gustuz dire hedatzen pilotan;
 Ez da negozio bat holako jokia,
 Bainan eskal-josteten lehenbizikoa;
 Gorphutza da hartarat gazte lehiatzen;
 Handi ala ttipiak baltsan nahastatzen,
 Partida handi baten aiphamena aski,
 Jende oro biltzeko baterat arinki;
 Uzten dituzte lanak, gero egiteko,
 Eta badohaz goizik plazen kausitzeko.



Lau aldetan hertsatuz jartzen dire oro;
Ez dute zeren handik mugitu aboro,
Ez galtzekotz tokia, laster atzeman,
Higitzen bada handik nihor gutiena.

Agertzean launazka zortzi pilotari,
Gazteria emaiten irrintzirinari,
Irrintzirina baita bozkario gaina,
Eskaldunetan kanta ixitzen duena.
Laster kizkola denak dohaz ixilduaz,
Orroitzean jendea botaren oihuaz;
Gorputzez ala gogoz plazan da emaiten,
Jan-edana ere da han deino ahanzten.

Pilotari on denak lehen bota pika,
Hastetik jarrarazten bazterrak oihuka;
Erreferak badio bigarren botari
Pasoaz ihardesten, guziak *bibari*.
Trebesak orduan du lekhukotan menta;
Ez balitz pariatzen, hotz liteke besta;
Hartako ere behar, nola gastutako,
Nor nahik hirriskatu bi bortz liberako.

Errex da ezagutzen zein-zeinentzat diren
Kintze galtze bakhotsak galtzaile histuren;
Ezin ixil oihutik irabaztailea,
Lausengatzen duela joko egilea.

Ethortzen da orena, zeinetan pirpira
Hedatzen baita ixil barnez bira-bira:
Pilota dabil airez, ezin bara nihon,
Gibeletik egortzen, barne ezin egon,
Bortz, sei aldiz ethortzen eskularruz joa,
Aphaletik duela ziztuan hegoa;
Altxatzen da zerurat, hortz adar bezala,
Arkurik ederreña egiten duela;
Buru guziek betan diote beiratzen,
Ezker-eskuan direla harekin itzultzen;
Gibelekoak badu aldia jotzeko,

Hura begi guziek dute bilhatuko;
Erreferan sartzean urrundik pilota,
Hegiek berritz harat bere tarrapata;
Zortzi pilotariak oinen puntan dire,
Pilotari segitu beharrak baitire;
Ethortzean pilota eder besoari,
Frixtan egorriren da beherekoari,
Airea harraraziz ethorri bideaz,
Nonbait sarthu den arte haustaile kolpeaz.

Kintze akhabatzetan, bolatzen xiztuak;
Gizonen tresna orok iduri piztuak:
Maipolis, gaphelu, makhila, gerriko,
Bozkarioz airetan, orok ibiliko.
Iguzkiak jotzen du bere minenean;
Arthoa erre luke harriak gainean;
Halere nihork handik biderik egiten;
Gaphelua eskuan *Anjelus* erraten;
Othoitz saildu horrekin ez akhabo joko;
Nihoiz baizen hazkarki pilotan lothuko,
Lau juiiek dioteino ilhundu duela,
Itsasoan ekhia ungi sarthu dela.

Jaun hoiek berek dute juiatzen hauzia,
Zenbeit kintze denean goibel ehortzia;
Biltzen dire guziak plazaren erdirat,
Gapheluak eskuan, nola biltzarrerat;
Hekin errana nihork ez duke ezeztza;
Hek mintzatu artean, gelditzen pilota;
Ez dukete paria, batzuen ez bertzen,
Intresak duelakotz gizona itsutzen.

Herriek emaiten herriei partida,
Bakhotsaren esteka herri aldeko da;
Españolak badire kontra Franesaren,
Bihotz guzietan da su erresumaren.
Irabazi dutenak, errege agertzen;
Ehun *biba* diote zintzurrek egortzen;
Nola ziren Grezian bestako nausiak



Trionfan eramanak populu guziak,
Hala pilotaria, irabazi badu,
Gazteriak etxerat kantaz segitzen du.

Pilotan gehienik gorphutza zalutzen,
Hango lasterketarik osasuna sortzen;
Pilotari ez denak, hainitz edo guti,
Ezagun dohanean zenbeit mendi goiti;
Arina den bezala muthil Eskalduna,
Pilotak harentzat du gustu gehiena.
Lehenago izan da erregen josteta,
Orai du segitzaile populuen aita;
Ungien du pilotak zer den erakusten;
Beira ere jarria handi du ematen:
Iduri kasik dela senador bilkhuia,
Urrun da nihork duken halako arbuia.
Ez du bere gustua ixurtzen odola;
Zaintzen ditu lagunak lekhuko dagola;
Nihon ez da gaizkitik beiratzten hobeki;
Pilotan hari denak badu lanik aski;
Aho zikhina balu, utzia liteke;
Bertzen herrunzkaz kanpo, egon behar luke;
Ez da inguru ere zillhegi gaizkia;
Bakhotxak itxikitzen bere izaria,
Asaldan beharriak eman gabetarik,
Eta lizunkeriak gordez begitarik.
Nor nahi badohake pilota jokorat,
Hala nola baidohaz jende pasaiarat;
Dena den Eskalduna, han ungi agertzen;
Han herrunka guziek betan distiatzen;
Jaun handienek dute juie karga hartu;
Etxeko jaunak oro dire nahastatu;
Gazteria berex da, oiuhu egiteko,
Edo pilotarien tresna beiratzeko.

Herriz kanpoko jendek badute makhila;
Hargatik herritarra ihes ez dohala:
Ez du nihor makhilak, eskal-herrietan,
Behin ere izitzen, ungi bidetan,

Eta gaizki dohanak hain on du ikusi
Makhila, nola bertze haltzairu itsusi.
Ibiltzen dire kanak, baieta puñalak;
Zer du hain izigarri Eskaldun makhilak?
Hura dute ezpata, hura bere harma
Guziz gora maitea, salbatuz arima;
Hura dute bidean lekhaio bezala;
Gauaz diote zaintzen zizailu gibela;
Zakhurra begiratzten, asiki menetik;
Atheratzen zangoa erreken artetik;
Maipolis zarpetan urre badabila,
Iduri du makhilak haren garda dela;
Biaian du arropa dilindan ibiltzen,
Hitz batez, Eskalduna makhilak bezitzen
Nola dire huzartak, zamari gainean,
Airosago agtiertzen, ezen ez lurtean,
Hala Eskaldun semei, makhila eskuan,
Ez iduritzen beldur nihoren munduan.
Ez da hekin makhila herrestan ardura,
Egiten duelakotz beso aphaindura:
Mizpiraz egin da, baratzeko haurra,
Erdiraino kroxkekin, lerdena beharra,
Aphaintzeko azala, khendua labean;
Kisuan gorritua, soto bazterrean;
Bortz erri trebesetan, larrua gainetik;
Bi erri trebes kobre horitan azpitik.



ZEZENAK

Nahiz ez den zezena Eskaldun josteta,
Donestia, Iruñan menta handiz baita,
Erranen dugu nola gizon bain flox dena,
Zezenekin dabilan, eramanez gaina.

Hamar gizon tieso badohaz lerroan;
Zenbeitek kapa dute ageri besoan;
Ezdian daramate bestako lilia:
Montes edo Cuchares, pare berezia,
Ezpatako bezala, lehenak agurka,
Gorthetan dituztenak axkide milaka.
Bira-bira jendea alkhitan dagola,
Batzuk bertzen gainetik ikusten dutela,
Apehaz eta miriku athean jarriak,
Ixtripu ditezkenen konsolagarriak,
Montes eta lagunak dohaz balkoinperat,
Belhauniko zezenen gakho eskatzerat.
Plaza erdian bada gizon kartoinezko,
Ilkhitzean zezenak duena heziko;
Hari bere adarrez sabel zilhatzean,
Aire guzia handik xoriz estaltzean,
Batzuk dohazilarik erreginaganat,
Bertzek ihes egiten bide idekirat,
Jende guzia hirriz jartzen da inguru,
Ez duela deusentzat gehiago buru.

Saltoka dabil bera xahalaren aita,
Sudur ziztu berraturuz jende ikus eta,
Lasterren boliada hartuz ingurutan,
Adarrez joz airea, muthur arrapotan:
Aldiz dio lurrari behatzez ematen,
Zintzurtean marruma duela chorzten.

Nor zaio bada buruz orai agerturen,
Haren errabiari nork ihardukiren?

Badire haren beldur ez diren gizonak,
Ikharan direlarik beira dagozenak:
Bortzek ikusi dute Montes aitzinatzen,
Hasia zuelarik ilea urdintzen,
Galtza labor ferdekin, galtzardi xuritan,
Maipolis zilharra iduri begitan,
Kortesia bezetha, beltzaran itxura,
Desafiatuz gora zahar ithaitzura,
Zirikuzko sarean burua emana,
Xingolaz aphaindua ungi kattagona.

Bertzela dire bezti *toreadoreak*;
Kapetan badituzte zazpi koloreak,
Zezen tirriatzeko etxatuz hetarik,
Nihor denean hurbil adar puntetarik.

Pikadoreak dire jaunak zaldietan,
Lantza luze batzuek eskainiz morgetan,
Kameluzko larruaz galtza horitua,
Burdin xabal bereziz barnez horratua.
Xapel zuri zabalak dituzte buruan;
Mokanesak zaldiek begi inguruan,
Egon diton geldirik zezen hurbiltzean,
Ez beldur gatik segur dohazen airean:
Doidoia daude xutik, bizkar konkorrekin,
Erdiitsuak eta belhaun gorriekin.

Ez dire tonto behar *txulo* hautatuak
Botatzeko zezenei min dariten suak.
Agertzean zezena, ideki atheak
Hurbil ditu aldean jaun pikadoreak;
Xahalaren aita da athera farrastan,
Ez daki nori jazar, ahurin zurrutan,
Errotua, ikusiz mokanes pesia,
Bira-bira inguru eskuz ibilia;
Zango, buru, buztanez urrunduz bakea,
Ikharak duelarik bihotzen bethea,
Bulharretik hartzen du zamari gaxoa;
Ezartzen erroz gora, banazka, lerroa.



Heak xutik dire buru guzietan;
 Hatsa nekhez ilkhitzen, bulhar hestuetan.
 Zaldizkoak lurrerat eme joan dire,
 Dohatsu kolpatuak geldi ez badire;
 Zaldia gelditzen da, bulharrak ageri,
 Odola sahetsetik zurrutetan jari;
 Zenbeit aldiz nahi du altxatu lurretik,
 Hertzea dariola sahets idekitik,
 Urruntxago hiltzeko, oroz ikusia,
 Gauza begi hainitzek ezin onhetsia.

Gainean zen gizona, zezena erroak
 Xirxikaturen luke, ez balu xuloak,
 Bere kapa arthikiz, hartarik urruntzen,
 Eta berari buruz oldartuz bihurtzen.
 Geroztik ophil batek arintzen bihotza,
 Ez baita haren hurbil herio garratza;
 Hirrisku gehiena ez du eroriak,
 Bainan xulo zezenak lasterka segiak;
 Hark behar seinalatu hegalak zangotan,
 Atheka saltatzeko arin eta frixtan,
 Ondotik duenean, hurbildik adarra,
 Zezena muthiria, berenaz hazkarra,
 Eta, bere asaldan, nihon ez duena,
 Indarka ez bertzela, buru diokena,
 Kapa dio botatzen, heldu den biderat,
 Harekin josta dela, heltzeko porturat;
 Batzuetan badoha aitzinat hargatik;
 Beira orduan xulo behaztapatzetik.
 Askotan ez du nahi utzi pikadore;
 Zaldipean, adarraz, ferekatzen ere,
 Fereka ez direnak amaren besarkak,
 Bainan sorraraztaile bethiko marraskak:
 Zaldiz egin ondoan itzuliphurdia,
 Erroz gora badago ahuspez jarria,
 Maiz aski gelditzen da dena ubeldua,
 Atheka, zaldi eta lurraz umatua.

Ethortzean zezena zaldi aitzinerat,
 Adarrak bulharretan hari miratzerat,
 Zaldizko balentria, lantza puntarekin,
 Ihesi egortzea, buruko minekin:
 Hartako behar sarthu buru gibelean
 Haltzairu zorrotzena, toki minberean;
 Zaldi beiratzailak bibak ardiesten,
 Zezena ihesari denean ematen;
 Nola biba zezena aditzen oihua,
 Erortzean gizona, azpiko zaurthua.

Zalditan gehienak hilik gelditzean,
 Pikadoreak ere zenbeit kolpatzean,
 Xirola bastart eta trunpeta aiosak
 Bolatzen dituztela bizi hargamasak,
 Xuloek hartzen dute, suziz gaindi dela,
 Metra bat naski eskas ditteken makhila;
 Puntan dire amuak lephotik sartzeko,
 Lasterkan, egon gabe adarren meneko;
 Xingola dariote makhila multzuei,
 Zezenaren lephoan artexki lothuei;
 Suziak zarrakzoten barnean gordeak,
 Khar-joa hurbiltzean, ziztuza erreak.

Ez da folsua behar batere makhurra,
 Lanzixken sakhatzeko, ihestuz aderra;
 Aski artex ez bada, badu bere kontu:
 Hirriskuak odolaz pagaturen ditu.

Suzia dutenean, dire ikusteko;
 Zezenen errabia, ezin sinhetsizko:
 Irakia darite, orroaz, saltoka,
 Erreak, eta nori ez jakin bendeka,
 Lephoko zain guziak odolez hantuak,
 Adarrak espalderi minez oldartuak:
 Halere buztanetik zenbeitetik ibiltzen,
 Bira-bira adarrei direla itzultzen.



Ezpadak harturen du *muleta* orduan;
 Hura da oihal gorri makhila buruan;
 Eskuineko eskuan duela ezpata,
 Montesek khoroatzen zezenen josteta:
 Gizon eta zezenak beiratzen elkharri,
 Bekhoz-bekho jarriak, bortzen harrigarri;
 Lehenak ez du indar nahi baliatu;
 Gogoeta guziak adrezian ditu;
 Jakin behar du adar nola den hedatzen,
 Eta hekin kolperi nola den itzultzen.
 Zezenak, nahiz ase bere errabia,
 Ezin gorde dezake khartsu gutizia,
 Ixurtzeko odola adar ezpatekin;
 Errotzen da muleta ikustearekin.
 Ez diteke gizona deskansu galtzetan;
 Bazter guziak ere dire pirpiretan;
 Biltzen ditu buruak gudu lazgarriak,
 Deus gisaz bertzetarat ezin itzuliak.
 Zezena badohako saltoz gizonari,
 Beldur guti ekharriz haren bultuari;
 Bainan ustez hura jo, muleta du jotzen,
 Frixtakoan gizona zaiola itzultzen,
 Sarthurik itzultzean, buru gibeletik,
 Ezpata, utzi gabe galtzerat eskutik.
 Zezenaren gorphutza dardaran ematen,
 Doiean xutik ditu bi urrats egiten.
 Kolpe ederrena da hola egin dena,
 Eta zezena bera saritzat duena;
 Bainan lephoan nonbait zezena ukia,
 Sarraskitan badabil, oraino bizia,
 Ezpadaren paga da izsten xiztua,
 Denbora luzenean ezin ixildua.

Nausitu den ezpada, bozkarioarekin,
 Joaiten andretarat zenbeit xingolekin,
 Erakusten dutenak zezea ethorkia:
 Non zagon lo maltzurra andre kortesia!

AGOTAK

Zazpi urthe zituen mende seigarrenak,
 Ehorztean Alarik gudu Fransesenak.
 Ihesari eman zen soldadu ondarra
 Joan zen kaustu arte Eskaldun zaharra;
 Bazakien plegatzen zura guphelara,
 Bilhakatzen zumea beso otharrera!,
 Egiten gauza asko, menditan berriak,
 Hangoak ez baitziren nihon ibiliak.
 Harmada zehatutik eskapatu Gothak
 Deitzen dituzte *Agoth* edo *Kasta-Gothak*.
 Badu mende dozena herrian direla,
 Eskaldunekin gabe nahasi odola;
 Ur benedikatua berea bazuten;
 Bertzena Elizetan uki etzuketan.
Bohemiak dituzte batzuetan deitzen;
 Mando mozten zenbeitek bizia higatzen,
 Harrapatuz artean ardi gizenenak,
 Ez badire egoten ernerik artzainak.
 Gutiak dire hetan lur laneri lotzen,
 Higuin dute pokadu izerditan biltzen;
 Bertzenaz jabetzeko dohainaz aberats,
 Ez du zeren hauzoak sobera hartu hats:
 Ebastea aldian bortz sosetaraino,
 Ez dute sinhetsiren dela gaizkiraino.
 Hekien hertzetako guziak on dire;
 Zer nahi jan ondoan, ez eri halere:
 Azienda berek hil, eta ehortziak,
 Biltzen dituzte eta egiten jakiak,
 Borda tzarrak dituzte jauregi hautatzen;
 Han izurrite gaitzez direla trufatzen;
 Ongarri meta batez egiten tronua,
 Ez bada haitz zaharra, leihor hautatua.
 Emazte eta haurrak hautsean ematen;
 Hor-hemenka gizonak nahasiz egoten;
 Ahoz aho dabila xurkatzen hezurra;



Zahatoari nihork gordetzen muthurra;
 Azturak badituzte sobera lohiak,
 Ezin jasanak jende batere garbiak;
 Beltza dute begia, arrosa ezpaina;
 Sendo eta zuria, ahoko lethaina;
 Hiru dohain hoietan ez dute parerik;
 Hoik bezti lezakete bertze bisaiarik.
 Bertzen ondar guziak, arropatzat onak;
 Bainan ederren zaizte bethi airosenak.
 Hekin larruak badu zerbeit lur itxura;
 Ezaguturen ditu nor nahik itsura;
 Badakite gurutzez heldeak urruntzen,
 Ethorkizuna ere zoroeti zabaltzen;
 Mendi alderat hainitz ozarrago dire;
 Dixiduz baliatzen direnak badire.

Kosta alde direnak, bizitzen bertzela,
 Segitzen dutelarik legen erregela;
 Gizonak badohazi itsasoz bertzekin;
 Emazteak ibiltzen saski arrainekin,
 Beso zaluz hegalak eginez bidetan,
 Traba guti dutela takoin sortzekotan,
 Belhaunetarik goiti altxatuzko soinak,
 Larru beltzak, hasean, beltzago eginak.
 Badituzte mazelan behatz zarrapoak,
 Goizean ibilirik sobera mokoak:
 Hurbildu direneko lurretik piñazak,
 Ekharritz atun, xardin, arrosel, marluzak,
 Emaztek, saskiekin ureraino sarthuz,
 Gortzen dute jendea patarrakan oihuz;
 Sorkhan, pusan, etxaka, elkharrri lothuak
 Zer duten egiteko nahasiz oihuak,
 Batzuk bertze lehertuz, zarrapoz elkharrri
 Ez balitz komedia, lite izigarri.
 Arropa xehatuak badohaz airetan;
 Gutik dute ilea bere burukotan;
 Saski eta burutez lurra estalia;
 Askotan arrain oro zangoz ehortzia.
 Atheratzen zer nahi, mihi xardinzalek,

Gora-behera hainitz dutela kizkolek;
 Khalitzik khiratsenak husten ondoraino
 Laidoaren ezpata sartzen lephoraino.
 Gai lazgarrienekin dohaz dixiduak,
 Eskarnioz direla dantzatzen buruak;
 Bi hanketan eskuak fatxadan emanik,
 Harpitan ez diteke hain aho saminik;
 Alegiak baditu elhorri minenak,
 Agurtzean *ederka* kopeta beltzenak;
 Gorriraz lezakete edozein soldadu,
 Abokatak heiekin beharko ixildu.

Xardina dutenean hedatu hirian,
 Ez dute khariotzen solasa mihian;
 Agorientak khaldan zintzurra ematen;
 Etxeko bideari bakerik ez uzten,
 Gathanborak eginez saski hustuekin,
 Eta aphaleko boz, kaldera tzarrekin.



ABERESTASUNA

Idi, behi, zezena, bada Pirenetan;
 Zaldi seguragorik ez da bazterretan.
 Laborari on denek arthatzen idiak,
 Garraio, iraultzetan, bethi jarrekiak,
 Ausnarreko sotoan, pausetako mugan,
 Ez badire etzanak, edo buruz asean.
 Behi gorriak ere hainitzek baituzte;
 Bretoinek jende xehe ixil hazten dute,
 Khentzen zaiotelarik xahala pikoko,
 Eta gazitzen ere esnea gasnako.
 Etxe alde hainitzek arthalde badute;
 Ehun bat buruz gora gutik nahi dute,
 Ez da bethi izaiten beiratzeko ora;
 Haren beharra heldu, toki arabera.
 Uda oro badaude ardiak menditan;
 Neguan nahi dute behere hautetan.
 Heldu zaizkote gaitzak, noizetik noizerat;
 Murruka daramatza herio biderat.
 Bustiadura dute izurrite handi,
 Nola inzpora, udan, idor dena geldi.
 Artzain onak ez ditu kanporat largatzen,
 Ikus arte ihintza osoki suntsitzen;
 Itzala nahi dute bero handietan;
 Hirriskuak badire bazka gurietan:
 Han erituei zaite, ur xorta batean,
 Ammoniak ematen, kuilida heinean.
 Moxteko denboretan nahi da kontua,
 Beroa bezala, da hotz hirriskutsua.
 Ez dire bizkarrean xuritzen ileak;
 Ondorio tzarra du hola bustitzeak.
 Ez da bertzeekin uzten klabela duena;
 Edanarazten zaio izer dukeiena;
 Arras on du irina ur hainizkorekin,
 Eta lephoan ere, zedoina artheekin.
 Zaragarraren kontra, hainitz ez denean,

Haztatzea hoberen, eta, azkenean,
 Terebentina eta segoa baltsatuz,
 Hedatzea gainean, ilea trozatzuz;
 Handi denean gaitza, ilea pikatzen,
 Eta lixiba ura mekeki ixurtzen,
 Behatzekin delarik lehertzen tokia,
 Gorderik deraukana gaitzen ithurria.
 Aho zabal badago ardia bidetan,
 Arrapoa jarian, odol sudurretan,
 Hatsak nekhez ematen, gorrisko begiak;
 Ideki behar zaizko odol ithurriak.

Gibelak zaizkotzite maizenik usteltzen,
 Inzpuretako urez direnei asetzen;
 Orduan maiz gaitza da hainitz hedatua,
 Guziek dutelakotz edan ur galdua:
 Segitu behar dire, erremediotzat,
 Janari idor, gazi, onak guzientzat.

Artzainek badute lan bildotsak sortzean,
 Nola negua bada bere borthitzean;
 Bainan ere badire denbora udako,
 Ez dituztenak jaunek bethi beretako.
 Huna zer duen batek nigarrez aithortu,
 Artzainkoa uzterat denean lerratu:

«Ene antxu gaxoak bebar ditut utzi;
 Badire orotarat ehun eta zortzi;
 Ora gaizoa sarri ez dut ikusiren;
 Kaikurat gehiago esne ez deitziren.

»Itzalean erdara, haizea ferekan,
 Bortz lo eginik nago sorropil panttokan;
 Bizia naramakan nihongo aisenik;
 Ez du Napoleonek halako egunik.

»Ihizelairat ginen zazpi-zortzi biltzen,
 Bi sos jokan emanik ederki jostatzen,
 Larrun paretan alha zirela ardiak,



Gure begien bixtan ageri guziak.

»Unhatzean pilotan, harroka gainetik
Beira ematen ginen, ederren aldetik:
Begietan gintuen Laphurdi guzia,
Linho landa iduri, itsaso garbia.

»Sobra fresko zenean neguko haizea,
Errex zen bertze alde urrats egitea,
Ikus eko hedatzen, ehun haranetan,
Españiako herri jauntziak beltzetan.

»Oihartzunak etziren oren bat ixiltzen;
Gure irrirtzirinek zituzten harrotzen;
Menta zuen xiroiak; menditik mendirat,
Egortzen ziren kantak lagun beharrirat.

»Ttaloa eta gasna, marrakuku gaiak,
Sendatzen dituztenak sabeleko baiak;
Etxola alhasean etziren eskasten;
Deusei baino hobeki indar zarioten.

»Ithurri-ederretan, ur garbi edari,
Ez baitu buru minik ematen nihori;
Airetan garbiena, bulharren hazteko;
Bethi barnea ungi, denaren jateko.

»Aita, ama, haurridek, guziak dozena,
Serresen daramate bizi arraiena;
Diru guti sakelan, bainan nihoiz eri,
Inbidiarik gabe nihoren onari.

»Astean behin gasna ekhartzen nioten;
Hek asteko irina zautedan ematen;
Partiada guzian amar zioela,
Lagun tzar orotarik beira nindadila.»

Alfer omena dute artzain gehienek;
Hekin bidea guti hartzen Eskaldunek;

Herritar deusik denak, herria husturen;
Aski alferra bada, gordeko bederen.
Bere etsaia dute neguko otsoa,
Hotzez bezenbat gosez, zabala ahoa.
Ardi zenbeit zirindu jaten axeriak,
Bainan hainitz hobeak zaizko oilokiak;
Arrano erregea jausten da menditik,
Haragia beleak usnatu ordutik.

Ihizi gaxto guti da Eskal-herritan;
Ager ahala dire sunsitzen orotan;
Edozein Franziako hegaldunik bada;
Haragi on bahia, xarpota gaindi da.
Marmalotarik hasiz lersunetaraino,
Baliteke zer erran, urthek dirauteino:
Ihizi gaxtoenek, haragi ustela
Utzi duten ordutik, higinduz bezala,
Gauaz eta egunaz marmalo sortzen da;
Har, uli, xixaria, ilumini bada;
Ez dute deus hek uzten izurrite bide;
Hezur mami guziak dituzte axkide.
Sortzen dire non nahi putzu usteldutan,
Lan bera egiteko, ontasun bidetan.
Jainkoak hala nahiz, bertzeak badire,
Zeinen eginbideak begitar baitire:
Hetan batzuk erroak dituzte iresten,
Bertzek berritz ostoa bazterretik jaten;
Batek sobra den ura xurpatzen adarrei;
Bertzeak gaindi dena izarturen lorei.

Zuhamu zaharretan, bere muthurrekin,
Eginak taratelu haltzairu gisekin,
Hari dire luzeki pipia zainharrak
Iharrarazten arras dirauten ginharrak,
Lurrerat joan eta, usteldurik berriz,
Lagun dezaten sortzen landare ongarriz.

Oihanean haritzak gora dakhar buru,
Ehunka marmaloak baditu inguru:



Hanneton, Kaprikornek, erroa zilhatzen;
 Lepture, Soperdesek axala dainatzen;
 Tenthredok adarretan, Cinipsek ostotan,
 Arroltzeak egiten bere ohatzetan.
 Ehun bati ostoeak bizia haziren;
 Papillun, Fanelentzat, hek berak askiren;
 Charanzon eta Bruchek herrausten hezkurrak;
 Haritzak hola dire bortz hazi beharrak.

Uda hasteko haizek, bere hats ephelaz,
 Egitean baratze lurraren axialaz,
 Sortzen dire marmalo, gordeak ohetan,
 hedatzeko pesiaz iguzki bidetan.
 Iduri primadera bere bazkaria,
 Lilietarat dute bere ixuria,
 Iresten belhar puntta, sorthu arabera,
 Sakhailatzen bottoina, oraino samurra.
 Badituzte palenka, bere gisakoak,
 Haizkora, trukes eta lanza dainuzkoak.
 Ikustean hekien osteak elgetan,
 Mahasti, udaretze eta sagarditan,
 Iduri dute ogi eta gereziak,
 Gizonaren janari orduz bereziak,
 Errenkura direla, ixiltasunean,
 Zeren diren holako harmaden menean.
 Bada orduan ditu, zeruko Jainkoak
 Sorrazten ihizi araberakoak:
 Iguzkiko aldetik, haize hegaletan,
 Heldu dire xoriak ehun koloretan,
 Asmu xoilaz segituz behar den bidea,
 Urruntzeko herritan marmalo heldea;
 Iduri airetako marinel direla,
 Murruka sortzen dire kanta daritela;
 Besta zaiote berei sartzeko eguna;
 Bakhotxak hautatzen du toki dohakona:
 Landa, baratze, mendi, ur bazter ustela,
 Marmalo guziera gudu diotela;
 Ulia bilhatzen du airean enadak;
 Zuhamutan okhilak egiten biradak,

Dohalarik itzuliz adar puntaraino,
 Haitz zorriei mokoka, asmatzen dueino;
 Lur aldeko uliak, itzal hautuetan,
 Errexinolak ditu klikatzen artetan.

Batzuk bertzei eginez legea horrela,
 Eskal-herria kausten ungi den bezala;
 Hoik guziak ikusten gizon Eskaldunak,
 Mendetan Pireneak bere dituenak;
 Bere haran ederrek, bizia ematen;
 Oihanetan egurra ez nihoiz eskasten.
 Ez ahal du sekulan jauna ahantziko,
 Edo ezagutzari bidea herstuiko!
 Zuhaitzak adarra du beheiti plegatzen,
 Jainkoari duela homaia bihurtzen:
 Othe ditezke bada nihongo belhaunak,
 Khurrarazi gabeak jaunaren izenak?
 Arthaldek mendietan, morthuan lehoiak,
 Badituzte zeruko bere laudamenak;
 Eta gizon ahoak ikusi beharko,
 Ideki ez direnak Jauna kantatzeko?
 Harrokaren basoa bethi da bethetzen,
 Haren gaia zilharrak elgea freskatzen:
 Gizonaren bihotza, amodioz agor,
 Egon othe diteke zeruari gogor?

Egia zare, Jauna, bidea, bizia;
 Gida zazu zeronek Eskaldun guzia:
 Luze diozu eman bizia menditan,
 Balinba izanen da zurea mendetan!

HALABIZ